A photograph of a woman with shoulder-length brown hair, smiling slightly. She is wearing a light-colored, long-sleeved top and a large, draped brown shawl or poncho. The background is dark and indistinct.

**IRUIÑA VELEIA
BIZIRIK**

Felix Zubiaga

Iruña Veleia
bizirik

Felix Zubiaga

© Felix Zubiaga Legarreta

Azalaren diseinua eta maketazinoa: Felix Zubiaga Legarreta.
“Dama de Veleia” deitu zioten ulertuek, laiariek soloan buru gabe aurkitu eta
Gasteizko Museora jaso zuten taxuari. Herriko neskak prestatu zion arpegia
Ama Jainkoaren irudiari.

Ekoizpena: Erroteta

ISBN: 978-84-15508-99-1

Lege Gordailua: BI-1261-2018

Inprimaketa: Printhaus

Autorearekikoa

Telefona: 94 673 04 86./48340-Amorebieta, Orue (Bizkaia)
edo <fzubiaga@orue.biz>

Iruña Veleia
bizirik

Felix Zubiaga

AURKIBIDEA

SARRERA.....	9
I. EGIA LURPETIK DATORRENEAN.....	11
1.1. Arkeologia eta Historia.....	11
1.2. “Enterrémosle santamente”.....	13
1.3. “Museua bonbardeatzeko?”.....	16
1.4. Ijitoak Iruña Veleian.....	18
1.5. Talentuen Parabola hiruzkintzen.....	19
1.6. Lehen Ikastola Iruña Veleian.....	21
1.7. Karistiera bizkaiera delarik.....	22
II SORKUNTZA AMATARRA DENEAN.....	25
2.1. Amaren arpegi billa.....	26
2.2. Amaren izen billa.....	27
2.3. Inko Ama aldarera.....	28
2.4. “Gure Aita” euskeratzen.....	29
2.5. Gurasoen armonia.....	30
2.6. Amaren Etxea, memoria eskolatua.....	32
2.7. Amaren Etxea, zapaldu ezina.....	33
2.8. Asmoz eta jakitez.....	34
III SORKUNTZA JUPITER DENEAN.....	35
3.1. Gizakia kurutzean ikatzen da.....	35
3.2. Zarraparrak izaten dira.....	39
3.3. Ordeum<ordea>ordaintzen da.....	40
3.4. Langarika>Langreic>Langraiz.....	41
3.5. Eresia guztien ordua: <i>patekoak</i>	42
3.6. Gezur guztien ordua: <i>patetikoak</i>	46
3.7. Marzionen buruaustea.....	49
3.8. Eliseoren buruaustea.....	52
IV. IRUÑA VELEIA, EUSKO KALBARIO ALEGIA.....	54
4.1. Arrain andiak txikia irunsten.....	54
4.2. Leoiak ala bildotxak?.....	55
4.2. Otsoak ala azagariak?.....	56
4.4. Odolezko garbiketak.....	57
4.5. Noiz arte jasan behar dugu?.....	58
4.6. Angeruak ere erori egin ziran.....	59

4.7. Emakundea, aldiotan ere argibide.....	60
4.8. Inannaren <i>me</i> arteziak.....	61
V. IZADIKO ARKETIPOEN MEMORIA OSTRAKETAN.....	62
5.1. Uraren memoria bustingian.....	63
5.2. Suaren memoria zeramikan.....	65
5.3. Airearen memoria ontzian.....	67
5.4. Lurraren memoria ostraketan.....	69
VI. GIZA ARKETIPOAK OSTRAKEN MEMORIAN.....	70
6.1. Ka-ren memoria ostraketan.....	71
6.2. Ba-ren memoria ostraka idatzietan.....	73
6.2. aS memoria aztu-ezina Iruña Veleian.....	75
VII. TOKIZENEN MEMORIA IRUIÑA VELEIAN.....	77
7.1. Santutegien izenak: <i>Oro, Koro, Kurtze</i>	79
7.2. Mitoak eta Historia.....	82
7.3. Mendien izenak: <i>Ainamendi, Anboto, Gorbea</i>	84
7.4. Lurraren izenak: <i>Asia, Afrika, Europa, Ozeania</i>	86
7.5. Herrien izenak <i>Sumer, Egipto, Grezia, Kanada</i>	88
7.5.1. Ibaien izenak: <i>Deba, Nerbion, Oka</i>	89
7.5.2. Ibaien izenak: <i>Aturri, Aragon, Ebro</i>	91
VIII IRUINA VELAIA 2.000 URTETAN.....	92
8.1. Euskeraren memoria ostraketan.....	92
8.2. Erromatar kurutza gainean dugula.....	94
8.3. ¡Muera la inteligencia!.....	96
8.4. <i>Ene!</i> , ohiuak otoitz ereduak.....	98
8.5. Ostraken geruza.....	100
8.6. Valentinarene ausardia.....	102
8.7. Ama.Ata eta Eroei goratarrez.....	104
ONDORENAK.....	105
ETIMOLOGIAZKO HIZTEGIRAKO MITOANALISIA	109
BIBLIOGRAFIA.....	121

Eskemak eta oharrak

Zenbakiak arketipoen eratarata.....	42
<i>Adapa</i> ^(s) / <i>Abata</i> ^(eus) > <i>Ptah</i> ^(k)	44
Gramatikazko nortasunak eta Nor ordekoak.....	46
<i>amatu</i> >< <i>amakatu</i> > <i>magia</i>	48
Giza bizitokiaren izenak arketipoen eratarata.....	33
<i>Adapa</i> ^(s) / <i>Abata</i> ^(eus) > <i>Ptah</i> ^(k)	52
<i>amatu/amakatu</i> > <i>magia</i>	54
UR arketipoen eratarata.....	64
Margoen gama arketipoen eratarata.....	66
Keramikazko ontzien izenak arketipoen eratarata.....	68
Arketipo beinenak.....	72
Santutegien izenak arketipoen eratarata.....	78
Mendien eta ibaien izenak arketipoen eratarata.....	80
Oiuzkoen analogia arketipoen eratarata.....	90
Una Historia de Vasconia.....	100
AMA.ATA eta beste eroeak.....	104

Sigla batzuren irakurketa: **(s)** sumeriera **(k)** koptoa, (u) ugaritera, **(h)** hebraiera, **(g)** gerquera, **(l)** latina, **(ga)** gallegoa, **(ca)** catalana, **(gaz.)** gaztelania, **(f)** frantxesa, **(i)** ingelesa, **(it)** italianoa, **(al)** alemana.

SARRERA

Bazko jaietan abesten den bezela, “biziak ta heriotzak ha izan dabe guda/ bizia hilik, nausi gelditu da”, doinu berean hasi gaitkez Iruña Veleiaz berbetan, lur silutua hiltzat izten dutenek, egia bizirik izkututzen dutelako, eta bizirik dagoela sinisten dutenek, kristianoen ariketa egitera behartzen gaituelako.

Lehenago ere izan ziren eztabaidak eta susmoak Pilatosen eta juduen artean, kurutzera epaituaren gorpua hilobitik ostu zutela, zaintzaile lotiak lekuko, gezurra esatearren, diru mordoia jaso zutelarik “lekuko lotiak”, etab. Hala kontatzen dute ebangelariak ere, Markogandik asita. (Mk. 28, 11-15)

Egia esan, gorpua han dago, Iruña Veleia Gorin, gurutzaren seinaleak eta gurutzatuaren irudiak ere han dagoz, kristianoen eskolaume ariketak bailiran, baina lurpetik atera zen material zaharra eta metro ta erdi lurpean gelditzen diren izkribu motxak eta bizi pilpira han, hilobi giltzatuan bezala baituak, gordeak, izkutatuak diraute gaurdaino berbizkundearen zain.

Askok ez dute berbizkundera sinisten, misterio andiegia delako, izan ere, giza buru-eritsi aularen aurrean, baina hemen *NEU VELEIA GORIN BIZI NAS* lekukoak dinon lurpean misterio andiak izkututzen dira: ia orain bi mila urteko aur euskaldun batzuren eskola ariketetan. Hori harrigarria da. Historiako maisuaren lezi-noan *NEFERTITI* agertzen da. “Hori sinistu ezina da” - esan du artean fede gutxiko maisu batek- “Nefertiti izena eta fama, XIX gizaldian agertu zan Egipton, Champollionen garaian egin ziren indusketetan, eta zuk K. g. III gizaldikoa dela dinozu, beraz argi dago Iruina Veleiako ostrakak guztiz faltsuak direna”.

Ez izan misterioen bildurrik: Faltsoen eta zindoen artean gezurraren eta egiaren arteko aldea baino ez dago. Hor giza misterio handia izkututzen da: hirutruku, malmuzkeria, saldukeria, koldarkeria edo norbere askatasuna norbere askari lotua eukitea edo beste holako zeozer izan daiteke, baina sikiatrek eurak ere ostaz ausartzen dira salatzen, “norbere arketipoak-edo” deitzen dira.

Amak esaten duena: “amari ez yako gezurrik esaten” dinosku amaren eskolako atsotitz eginak. Ama Iruña Veleiako kurutzza-

ren oinetan dago eta dena ikusi du, dena daki. Ba daki, nortzuk juskatu eta gurutzeratu duten bere semea. Kalbarioan egonaz bakarrik salatzen ditu hiltzaileak, baina ez du eskatzen inorentzat asperkunderik, bakezko erabagiak baino.

Ba dakigu kristautasuna erromatarrekin batera eldu zela Euskal Herriko tribuetara ere, ez erromatarrek kristiano zirelako, espere eurak gurutzeratu zutelako Jesus, Kristo deitua, eta erasoten zuten herrietan "Kristonak" egin edo Kristoren pareko, gurutzatzen zutelako baino. Horrela konturatu ziran herri zapalduak Kristo bera zela euren eredu: ez zettorrela Kristo inor konbertitzera, ezpaere jadanik askatasun itxaropen arnasa zapaldui ematera baino.

Veleia Gorin Valentina etxeko Aur Eskola, dotrinaleku eta Ikastola izana ez dago, bestalde, euskaldunok aldioro jasan izan dugun eskarmentutik urrun. Horixe bai da ama eskolako herri apalek guda-gizonen aurrean jasan izan duten zoria. Bizi ustea Inko Amagan izanik, ez ziren armatu, armatuak ostera, haren babes ustea probatzearen, koldarki eraso eta odoldutzen zituzten/dituzte. Holakoen ustekida eta fedea geitzen dator harako "zorionekoak otsanak, eurena dutelako lurraren jabegoa" oharra. (Mt 5, 5).

Ordurako, ausaz ikasia zuten veleiarrek, atsotitzak dinona "asmoz eta jakitez, txikiak andia bentzuten" edo haraz gero ikasia dute "San Martin, beharrak behar eragin" arabera. Soineko giharraz ezinean, buruko garaunez saiatu behar dela, norbere *gaiaz* ezpada, norbere *baitaz*, alegia: aize zakarrari, kur egitea on delako eta uriolari, barriz, munera iges. Ez dira berez pareko giza erasoak eta izadiko indarrak. Izadiko indarrak Inko ordenak dira noski, baina guda gizonen inkoen ganora hartzen dutenean, guri, harriskuei igez egitearen, euren amarruen jakitun egotea dagokigu.

"Iruña Veleia" tituloa gaur-gaurko Euskalerrria irudikatzen dator: Ha, argitara noiz urtengo begira, bi mila urteko gorpu eta mezu katigatu eta Euskalerrria ere hega asmotan, hegoak noiz bardinduko, "txoria, txori" abesten, edo "presoak kalera" aldarrikatzen, bulzada edo jazarpen andiaren pentzuda eta barne indarrok eragiten dizkiguten dantza zoriko doinua eta erritmoa anai-arrebatasunean erabagitzen, eta edozelan ere, zero zati bat geure barnean daukagula edo zoria, lurpeko ostraketan lez, euskeraz idatzia.

I. EGIA LURPETIK DATORRENEAN.

Uriolak lokatzetan, luizuak lurpean, gudu erreketak autsetan utzi zituzten antzinako herri ospetsu izan zirenen gorpua eta soloa. Handik milagarrenetan, laborariaren golde muturrak jainkosaren taxua izaneko harri kankarraz topatu eta argitara atera zuan. Beste tokietan beste, hori Iruña Veleian ere jaso zan¹.

Lurpeko aurkikuntzak zirela-ta, segetu zaleek aztarnaka ekin zioten kultura zaharren garatzetan Egipton, Asirian eta arrastoa-ri jarraiki, Sumer kulturaraino eldu ziran. Hantxe aurkitu zituzten ondakin zaharrenek “AMA. UTU. AN. KI” inoen, Eriduko aztarnetan, kuneiforme deitu idazkeraz. Egipton barriz, geroglifiko deitu marraskietan². Zer zinoen ideograma haiek? Ene! Zenbat buruauste arkeologoen artean idazkizunak irakurri ezinik. Nola antzeman antxinakoen mezua? Irrika bizian ekin zioten maisuek.

Zorionez “Roseta harria” idoro zuten Egiptoko aztarrenen artean. Iru eratako alfabetaz zizelatua zegoen: geroglifiko, demotiko² eta greko. Grekoaren jakinak irten zuan harakoan seinuen argibide. Eskerrak Roseta harriari ostu al izan zion Champollionek lurra-ri jeroglifiko segetua. Eta eskerrak arkeologoen jakin-minari, jakin al izan ditugu aldi honetan geure asaba izan zirenen asmo eta erritualak. Eurek erakusten digute aurtzaroko gizakiak zituan sentikerak eta izadia irakurteko begirada leuna. Ikuskizun haiek orain geuk kosmoa ikusten dugun moduarekin nastau eta geure baitako “arketipoak”³ ezagutzen lagun diezaikigu, bada, idatzita dagoenez, “ilunpean esan duzuen guztia argitara aterako da, eta gela izkutuan zurzulatu duzuen bakoetan aldarrikatuko”. (Luk. 12, 3).

1 Baserritarrek parte eman eta arkeologoen Gasteizko Museora jaso zuten taxu eder bat, “Dama de Veleia” deitu zioten, buru barik eta oinak ondatuta zeuzkan jainkosa irudiak. Herriko neskek prestatu zion argazkiko arpegia, titulu honen azalean agertzen denez.

2 Geroglifiko eta demotiko zeritson eskeran, koptoek euren papere-
tan <papiroetan esku izkribuak idazteko erabilten zuten alfabeto moduan.

3 “Arketipoak” edo “eredu zaharrak” geure baitan tolezturik, barnete-
gian dauzkagun, lur kapak bezelako dira, eta Jung sikiatrak geure barne
induzketak, egitera gonbidatzen gaitu haien garatzetan.


1.1. Arkeologia eta Historia

Autoreen historia idatziak eta arkeologoen geroago baten lurpetik ateraneko iruditeriak eta bustindu tauletan agertzen diren iragarkien sekretuak, biak osatzen dute Historia. Batsuk bestea onesten dutenean, zuzen doake igaraneko ekintza izkutuen argi bidea eta, alderantziz, batak bestea ezezten duenean, nori sinistu behar zaio? Batak idazkizunaren estiloa eta forma zehatza begiratuko du, edo grekoen ospea aipatuko. Baina nor da Kaiserrak bere guduez esana gezurtatzeko? Edo Kaiserraren ekintzak ones-teak saria badakar eta zigorra, ausaz, gaitzezteak, zeinen pentsu-da geldituko da egiaren balantza? Gauzak honela ikustean, bietatik zein den sinistagarriago galdetzen da⁴. Egia lurpetik zihurrago, gorteko rekorteetan baiño. (Ikus 13 or.)

Nola gonbaratu baina, bibliotekan min gordea izan den larruzko bildumak dinoena eta lurpean aurkitu den taula? Bibliotekak zaintzaile onak izan ditzake, baina lurrak ilunbe gordetzen duen segetuak ez du bera baino beste zaintzailerik. Estratigrafia bera da zeramikazko larrian idatzi zirenak noiztikoak diren jakiteko eskola, bada zenbat eta lurpean berago, antxinagokoak direna seinale⁵.

4 Adibidez, euskerak ba daki *Groenlandia* hitzak zer esan nahi duen, eta ez dator ados *Kalaallit Nunaat* "Kalaallit-en lurra", groenlandierak ulertzen duenez edo *Grönland* "Lur berdea", daneserak dinon bezala. Nor da horretan maisu? Dinamarkak ba zuan, eduki, historian haienganako urbiltetaren bat, baina euskaldunak zer daki? Ba, handik ibili ziren baleza-leen ipuinak-eta euskeraz emanak izan dira eta hango eta Ternuako portuetan agertu diren trainera aztarren batzuk. "Hori Arkeologia utsa da" jardets dezake urliak, "baina zura gogortuak xegun segurua" -euskaldunak-eta portuko gure gendea itxasotik bizi zan orduan eta balearen *garuna* preziatuak harainoko ugaro nekatsura bultzatu zituan gure mariñelak". "Hori mito hutsa" urliak". Aizu, Mitoa, uste duzun baino egia sakonagoa da gero. Euskera ere Mitoa, hizkuntzak denak bezala, Jung-en gardiz, eta jakin dezazun, euskerak tokia ondo deskribatzen daki gainera, eta *Landa gorena/Goren landa* da, gure mariñelek bertarainoko ugaroan ondo neurtu zute-nez. Beraz, *Groenland*". Begitu mapan ikusi eta begitu Atlantikoan euskaldun traineroek norainoko estropadak egin zituzten. Halatan euskara "Roseta harria" gertatzen da idatzineko sekretu askotan. *Eskerrak euskerari*.

5 Edward C. Harris arkeologoak 1970 inguruan estratimetriaren garai-ko zehaztasunak bildu zituan *Matrix Harris* izenako araudian. (Ikus. 15 or.)



Iruña Veleiako estratoen ebakia: goian: labore lurra eta berago hiru kapa, erdian: uria zeneko kalea, arlo-sak, zeramika gaiak, metal, diru eta abar eta euskera! Ostra! Ez, ostrakak, Euskerak dakarkigun sekretua: gure asabena ia bi mila urtetako barri. Euskera lurpetik urten gura

1.2. “Enterrémosle santamente”

Erregu honek es du aldaketa honik euskarari, Unamuno berak euskereaz esana bai-da⁶. Hilak lurperatzea erruki ekintza da, ekintza santua, beraz. Bizia hiltzat hartu eta lurperatzea, edo lurperatu nahia, osteratzea, ezardura larria, erratu andia. Unamunok sorbatzean dantzatzea zuan gustoko, benetaz ezinean, halako biribilketaz, magia egiten zuan, norbere burua engainatuz, besteak ere malmuzkatzearren. Unamunok bere zorriak eraman zituan Bilbotik Madrilera eta zorriok aztintzea Gorteko gendearentzat ezinbesteko entrenigarria zela konturatu zuan. Halako txaloak ozendu zion ospea. Geroago Unamuno usteko buru batzuk ere arte bera saiatu dute gaurdaino Gortean.

Azkue apaiza bizi zuan orduan Bilbon, Bilboko Intituitoaren Zu-

6 Gure maisuak gaztetan sinisten zuan euskera zela euskaldunen jatorria aztertu al izateko “bestelako paleontologia bakarra”, bere tesia Gortean aurkeztu eta titulua lortu zuenean. Adindu zenean, Darwinista urten zigun euskerari buruz. Euskerari ezelako laguntzarik-edo emon, aurrera urten dezan? Ezelan ere ez. “Ellas [las lenguas] nacen, se desarrollan, crecen y mueren”. (UNAMUNO M. *Más sobre el vascuence*, o.c. (1887) IV, 142) Beste une batzuetan euskaldunen umetasuna darabil mintzagai, edo bere aurkalariei umekeriak, beraz ze “desarrollo” itxaron zezaken umetzaroan bere maisu ustekak edo guraso erantzukizunak, ondoren *enterremosle santamente* esateko?



1864-1936



1864-1951

Adinkide bai, baina ez adizkide karistiar bi, *Migel Unamuno* bilbotarra eta *Resurrección M^a Azkue*, lekeitiarra, euskerari buruzko eztabaidan. Biak ziran kaletarrak, baina bata, ama eskolakoa, bestea ikasia. Bata Bilboko Institutoan euskera maisu izatera eldu zan, bestea Salamankara joan zan, grekoaren maisu izatera. Asiera baten biak ziran euskaltzale, ez neurri berean, baina...

zendari⁷. Lan asko egin zuan eukararen alde. Euretan *Diccionario trilingüe* deitzen den Hiztegia, euskeraz, gaztelaniaz eta frantxesez egina. Hala eta guzti, Unamunok ezikusia eta ez entzuna egin zion lan bikain honeri. Norbere arketipoak sarritan arkakoxoak bezala bai-dira, aragian oska egiten dutenean.

Azkuek eta Unamunok ez zuten izan elkar artekorik, ez eztabaidarik. Hala ere, *enterrémosle santamente* hori ozen entzutean, abade zereginak zimikatu zuan Azkue: "Hizkuntzen eskolan erruki ekintza andia, gezurra badirudui ere, lur emotea barik, hilak lurpetik ateratzea da [...] Noiz hasiko ete da gure artean zuzenbideko ekintza andia, behingoz arindu daiskun hilak lurperatzeko errukizko betebeharra" (*Prólogo al Dic., XII*) Bilbo ez da euskeraren tana-torio bihurtu, baina batek baino gehiagoren ustez, eskerrak Unamuno zirikatzaileari izan omen da, bestela ez gendula urtengo geure nagikeriatik, ez gendula egingo euskeraren aldeko aposturik.

Enterrémosle santamente formak ba du berez nahiko ziririk, koldarren saldukeria aurretik eta erligiosoen itxura ostetik. Hiltzaileek ere ba zituzten euren arrazoiak, baina hiltzakoari lurra emon eta gero "*sellemos [la tierra] judicialmente*" ekintzara hilibikoa amaitutzat ematera aldea dago eta hori Iruña Veleiako indusketan egin da geure egunotan, geure begien aurrean, geure irrika bizteko edo eskarmenturako nonbait.

7 Resurrección M^a Azkue eta Migel Unamuno biok apostu egin zuten zuzendaritza horretarako tirian eta Bizkaiko Aldundiak Azkue Jaunari eman zion arduretza. Migel Unamunok Madriderako trena hartu zuan bein-goan eta Salamankako Unibersidadean griegoa irakasten gelditu zan.



Idoia Filloy, Edwar Harris eta Eliseo Gil Iruña Veleiako arkeologintza aztertu duten hirukoitza: euskarak, beti lez, garaiotan behar dituen eroiak. Lurperatzaileen aurka, euskarak ba du lur-argitzaile onik Iruña Veleian...

Halako jokerak oinarrizko galderak egitera behartzen gaitu: Arkeologia, Arkiometria, zientzia arazoa ala, oraindik bizi den, euskera arazoa al da Iruña Veleiakoa? Zer du euskerak, zer Gor-teak “sellemos” ebasteko, eztabaidari mu eginik? Euskera biziaren bildur dira nonbait, ez euskera lurperatuaren ardura.

Estrepozu hori ekidintzeko, baitako arketipoei galdetu behar diegu eta ondorena atera: hasteko, zer da euskera? Euskera, ama eskola bezela, amaren arketipoa da, “sellemos” dinon legea ostera, aitatiar arketipoa da. Ez dago armoniarik, ez elkarrizketarik ama eta aita hoiaren artean, ez ziran amorez ezkondu eta ez dute ezkontzeko asmorik. Politikaren matxismoak agintzen du *kauta>kausaa>gauza>cosa* honetan, beste salapen askotan bezela. Horren ondoan non da baliozko demokraziarik? Amak edo amaren alabak ez luken horrela erabagiko, eta izan ere, euskaldunen artean etxeko biziaren eta hilen ardura, emakumearen eskuetan egon da antxinatik gaurdaino, hilen ardura tanatorioen erakundeei bere pentsudan hartu duteino. Emakumea boteretzean dagoke erabaki zuzenagoa lortzea, batez ere, halako burrukan *akertipoak* Ama Eskola edo Valentina etxeko “Paedagogium” usaina duen *arketipoari* gainik har ez dezaion.

1.3. "Museua bonbardeatzeko?"

Arkeologoek ondo egin zuten lana eta lurrari ostuneko altxorekin Bagdag-en Museoa eraiki zuten eta antxinakoen kultura izkutua denon argitara eldu zan. Irudi zaharrak antxinakoen begikunea, edertasuna erakutsi ziguten. Kuneiforme taulak antxinakoen asmoa eta bizitza iragartzen ziguten. Irak-eko Museoa Unibersidade barria zan Eufrate ibai ondoan aldi barrien argigarri.

Sadan Husein harro zegoen ohiko Babiloniak izan zuen dizdirren amesez. Baina Irak-en, museoa gaiak ezeze, beste altxorrek ere ba-dagoz lurpean: petrolioa eta gaza beinipein. Antxinaterik ezagutu ez duen herri bat badago eguzki *Oste>West*-en. George Bush eskolara joan zan txikitan, baina Sadan Huseinen harrokeriak gogait eragiten zion eta haren kimika pozoitua eta txikizio orokorreko arma galgarriak USA arriskuan jartzen zutelakoa edatu zuan medioetan. Westeko mutilak, zaldiz barik, tankeez eta abionez mugidu ziran hirugarren milagarrena puntuan zela.

Gudamutilak Museoaren kokapena mapan zehaztu eta han kolpe egiteko agindua hartu zuenean, belarriez entzuten zuena, egiazatzeko, "Museua bonbardatzeko? Bua!" inoan bere kautan. Eta behingon, lenengo bonbak Bagdageko Museoko atee-



Atezainak negar dagi Bagdad Museu Nazionaleko 170.000 antxinako oroigarrietatik %80 *ostuak* eta *apurtuak* izan zirelako USA guda gizonak sartu eta lapurren ordu berean. Antxinako Zibilizazioen oroigarrietan andiena eta munduan bakarra izan zan Bagdageko Museoa: Mesopotamiakoak, eurretan Sumeria, Akadia, Babilonia, Asiria, Kaldea, K.a. 6.000 urte, Ama Eskolaren garaikoak

tan bunba egin zuten. Lapurren ordua izan zan. Atezainak zer zegiken? Lapurrak Museoko bitxiak arrapatzen lehiatu ziran, ka-



Karistiarren egoaldeko mugan ere zarraparrak izan ziran Kantabriako Guda zela-ta. Erromak orduan Iruña Veleia harrezitu egin zuten Sortalde aldetik euren seguridaderako *opidum* bihurtuz, haraz gero erromartuago geldituz.

leak, zikindu, museoa baloreez garbitu. Hammurabid-en Kodigoa ere baloreetan zan. Zer dino lapurrez eta halako baldankeriez? Zertarako nahi zitzuzten arrapakiñak. Beste Europako eta Ameriketako museoiei saltzeko. Noiz eta “Bagdageko lapurrak...” gaur bertan.

Orduan guda gizonak XXI-ko armekin Museoko ateetan guardagiñen aurkeztu ziran. Ordurako arkeologoek txukun pilaturiko baloreak: irudiaren bikainak, urrezko edergailuak, kulturaren, jainko zaharren taxuak, keramikazko agiriak, etab. sakan.

Lotsagarria izan zan Bagdageko Museuarena, baina guda bateko pauso bakoitzak bestea estaltzen du, une batean egindako sarraskia, beste une baten eginten denaz estaltzen duela, Bagdagen egina, jarraian Tikritekoaz, “etxeko sua, etxeko autsaz” lez.

Arkeologoek indusketak bertanbera utzi eta etxera joan ziran tamal andiz kultur egarrietan itota lez. (ikus 16 or.) Oraindik aztertu gabeko bustinezko taulen biblioteka osoa han gelditu zan. Guda erregelak Irakera bidaiak eragotzi zituan. Ausaz USAk utzia ISIS edo, beste guda-mutilek konponduko ete dute...ç

Eskerrak S. Nohan Cramer autoreak idatzi berri zuen *La historia empezó en Sumer* liburua eta doan irakurteko utsi zigun. Eskerrak halaber, argazkari azkarrek, Iruña Veleiakoan bezala, Gogelen-eta gorde dituzten guztion oroigarriako.

1.4. Ijitoak Iruña Veleian

Bai, *kitxanoak* edo *egiptanoak*>*ijitoak* Iruña Veleian. Euren hizkuntza zaharrari *koptoa* ere deitzen zaio. Geroglifikoz idazten zuten aldi baten, ideak irudiez ematen zituztenak. Horretariko batzuk Iruña Veleian agertu direla-ta, berriro ere faltsutzat eman dituzte maisu usteko batzuk. Zer dauka euskerak koptoarekin, ezpaere ama eskola? Egiptiarrek euskaldunek baino azkoz lehenago jaso zutela guda gizonen sarrada. K. aurreko III-garren gizaldian hatan ere, Alexander grekar falangeen gidariak bertako ondareaz jabetu eta Alexandria uria eraiki zuenetik. Haraz gero, koptoak atserritarren morroi bihurtuta ikusi zuten euren burua, eta Egiptoko Faraoien aintza lurretik. Halakoetan norbere buruaz beste egin beharrean, norbere herriaz beste egin zuten, hotz, herbestetu, beste era batera erabagitzen dute arerioen kontrako burruka. Gogoan izan Irak eta Siriako burruka, ez aztu Frankoren bortxakeriak. *Egipto*>*ijito* bihurtu zan orduan. Batzuk munduan zehar alderrai jarraitzen dute eta beste batzuk, K. g.



Frankoren gudatean Ondarrutik Lekeixora igesian amak euren umeekin, 1936-ko memorian. Beti lez, alde batetik guda gizonak etsaiari aurre egiten eta emakumeak sufritzen. Funtzean noren kontra egiten dira gudak. Nork erabagitzen ditu? Frankok, Buhsek, Trunpek. Gudako lapurreten, armaginen uzta ateratzen...

gerostiko II gizalditik kristautu egin ziran. Eurak izan ziran Iruña Veleiara ere fede barriaren azia ekarri zutenak. Norbere herria lurretik eta haganako fedea etsita ikustean⁸ zerbaiten itxaropena behar da, arnasa garbia hartu eta libre bizi al izateko.



Nondik datoz *ijitoak*? Nork sortu ditu halako herri alderraiak? Non dute, euren amaren etxea? --Guda gizonen matxismoak amaren etxetik ate bota zituan, amen etxean jopu bihurtu eta atserrira igez egin behar izan zuten. Matxismo orokorrak era askotako bortxakeria sortzen du emakumeen eta haren seme-alaben kontra. Matxismoaren politika hiltzaile da

1.5. Talentuen Parabola hiruzkintzen

Parabolen literatura jakituriatzko ariketa da. Talentuen parabolak lagun diezaikigu Iruña Veleiako arazoa konpontzen. *Herri batek, Sumeriak, adibidez, (Mat, 25, 1-30) hiruzkinduz, hamar talentu hartu zituan eta landuaren landuz, beste hamar aurkeztu al izan zituan beste herrien artean.* Eta handik laugarren milagarrenean-edo, arkeologoen indusketa lana osatutzat eman zutenean, arkeologoen maisuek guztiz txalogarri eman zuten sumeriarren jakintza eta beste herrietako kulturen gaintik jarri zuan haien, hizkuntza, jakinduria eta artea. Historiak txaloz biziberritu zituan.

Beste herri batek -deigun Akadiak- bost talentu hartu zituan eta beste herriekiko armonian jokatu, beste bost talentu gehitu zituan emoitzat. Arkeologoen maisuek ontzat eman zituzten akadiarren ondarea ere, "hartuak emanaz du zapora" arian, ondo jokatu zutelako eta, haraz gero zientziak berbiztu egin zituan Historiarako.

Iruña Veleian oster, induzketak ontzat emanak izanarren, auziako *kauta>käusa* bihurtu dira: lurpetiko artea, nahiz, museo-ra jaso dutenarren, jainkosen obiratzea ez da ikertzen, ez eta Erroma Iruña Veleiaz jabetu, uriko baloreak arrapatu eta euren hizkuntza debekatu zutenik edo inork inor torturatu edo erail zuenik. Zer dela-eta? Torturatzailleak bizi direlako da susmo.

Etorri ziran arkeologoak, induzketa lan arteza egin zutela aitortu zuten, etorri zan Ameriketatik Edwar Harris, estratimetrian maisu andia dena eta Gil Zubillaga maisuak eta Idoya Filloy lankideak egin lana eredutzat eman zuan, baina erromatar faszioaren botere partaideek ezetz esan zuten. Torturatzailleak ezin ei du aitortu lekukoa aurrean dela. Ze lekuko? Iruña Veleiako hizkuntza, Euskera? Ausaz euskera desagertzen denean, orduan al izango...

Irugarren kasu honetan azaldu ezina da *Talentuen Parabola* eman zezaken epaia, bada Iruña Veleiako arazoa errekurtsioan edo dago, egon behar duela zati baten epaiari begira. Negar ala barre egingo dogu hanartean? Ez negar eta ez barre! Ezin gaitekezela kikildu matxismoaren politika horren aurrean. Zetariko politika baina? Auzian jartzen dutela ondo ez datorkien guztia...

“Guri, Veleia Goriko emakumeoi, maiz Eumeniden lana egitea dagokigu: gezurra ukatu, zapalkeria gaitzetsi, torturak salatu, zauriak *erindu*»⁸, horixe, *Erinien* protesta egin, errudunen asperkunderako, odola ixuriaz dutenen lotsabiderako, heriotzaren erostari, maitasuna eraso dutelako, *amari* eta amaren alabari bai-dagokio samiñak *amatigatzea*»*mitigatzea*.

Lurperatu egin dituzte grafito bereziak, gu antxinakoen berba



Lurpean gorde dituzten talentuak hor dagoz, Iruña Veleian, ez dute balolerik galtzen, askoren argazkia kurioso medioetan jarrita, edatu dira gero, asko balio digute, eta bizitza aurrera eroaten eta geure kultura sortzen, fededunen ebangelio baloreak lez, hatan ere.

karaz aztu gaitezen, lur santua eta santuen lurra gari lur arruntarekin nastatu, goldeaz barik, ondamakinaz irauli, tokiz erra dezagun. Hala ere, gorpua lur bihurtzen denarren, espiritua aske da.

8 *Bizkaiko Foruak*, XII (1527) bizkaitarrik torturatzea debekatzen du, erregeen aurrean, gaur emakumeek, apal, baina irmo, jasan bortxakeria eta etxekoan herailketak kalean salatzen dituzten bezala. Bizitzaren eta heriotzaren santera direnez, gaizkileei lotsak emoten, *Eriniak* bezala, urteten zuten/dute kalera, arik eta bakeginen jardun diren gure autatu eta borondate oneko gizon eta emaztekien lana osatu eta *Erinien* samina *erindu* dadino.



Elbira Zipitria, Zumaia 1905, 16 urtekin Donostian magisterioa ikasi eta NORK NORI ZER txikienei irakasten asi zan. bere etxean. Eskaratzka eskola bihurtu zuan. Frankoren sarradan mugaz bestaldera iges egin beharra izan zuan. Itzuli eta, ikasle kopurua bildu eta lehen ikastola sortu zuan, ikastolen katea sortzen

1.5. Lehen Ikastola Iruña Veleia

Antonio Colmenero Jaunak *Paedagogium* deitzen dio egokiago, baina euskaldunok obeto ulertzen dugu *Ikastola* deituz gero eta antxina orainaz uztartzen. Guda ostean, 1954-ra arte norbere eta laguneren etxe partikularretan ematen ziran klaseak, elizetako dotrina lekura batzutara aldatu zireno. Elbira Zipitria aurkesten dugu lehenetariko gure egunetan, bada dakigun lenena Iruña Veleiako Valentina etxekoa izan omen zan. Ez ditugu aztu nai, hala ere, Azalola, Berrojalbiz eta beste etxeko andreek, egin zuten alegina.

Elbira Zipitria Andereinoaren etxea ez zan zihur Valentina Andrearen etxea baina zabalagoa eta argiagoa. Erromatar legearen aldetik ez dakigu geroko Faszioak besteko askatasunik emongo ete zion euskarari. Dakiguna Frankoren jokabidea da: Andereiñoak Euskal Herritik kanpora bialdu zituen eta euskera egiten zuten alabei, eskilako taldeari lez, adatza mozten ziena. Iruña Veleian, ez zan entzun *loquito latine* edo antzekorik, Enperioak bigarren mailako gende bihurtu zituelako euskaldunak eta kristianoak.

Asmoz eta jakitez esan ohi den lez, bizirik urten dugu. Enperioak joan ziran eta ustelaren usteleaz doakez gainerako enperio kumeak eta geuk idatziko dugu euren porrota, dagoneko gure txikien eta andien ikasketen gehiengoa ama-alaben eskuetan dagoelako.

Haize zakarra danean, "itzi haizeari teila ganetik pasatzen" esaten dugu. Jakinduria beraz, uts emon politikaren matxismoari eta gure geurean gorde, sendi bakoitza Ama Eskola eginez. Giharrrik ezean, gizona, Ka ezean, Ba. Gortea baino obe, Amaren Etxea.

1.6. *Karistiera bizkaiera delarik*


Estatuaren programa guztien aurka, *euskoiberismoa* deritson lan saiatur aurrera daren eroiak *eskerrak euskerari* esaten digute, “eskerrak zeuon txokoan *uskeike*=euskera bizirik gorde duzutelako. Orain ba dakigu ze hiztegiara jo. Azkue geure maisua dugu, Ainamendi Goiko eta Beko euskalkien berria garaiz eta zehatz jaso zuelako. Horrela gure ikuspegia Beko Iberiarik Goiko Iberiaraino zabaltzen da, Kaiserrek ezarri muga guztien gaintik. Kataluña eta Sortzalde guztiak obeto ulerten du bere erromantzeen azpiegitura, tokizendegia eta familia andia ginen egiunea argitzen dioaku”.

Eta euretariko batek erderaz esana: “baina guri euskalki zaharrena interesatzen zaigu. Horri eutsi behar zenioke”. -Bai, gu saiaturen gara etxean eta lagunartean bizkaiera egiten, baina ofizialtasunak mugatzen gaitu. Ez al dago “ekidistantziarik”? Nik gustora entzuten diok Orioko bardoari “Bizkaia maite..., zure berbaren ohiartzuna..., zure berba leun”..., napar anaia amoltsuaren hitzen fereka, naparra, kiptza eta bizkaitarra sagardotegi berean bailegozan, baina...

Euskera batua ala euskera osotua da arazo? Normala da Larreko⁹ merikuak euskera osotua edo sendotua naiago izatea. Andres Euskaltzain buruak ere ardura bera agertu digu egunotan¹⁰.

9 Lotsa ematen dit hizki nagusian dena esateak, beioa beraz, txikian gainerakoa: napar bat eta bi gipuzkoar izan ziran nire lehen titulua saritu zuten mahi burua: A. Larreko, A. Arrue eta J.A. Loidi. Donostiako Agora zan erregimenaren garaietan literatur lehiaketa kudeatzen zuena, saritzailea G. Aldundia zela. J. Artetxe idazlearen esku-eskutik jaso nuen saria, bera bai-zan Aldundi Buru orduan. Aingeru Larreko ere aldi haretan meriku zan Donostian. Ni bere konsultara joan nintzan, ale saritu bakarra bere eskuetan gelditu bai-zan. Meriku jantzian hartu nindun, bada gaixoen artean, gure hizkuntza gaixoaren ardurak ere bai-zegon eta honela esan zidan gutxi gora-bera: “Zu gipuzkera egiten saiatu zera, baina zure euskalkia bizkaiera dela igarrian da. Behar bada, zure gipuzkera aleginagatik saritua izan zera, baina zuk bizkaieraz idazten jarraitu behar duzu. Gipuzkeraren meritua, kaletaratu egin duela euskara, bizkaieran ordea, forma osatuagoetan jarraitzen duzue. Hortik jo behar duzue...” Larrekok esana.

10 (*Deia*, 2017, 22) Andres Urrutia Euskaltzaindiako Lendakariak, ardurazko arazotzat jotzen du halako berria, 30 urtez euskararen norma edo eredia lantzen jardun ondoren. “Euskera batu bizia” aipatzen du eta euskalkien behar>-



Karistiarren lurraldeari begiratu, Arabako ordeka idekia dakusgu egotik eta Bizkaiko gordelekuak ifarretik: mendartea, Ibaizabal goiko bailara eta itxasora begira doazen bailara txikiak. Lurrak berak urten zuan karistiarren alde, gainerako euskal tribuen geografian bezala. Lehen geure lurra, orain geure asmoa, nahiz leikari estropadan, beti geure alde.

Iruña Veleia karistiarra zan Arabako ordeka barrenetik eta Deba mugaraino. Erromatarren erasoaz K.a. ordeka muga galdu zuenaren, Gorbeia osteko Bizkaira doan Nerbion eta Arratia barranka zuan arerioengandiko igesleku eta babes. Izatez karistiarren muga Ibaias erreka baino harago doa, tokizenei begira, edo Autrikoinak ere euskaldunak ziran hizkuntzaz, ausaz gero euskera latinaduz gaztelania asmatu zutenak. Beste Iruña-Veleia bezelako altxorra aurkitzen denean, jakin al izango dugu, arkeologoen kasta bizirik gelditzen bada.

Hanartean “eskerrak bizkaierari” errazago ulertu al izan ditugu Iruña Veleiako ostraka euskaldunak. Askok ez zituzten ontzat emon harriduraren andiagaitik. Beste batzuk, ostera, froga bikoitzak, hiru-koitzak eta abar emonarren, ez dituzte sekulan zindotzat emongo, baina hori ez da ostraken erruz, ba daiteke euskeraren erruz izatea¹¹.

>rezko berma eta ornigarria. Ez ete da eztabaidatzeko eta itunben bidez adosteko garaia? Ikasiko dugu noizbait demokraziaren eskakizunak betetzen.

11 Karistiarren garaiko *paedagogium* bateri ezin lezaio K. Mitxelenaren ereduak eskatu. Ulergarria da, bestalde, Estaduaren eskutik jaten dutenen morrontza, askatasunak askan duelarik muga beroa eta horretan Iruña Veleia auzian gailendu direnen jokera izan dugu eredu, Valentina etxean lenen Ikastola sortzean. Keramikan eta arkeometriari ulertua den belgiar lagun Koen-ek aitortzen digunez, “orduan, 2008-an, ez nituen ezagutzen euskaldunak eta Ifarreko gendearen xalotasunez epaitu nituan “conspiranoico” bezala, zientziaren eta juso doiaren aurrean, hotz, zientziaz, eta ez erraiez, argitu beharreko arazoa zela eta euskaren kontrako amorru hori ezetzi egiten nuan, oztopo bezala. Denbora joanean, eta ikusiak ikusi, neurez konturatu naiz Iruina-Veleiako arazo honek, zientziarekin zerikusi gutxi duela...” (KOENRAAD VAN DEN DRIESSCHE ply@blogger.com>) (Euskera eta laburbildua neurea)

Mari Karmen Basterretxea andreak matrileinu aldetik ikusten du euskalkien arazoa¹². “Patriarkatuak, eleizaren bidez, amaren leinua ezabatzearren, senide-egitura aldatu egin zuten eta maiorazgoari eman ondare guztia”. Adibidez, Bizkaian ez dago maiorazgorik. *Amane*, amaren etxea entzun dugu umetan eta urbilagoatik gorde izan dugu Anbotoko Marik gugaz duen arduraren barri, eta, ausaz, Sebas Gartziaren kriterioak esango lukenez, gu “baserritarragoak garelako, basatiarrak baino harago”. Euskaldun gehiengoak lez, ordekan utzi genitun korteko kortesiak, hagatek, Jose Artetxe zenaren gardiz, gu “arpegi bakarrekoak gara”, besteen aldean, edo agian “romantikoagoak”, J. A. Irigaray napparraren gardiz. Gu, geu ere, Iruñia Veleia bezala, lurpean egotera, edo talentuak lurpean gordetzera behartuak, gara, lekukoa bizi deino. Gero bildurrez, edo ezintasunez isilik egotera behartu ginduzenak eurak etorriko jakuz lotzak emotera, ea nolako zabarke-riaz geure euskalki maitea galtzera emon gendun....”¹³.

Ez dugu izan nai ez zabar eta ez lar romantiko, euskarari zor yakon antxinasun balore doia emon baino. Geure memoria osatzean, nondik norakoa kontuan ez badugu, geure buruari ezeze, gizaldietan geuk landu eta kulturatu gendun gendeari iruzur egiten deutsegulako. Nork azaldu leikio, adibidez, Europari bere toponimia arrunta argitzen, euskerak baino obeto? Nor iberoar idazkizunei bere otsen segetua ateratzen euskera forma zarrak baño argiago?

12 “Ondare matrilineala euskalkiei lotuta dago, euskalkietan gordetzen baidira antxinako erakundeen izenak, baina zoritxarrez, aditu batzuk ez dituzte aintzakotzat hartzen euskalkiak, politika eta gogoeta neoliberallean murgildurik baitaude. Ondorioz gure euskalkiak desagertzen ari dira eta euskalkiak desagertzen badira, gure ondare matrilineala ere galduko dugu.” (M. KARMEN BASTERRETXE, *Euskal Herria, Kultura Matrilineala*, or. 47)

13 J. GORTIAK ere, antzeko salapena egiten du bizkaierari dagokionez, arazoa batez ere darabilen tokizenen egitasmoan: “la Academia de la Lengua Vasca, Euzkaltzaindia, ha actuado con poca elegancia al unificar la lengua, y eliminar varios dialectos con miles de años de vida, en particular es grave el haber eliminado el euskera de “Bizkaia y alrededores”, lo que han hecho no solo no ha sido elegante, ha sido una acción brutal, así fue lo que hicieron hace casi medio siglo”. (*Proyecto de toponimia*)



Anboto Mari kobako atxean gruta egina eta begitandua. Amaganako fedea haren arpegia non eta han bilatzera bultzatzen gaitu, edozelan ere sorkuntzako baranoan, kobako estalaktitak badira ere. “Eleizak amaren antza murrizten ba digu ere, guk arpean bilatuko dugu harekikoa”. Atxetako Ama irudiak esan leike bular artera jaso daukala Umea. Begiz ezin bada, bihotzez ikusi. Gaurko teologian, ostera, ba dakigu, Inko Amaren irudi argiena bere seme-alabengan dagola eta halatan denok garela, Inkoaren seme-alaba, “denok Inkoak inak gire” abesten dugunez, “umeak isilduez gero, harriek berba egingo bai-lukete”. (Luk 19:40)

II. SORKUNTZA AMATARRA DENEAN

Inko Ama zerua baizen altu eta mendia baizen andi da gure asaben irudimenean. Hagaritik Mari Mendi ere deitzen diote toki askotan, beste batzuk Mari Koba, mendiko koban ostatua hartzen duelakoaz. Lehen edurrak, edo halako ainubiak markatzen dituen mendiak harexek ziran “mendi santuak”, Marik geien maite eta maiz bisitatzen zituenak. Bera lainoen gurdian zetorren, egotaldi laburrak egitera, bada beste herri asko bisitatu behar izaten zituan. Bera laino edo *ainubi* > *nube* gainean zebilen, ibili, baina *Anu* “zeru” altuan zituan, eukiak eta mesedeen giltzak: *uin* “urak” eta egunoro beragana igoten duen *Utu* “iduzkiaren” *suak*. Ixuri ere, handixek ixuritzen dira, *Ononzaroz* eta *Inotez intziriz* eta *inoz* ospatzen den *Inko* seme *Inu* bezala, *inuntzi*, *intzak*, *inizituak*, *inusturiak*, *aintziarrak*, *inataziak*, etab¹.

¹ “Asieran Berbea zan eta Berbea Inkoaren ondoan zegoen, eta Berbea Inkoa zan: hori zan asieran” (Jon, 1) Cf: Umea jaio orduko hasten da amaren bila, amaren beroa eta guna nai du. Asieran gizakiak izena ipini zion Inkoari eta izenagaz bat egin zuan Inkoak, hotz, *nomen est numen* hizkunean bezala, eta “izena duen gizak ba du izana” euskal jakindurian, gizakia berez teologoa denez.

2.1. Amaren arpegi billa

Ama hor nonbait ainubian, inontzian, baina bera ez dager, ez eta errekan oinak eta soina udan bustita ere. Nolakoa, zelakoa den Ama? “Zure bila urtengo dot, kilometroak egingo doguz, mendirik altuena igongo” gogoia barneaz jabetzen denean, mendiketarik antolatzen dira herrian. “Errogatibak” esaten ziran aldi batean.

Batzuk odei gaiñean ibilki begitandu zuten Mari, beste batzuk inizituan, harakoak kobako estalaktitez antzestu, amatar urak berak egin arrastoan. Amak urbiletik jarraitzen zuan herriko ardua, eta goiz edo berandu, euriak Iruñia Veleiako soloak bustitzen zituan eta etxeko andrekin ume ederrak izaten eta azten zituzten.

Udaberrian jai bereziak antolatzen zituzten Ama Inkoaren omezez, haren babesera urbiltzen ziran adin bateko neskek.



“Ama Inkoak bere irudira egin ginduzan, beraz, Ama Inkoa geure antzekoa da”. Inguratu Ama, Iturengo neskatoak dantzari *Maidi* Ama *Maite* denaren inguru. Behin Amaren antza oratuez gero, izena bere jantziaren magalari lotuta dago: *Ma.at*^(k), *Maite*^(eus) > *Maidi* > *Mayi* > *Maxa* hizkuntza guztietan, janzkera, bihozkeraren denetan. Aurtengo *Mai+atzea* jaso nahi duzuen mutil gazteok oratu *atze* edo *atxa* lerdenean eta jarri plazaren erdian eta igon erregali gustagarrien arrapatzera. Jo txistu ta danbolina Amaren inguru pozik dantzari, Amaren leinu orokorra eta lerroa finki gordeaz.



Bilbotar askok Pagasarrira igoten dute Ononzaroz, Gabon besperan: Hemen Umearen aurkespenean lez. (Luk:2,22-40) Gorbeara etabar menditara asko doaz Gabon Zaharrez. Ohituren senak argitu ditzake gure barne arketipoak.


2.2. Amaren izen billa

Dagoneko ba dakigu Ama nolakoa den, baina zein da bere izena? Zelan deituko diogu geure eskarietan? *Ma.at^(k)*, *Maite^(eus)*, *Maddi>Mayi*, ala *Mari*? Amaren izena beti da izen konposatua, M+T ama+aita guraso bien arketipoez osatua. Amak eguno ez du ukatu aitatasuna, Amaren izenak biren arteko armonia² eutsia delako. T ordez R ipintek Egitoko Inko lengusuetara garoaz.

2 *Armoni> ar+emon* "hartu+emon" formatatik dator. Izena konpon-tzean, Amari lehentasuna MAITE izenean bezala. Geroko liskarretan gauzea TEMA izatera biurtu zan Greziako "justizian" asi eta gaurdaino. Gaurko eztabaidan ere, batzuk ez dute gozo amoregiten amaren lehentasuna, jakinik ere, ez dagoela aitarik, amarik ez ba dago aurretiaz, ama lenen, beraz, *aita>* gero *aitatzen* bai-da.

2.3. Inko Ama aldarera

Oraindino bide luzea egin beharra daukagu Inko Amaren irudia aldarera jaso arte eta non eta Iruñña Veleian aurkitu dute Inko Amaren aldea. Aurkikuntza hau faltsokeria barria izan ez daiten, hemen aurkeztu behar dugu argazki eta guzti. Itxuek ere ikusi eta harritu ziren lurpeko egiak emon lezakenaz, baina ez



Anboto, AN zeru +BE ainube>nube+tu, mila metroko harria, zeru-ikutzen, edo zerupeak boskatua...



«Eucarpo jopuak, Veleia Errepublikako Ama Inkoari opa diot». Eucarpo etorkina zan Veleian. Eukiez morroi, gogoz aske eta Inko Amaren semetzat dauka burua besteak beste, baina ez zan mendiketa ausartean Gorbeara edo Anbatora joan. Ondo sumatzen du velearren erlijinoa amatiarra dena eta nolabait herrikotu egin nahi du bere fedea. Inko Amari eta erlijinoz velear kideei omen eginez batera, gogotik astintzen du jopu gadora, «Veleian libre naz, fedea libre egiten nau» esatean lez, eta «liberatu>liberto lez, onartzen naute».

zuten atera ondore biribilik, hartuta zeuzkaten aurreritsiekin bat ez zetorrelako. Harrigarriagoak ikusi beharko ditugu, sinistu al izateko. Euskaldunek izadiko ikuskizunetan jartzen zuten Amaren omena, grekoenak ziran, ostera, aldare eskeintzak eta, hain zuzen, *Eucarpo*⁽⁸⁾ «emari on ekarle» zan aldare eskeinlaria. Ijitoak ezeze, ba egozan nonbait grekoak ere Iruñña Veleian.

Eucarpo ez zan erromes mendira joan, urguna zan ausaz, baina aldara argia ordaintzeko beste diru eta arte eukan eta ekian eta velearren fedea bat etorrenez, Inko Amaren aldeko agertu gura izan zuan burua, Kale Nagusiko Gurutzearan harrizko ara jasorik. Errepublika uneko aginteak aitorkuntzarako eskubidea eman lezakion edo, bildurrak gaidituz, baitako fedea jartzen zuan kaleko gobernuaren aurrean, zein garaile urtengo.



Isis, eserlekua buruan, bere gorentasun seinaleaz koroatu.

Bazako Iberiar Dama jesarrita. Veleiako Dama zutuniko da, baina ez du esan nahi bere tronoa utsik dagoena. Ezagunak dira Inanna zeru printzesak Enkiri eginiko eskakizunak edo *meak*. Eurretan “Erregin Tronua” dino, bere Antu Amaren ohorezko sela zena beinenetarikoa. Inanna berboteretzen.

2.4. “Gure Aita” euskeratzen

Isis³ edo Aset^(k) Inko Amaren jaiera nabaria zan Erromatar Enperioan, batez ere Egiptoko File tenploan zutik iraun bai-zuan, Teodosio Enperadore kristianoak (531) paganismoa sustraitik kentzekotan, debekatu zueno, “Jainko Ama” titulua Jesusen Amari opatu izan bai-zion Efesoko Batzarrak (431) eta harazgero, Isis Amaren irudi izeneko irudi asko, batez ere beltzeranak, Ama Birginaren debozionerako prestatu ziran, *Antxinakoa* tituluz.

Jainko izen eta ganoren, nahiz estiloen une horretan Valentina Ikastolan fede arazoa sortu zan veleiatar eta etorkin batzuren artean, *GEURE ATA* puntora eltzean, ezin zeitekela izan *ZERUETAN ZARENA*, “zeruetan dagoena Ama delako eta Aita beti aurrera doalako”.

3 *Asis/ Aset* forma biotatik dator *eseri*, *yesarri* euskal fomak eta *asis* frantxesa eta ganora beretik *esse^(l) / essere^(o)* izan aditza, *eserte/sesioa*, amari zor zitzaielako, Iduski Aitak berean beti aurrera jo zezan, hala nola *Maat, Maite, Nut, Antu* izenek ondotxo erritualizatzen duten eratan.



GEURE ATA SUTAN IZANA, SANTU IZAN BETI ZEURE IZENA ETOR...(Luk. 11:2-4) honela dino Iruñia Veleiako ostraka honek. Dotrinaleku izan zen etxean agertu ziran ostrakak. Euskara susmatzean, faltsutzat emon zituzten behingoan eta erretiratu azterpenaren begietatik eta halan darraie gaurdaino. Hori da, hain zuzen, matxismoaren politikak egiten duena: bere guzurren salataria bilatzen duenenan, espetxean sartu, ostrakak gorde, garbitu. *SUTAN IZANA*, *Ata<Utu* da arketipoz, *Utu>su* dator. Izan ere, Ama da zeru eta lege onean ez da Ama kentzen, Ata ipinteko, bakoitza berean...

“Aitak beti aurrera jo behar dau, sutan doa-eta”. Amaren sinboloa *An* “zeru” *anila* edo izarratua den lez, Aitarena, barriz, *Utu>su* da. Orduan guretzat argi dago: “*GEURE ATA SUTAN IZANA...*” euskeratu zuten veleiarrek eta euren katekistek, Kosmo sorkuntzari ohore egiten ziotela. XXI gizaldiko kristianoek ez dute ezagutzen “ebangelioa inkulturatzeko aleginik” Iruñia Veleiako *Ata geurean*. Patriarkalismoak alhora begiratzen du eta Amari ostuneko aulkia baituan mantentzen, eresia hori matxismoaren alde askotatik eta aldeko datorrelako.

Emakumeek berboteretzeaz ari dira, Inanna berak K. a. bost milagarrean egin zituen aleginetan, Ur uria ondo gobernatzeko, Enkiri “Amaren tronua” eskatu zionean eta artezia paregabeaz lortu⁴.


2.5. Gurasoen armonia

Amaren ganorak aitarena eskatzen du eta izenean oratzen ditu arketipo biak: *ama+ata>Ma.at^(k)>Maite* osatzera datorrena, edo *Maidi>Maixa* bestetan, eta *M>N* Inko umeen seinuaz, *Anatu^(w)>Nut^(k)*. Arketipoon sinboloak, pantaila zabalean bezala, begien aurrean dagoz eta izadi guztia oratzen dute: zeru mako anila, Inko Amaren eserleku, eta ez Pantokratorrena, *Utu>Iduskiak* haren mako musukatuz eta *sutan* ibili behar bai-du goizetik gauera, bata bestearen izpilu bailiran.

Poetek eta artistek honela dakuse gurasoen armonia (Ikus, or.31),

amore eman armonia delako. Guda gizonak ez dakite amore egiten, “begia” *udiat*^(k)>*udigoak*>*odium*^(l) hartuta, tukuak jota, Amari ohorea eta tronoa kentzeko, liskarra sortu zuten/dute⁵. Ama beraren semeak izan ziran Or eta Set^(k), edo gure Ama Mari Anbotoren seme Atarrabi eta Mikelatz bezala: bata Amaren esaneko etxatiar, bestea, Amagandik saiestu, igesi, etxekaltea.

Mitoetan esana, liburu santuetan idatzia dirudi, baina egunero-ko egia da, ikusi nahi duenarentzat eta, harago, arketipoak barneratzen dakizenarentzat: “ni neu ere, baikor eta ezkor naiz zeinbat gauzatan, ona eta txarra egiteko gai, esana egiteko eta Seten⁴ “non serviam” aukeratzeko. Historian edo mitologian ikasten ez duena, eskarmentuz, gertatuon errepikatuz behartua ei dago.



Aurelio Artetak honela dakus Langarikakoak edo, ipar sakanako karistiarrak: Lanak ez ditu ez morroi, ez mirabe egiten, bardintzen baino, ez dago ez maizter, ez maiorazgorik. Bizkaiko Foruak, ezelako bereizketa barik, seme edo alaben aldeko oinordekotza agintzen du: “legezko Ezkontzako seme-alabak daukazan edozein Gizon edo Emakumek bere bizialdian edo heriotzaldian legezko Semeren edo Alabaren bati [...] bere ondasun mogikor eta lur-ondasun guztiak itzi daikeozala, beste seme-alaba eta ondorengoak, nahiz eta legezko Ezkontzatikoak izan, lur zati bana, txiki edo handi, emonda baztaturik”. (*Bizkaiko Foruak*, 20, 11.13)

5 Set-ek, behin tukuarren, Or anaia hiltzeagaitik eta beste behin aita Osiris eran ebalako, deabrutara emana izan zan eta, haraz gero, *Set*, gorengo kasuan, *Satan* da kultura guztietako mitologian. Satan ere, besteok beste, gizakia da-ta.

2.6. Amaren Etxea, memoria eskolatua


Amak ez du astutzen bere erraietako umea, seme edo alaba, ama erraiak bizia mundura edatuneko memoria gordetzen du eta ez Ka kaizuaren edo haragiaren agiri utsa lez, ezpaere sako-nago, Ba baitan gordetzen duen senetik.

Iruñña Veleiako soloak ere memoria gordea dauka. Hilik-edo isilik zegoen, arik eta arkeologo lagunek indusketan asi zireino. Aitzurraz edo paletaz sakontzen asi eta, bero-bero, ostraka baztuk, koptoa, latina eta euskera... lurraren sabelean deika.

Idusketa tokiak *Valentina* etxea izena zeukan. Zer ez ekarken *Valentina* izenak erromatarren *opidum* ezeze, karistiarren *uria* zen soloan? Lurrak berak oratu eta baitatu, Amaren Etxe zenekoaren memoria. Amaren Etxeko euskera? -“Faltsoak dira” esan zuten, gurean euskera egitea debekatu zuten guda gizonak.

Ze barri ekarren, bada, lapiko apurtu haiek? Amaren barri, “*NEURE AMA ROMAN IL TA CISTIANA*” kurutzatu zutenekoa baitik bat. Jakina, guda gizonak ez dutela nahi gorde halako memoriarik, eurak izan zirelako borreru hiltzaile harakoan ere⁵.

Ezkerrak *Valentina* eskolan umei idazten erakusten zitzaiena. Ikusi bertan zerabilten *abecedario* eredia. A. Rodriguez Colmenero, Konpostelako Unibersidadean Professore-sua denak, garrantzi andia ematen die *Valentina* Ikastolan agertu diren hiru abecedario kopiei. Berak antzekoak ondo aztertuta dauzka Lugon antzeko *paedagogium* batetan eta umeen erratuak, berriz, eta irudien eta idazkien jatortasun seinale argizat ematen ditu.



5 Gaurko (2017, 12) Telesailak aditzen eman duenez, arabiar batek bonba bat estandatu du New Yorken. Bere burua zauritu du. Atxilotu eta zergaitik izan den galdetu diote. “USAK Siriako gudan egin sarraskiekaitik” aitortu du. Trump lehendakariak jakitean, “Holakoei atea idekitzeagaitik izan dela”, erantzun du. Halakoixea da matxismoaren burubidea. Sikologia leunaz erraz ezagunak dira umeen jokerak, baina sikiatria sakonak ere ostaz matxisten zadorrak.



NEURE AMA ROMAN IL TA CISTIANA irakurten da, ia bi mila urteko euskeran. Hona, eztalakoan, umeak, seme edo alaba, amari egin oroimena. Orain *memoria* ere esaten da bakeginen dabiltzanen artean, gure egunotan ere guda gizonen erasoz hilak izan direlako. Ama San Pedro erataraz kurutzatua. Hanartean ez zan ezagutzen Santa. Agate Martiria eta Iruñia Veleiak ba du berea...

2.7. Amaren Etxea, zapaldu ezina

Amarenean ez dago iruzurrik, umeak etxeokoa dira, euskerak ez du Erromako Errepublikaren, edo Enperioaren laguntzarik, amak eta ejitiar *maisua* maite du euskera, bada, koptoz ere *mases* esaten da *maisua*, Historia zaharreko *Ra+mases* faraoiaren izenak jasotzen duen bezala. Eta zer esanik ez, *ama.ata*, nahiz eta demotikoz *ma.ta* idazten den.

Ijitoek argi daukate Alexandrian zer gertatu zen, grekoek Egipto menderatu zutenean, *Ma.at*-en etxeokoa jopu bihurtu bai-zituzten eta eurenean ezinik, aske izateko, mundu zabalera urten beharra izan bai-zuten, Marko ebanjelariaren izkribuz, Nazaretoko Jesus kurutzatuaren barria jaso zutenean.



Hau **NEURE AMA TA**, eskutik nakar *Paedagogium*era.

Eurak ere Kristonak jasanak ziran, haraz gero, Kristonak jasatea badakite euskaldunek ere, eta halako aginteari erantzuteko, etxeak berez duen toki sagaratuaren babesaz baliatzen ziran, Valentina *paedagogium*-ean bezala. Etxeek, santutegiak lez, zapaldu ezinak ziran sute egokituari eskerrak, Inko *Su<Utu* eurekin bizi eta zaindari zutelako, bai eta “Sol Invictus” saileko gudariak ere haren fedekoak zirelako.

Haraz gero, amaren etxeokoa sua

etxeko andreak gorde izan du patriarken garaiotan ere, hagaitik euskaldunon gobernurako, hobe dugu “amaren sua ospatuko dot”⁶ igarlearen bake oharra, “aitaren etxea defendatuko dut” apostua baino, zurragoa delako. *Amak amatigatzen* bai-du etxeko sua, anai arteko garrak sutu ez dagien, edo etxekoen ezardurak *amatatzen* utzi.

2.8 Asmoz eta jakitez

Gainak hartu barik, ertzak jagotea da arazoa. Guda gizonek etxea zapaldu zietenean, ijitoek etxetik alde egin zuten eta etxetiarrek baitako izkutua aukeratu. Jokera hori filosofia edo artezia berria da. Ez da dogma andien egada arroa, ikusiak ikusi eta ibiliak ibili, G. Vattimok esango luken “pentsamendu apalaren’ garaiko” baino. Ez du amarruaren bihurrikeriarik, ez du iruzurrik, jokera leuna eta amatiarra da: “itzi egizuez behin arma hilgarriok eta zagoze bakean, umeok!”

Amaren esana ebangelioa da, Markoren testoa lez, amaren oharra: berri ona, gizabidea da. Ez da agindua, oharra edo erre-gua baino. Asmo beretsuko bidea harako Jesusena, emakundea gizakundearen pareko egiten zuelako eta hagaitik aginteak kuru-teratu zutena, emakumeek, barriz, bizirik delakoa aitortzen.

“Asmoz eta jakitez”, jakinduria berria da, berri ona eta jakintzuen erabagia. Ijitoak Alexandriako *ha-zaken=yakinak* aipatzen zituan eta ez gagoz amaren etxeko jakinduriatik eta hizkeratik urrun, enperio beraren oinpean gagozanarren, edo gagozalako. Zer besterik da gaur bertan kristiano eta herritar politika, bizi eskubidea aldeztu eta guda gizonen erio kultura gaitzezteza baino.

Halan eta guzti, veleiatarrek kristonak jasan zituzten, Dioklezianok-eta kristianoak akabatzeke, azken eraso erabagi zuenean K. g. 302 urtean, harek ere “txikizinoari” *bake>pacem*⁷ deitzen bai-zion.

6 Bittor Kapanagak ba eukan, euki, Simeon igarlearen antzik, Gontzal Mendibil kantagilearekin behin G. Arestiren “aitaren etxea defendatuko dut” poema aipatzean, berak erantzun zionean: “Halan eta be, euskaldunon artean hobe “amaren sua ospatuko dot”. *Amak* daki, izan ere, sua biztu eta unean uneko doitasunean *amatigatzen>mitigar*, etxea edo auzoa, garrak hartu ez daian eta amak zaintzen dau sua, *amatau* ez daiten.

7 “Pentsamendu aula”, baino egokiago deritsot “pentsamendu apala” euskeratzea “pentsakera arroaren aurrean” jartzen gaituelako. Europako “pentsakera arroak” guda erioarriak sortu zituan, umeen galpen eta amen negarrerako,



Hauxe da Iruña Veleiako Kalbarioa: hiru gurutze, erdian Jesus Kristoarena, herri apalaren ohituraz, R I P “bakean bego” otoitz eta guzti. Gurutzaren pean Ama eta Magdalena belaunik eta lapurren beste kurutze biak aldamenetan. Azpian Zadorra ibaia Iruña Veleiari izena eta babesa emoten diona. Birauak eta destainak izan ziran “bakean bego” hizkiak azaltzean, herriarekin bakerik egundo nahi ez dutenen artean. Nazaretarren irudia metro t’erdi lurpean egortzia izan zan eta sakonera berean bizirik aurkitu dira gure ostrakak ere. Internetean bizi-bizirik dagoz, baina Enperioaren aginduz hilik. Fededunok heriotza salatu eta bizkundera ospatzen dugu. Gure fedeak, ostera arrokeriaren apena jasan behar du, epea noizbait osotu dadino.

III. SORKUNTZA JUPITER DENEAN

Sorkuntza Jupiter edo bera bezelako jainko bizadun bat denean, Ashera sobera dago Biblian, Tiamat garbitu egiten da Babiloniako errito ospetsuan¹, Nike taxu ederra, nortasun arpegia galdurik, lurperatu Samotraziako santutegian eta jainkosen irudi guztiak oinarria galdu eta burugetu egiten ziran/dira heriotzarako, Iruña Veleiakoa lez, halaber Dama iberiarrak desagertarazi, lurpean egortzi, inork jakin ez zezan eguno aldarean jauretsiak eta kurtuak izan zirenik, ez ze matxismo koldarrek porrokatu zituen, edo eta, halako erasoleen eskutik liberatzearen, herriak koban, soloan gorde bide zituen, gero arkeologoen berbizkunde ordua joz, historiak bir-bizi aukera opa zezaien². (Ikus or, 29)

1 *Exarrako apaizek udigo>odium* salapenez auzira eramán zuten Tiamat Ama Inkoa, monstruen sortzailatzat itxurgatu eta teknika berriez armadun jainkoarekin burrukara behartu zutenean, hala nola amazonak oplitekin Grezian, bular utzik doan emaztea burdinezko armadunekin erazoz.

2 Nietzschek ez zekian Tiamat jainkosa izan zenik ere, Jainkosa hil eta handik lau milagarrenean “Jainkoa il dugu” idatzi zuenean. Ez zekian halaber zergaitik hil zuten Nazaretoko Jesus, Iruña Veleian Kalbarioa duena. Kalbarioaz jaki->

Sorkuntza okotzean bizarra duen jainkoarena dela aldarrikatzen denean, asierako mito garbia ukatu eta ezeztatu egiten da, amaren antzetik datorren aintza ez ikustearren, hotz, gizasemea desgizatzearren eta haren ordezkotza gizagurena aldarrikatzearen.

Ikustekoa da orduan astakiloen sorkuntza berria: Mardukek atxiloan daukan Kingu-ren odolaz, lurra nastaurik, gizaki berria eratzean³, edo Zeus bere burutik Atena alaba, gerlari kaskodun dela edatzean, grekoen harrigarrirako⁴ edo Indiako Brama burutik, sorbaldatik eta oinetatik kasta gurenak, kasta baliagarriak eta endekatuak sortzean. Matxismoaren magia deritxo sorkuntza horri: *amatu* ezinean, *amakatu* egiten duelako. (ikus or. 48)

Lotza galduez gero, eroe⁵ hoi en eroeria sorkuntza berria aldarrikatzearen eltzeta da, herriko gobernuak halako eroen mende usten dutela amagandik jaiotako seme-alaben zoria.

Jupiterren eredia jarraitzen zuten Erromako gudariak ez zuten eskola oberik. Eskertzekoa da Tacito idazlari garaikidearen lekukotasuna erromatarren jardura Kalgako piktoaren agotik deskribatzean: “Ifarrerantz ez dago ezer, olatuak eta arrokkak besterik eta heurak baino bildurgarriago diren erromatarrak [...] munduko lapurrak bai-dira, lurgainean dagoen oro garbitu eta gero, itxasoa dutela arrapakin. [...] Arerioa aberatz denean, lapurrak dira eta ezeukia denean, aginte gose; Astea, ez Ostea ez dira hoiak asetzeko lain. [...] Lapurretari, erailketari eta zarraparrari *Emperioa* deitzen diote eta ondamendiari, *bakea*”⁶.


>tuñ zan, baina Tiamaten heriotza erauskinetan zan hanartean, arkeologoak baino lehenago iritxi bai ziran borroeroak Urkamendira.

3 *Kingu>king*^o, Tiamaten gudalburua zan. Haren odolaz lurra oreturik Marduken magiak gizaki berria sortutzat eman zuan, jainkoen morroi izan zedin.

4 Hesiodo asmatzaileak, lotsarik gabe, adarra jotzen du Zeusen buruko minak aipatzean edo Greziako tragediak, *Medean*, Euripidesen artetik, “emakumea behin baztertu al izateko, giza sorkuntza berria” eskatzen duenean. Beraz emakumea *gynē*^o<*gona*-duna alde batera eta gizonezkoa (*kapaduna* barik, *andreaki* kendu izenez >*andros* deitua) bestera.

5 *Eroe ero* bezalako hizkunez, argi zehazten ditu euskerak, edo “nolako jainkoa, halako Teologia” izango luke arlo bereko zientziak.

6 Del (*Discurso que Tácito atribuye a Calgaco, jefe picto*) Cf: Hain zuzen ere, hori da *Pax romana* aldarrikatua, eta eleizan hilerriko “bakea”: R. I. P.



Erromaren krudelkeria ezagutzeko ez dira nahiko Iruña Veleiako ostrakak, ez dute marrazki hoi bizitasunik, baina geure fede eta martirien lekuko min dira. Matxismoak gaurdaino krudelki erailten jarraitzen du, baina ez dakigu krudelkeriaz ala koldarkeriaz akulatua go. Nolako Teologia, hala-ko etika. Gure umea amaz oroit da: "NEURE AMA ROMAN IL TA, CISTIANA" (Or. 33)

3.1. Gizakia kurutzean ikatzen da

Jainkoa Jupiter denean, gizakia balioa galtzen du behingoan, amarentzat ezinbestean estimagarri den seme edo alabak, nortasuna galtzen du Zeusen meneko apaizen arteko Teologian: *meteko* jopu dira, giza jainkoen barregarri, Coloseoko aberei botateko sarraski edo herriaren zentzabiderako kurutzean ikatu eta dindilik odolustu, arnasestu, egarritu, oinasetu akabatzeko. Guzti hori orain *matxismoa* deitzen diogun etikak egin dezake⁷ eta egiten jarrai dezake gizarteko harreman guztietan: faxismoa politikan, patriarcalismoa erlejinoan, dirijismoa kulturean, aholkulari erosia Irakasgintzan. Gizakia kurutzeratzean, herriak kurutzatzen ditu guda gizonen apostuak. Gure egunotan Irak, Siria, Libano, Palestina, Yemen, gudak eta etorkinak...Guri, Frankorenaz aztu ez gaitzen, Iruña Veleiako auzia gertatu zaigu⁸ eta, emakumeek lez, argiago ikusten dugu zertan den hiltzaileon asmoa.

Ibis in cruce "kurutzerera hi" epaitzen zuan *lictoreak* atxilotuaren liturgian. Tortura handiena zan, kristianoek bere ikurrin-

7 Lotzagarría da Grezia eta Erromaren eruditik jaso dugun historia eta gaurdaino emakumeak jasaten du gordinena. Genero amorruak, ama ta amatasuna suntzitzearren, norbere semea gaurdaino erailtzen bai-du .

8 Zeren bildur dira? Kilometroko lurak ez dira nahiko euren gerena estaltzeko. Lekukoa erailarren, ez dute garbitzen errua, ez osatzen amorrua.




Ureta <ur+ate, Nervion buruko lurdia izkutu toki aparta, zarraparen ostean babesa lortzeko. *Arando* deritso mendiari eta berak irunsten du gaiñean duen erreka-stoa. Autrigoiekiko muga da, otsoen ate eta, aldiz, ataka>ataque.

tzat hartu zuten eta oraindino haren magia guztiz astindu gabarik gagoz kristianoak, batzuk halabeharra zelakoz eta besteak, munduko pekatuen barkamenerako. Pekatu batak kentzen al du bestea⁹? Jainko Aita horrek halako odol oparia eskatzen zuela, gaiztaginekaitiko aserreak baretzeko? Halako aitatasuna, Teologia erratua da. Jainko irudi armonikoa aldarera jaso ez dadino, ez da garbituko teologia, ez eta gizarteak jasatzen duen genero auzia.

Profetak harrikatzea juduen ohitura zan eta egiaren aitorleak kurutzatzea, erromatarrena. Harakoen jainkoa Yawé¹⁰ zela, besteona Jupiter, biak papar bizardun, baina bular antzuak, maitasuna adierazteko ez gei diren ikonoak, Ama+Aita armonia ezean.

9 Beharrezkoa al zan Jesus, Kristo deitua, gurutzean hiltea? Nor izan zuan epaile, tenploko apaizak eta Erromako ordezkaria izan ezik? Pilatok eskuak garbitu zituan haren odol-etik, elizako buru batzuk Jainko Aitaren erabakia zelakoaz gabitu nahi lukete halako krimena. Eta nor edo zein da hoi-en jainko sortzailea? Zelakoa da erra-ietan sustarrrik ez dutenen maitasuna?

10 Bazan Sumerren Baba izeneko jainkosa osagilea, herriak oso maite zuena. Aldi bateraz gero, K. a. 2000 urte, jainko izenei *jaum*, *jau* titulua jartzeko ohitura sartu zan Sortalde Urbilean eta haraz gero *Baba*>*Yawe*>*Jaube Inko*>*Jainko* da, edo aurretik *Ata* arketipoz botere-tu agertzen dira, hala *Demeter*, *Anatu*>*Tanit*>*Diana*, *Ma.at*>*Tiamat*, edo arketipoak itzuliz, >*Temis*. Guzti honetan mendeku eskola ikusten da. Besterik ezean, hitzaren magiaz baliatzen direla lehen-tasuna adierazten, kupida gabeko ume jokuan.



Kaleko eztabaida Valentina Etxeko umee-kanaino eldu zan. Batzuk Jesus astotzat hartzen zutela? Besteek, *Jupiter txarritxu* marraztuko zuten buztongi bigunean. Batetik bestera doaz geziak Karistiako muga beroan. Herriaren politika eta fedea aldatzen joela Iruña Veleiako katekesian.

3.2. Zarraparrak izaten dira

Ondotxo ezagutu al izan dugu kaleak jasatzen duen “borroka” umeeek soinean hartzen duena eta eskolaraino kopiatzen dutela kaleko giroa. Valentina Ikastola ez zan gutxiagorako, ume batek “*NEURE AMA ROMAN IL TA CISTIANA*” idatzi zuenean. “Neure ama eroe andia da” ere idatz zezaken martirien beroaldi haretan, baina egia guztia arkeologoen auzitan dago.

Piktoen aldarria ere entzun dugu Ifarreko Itxasoan, erromatarrei aurre egin orduan. Iruña Veleiakoa Kantabriako Gudaren garaian izan zan, eta antza denez, karistiarrek autrigoiekin egi-ten duen mugan. Han hartu omen zuten ostikada. *Oste>oxte!*, argi eta zur ibiteko eiagorak¹¹. Bada, Andagoia-ostean izan zelako arrastòak bilatu dituzte: sandalien tatxolak, gezi jaurtingien burdina baitipat. Iruña Veleiatik hara eguneko mendiketa baino ez dago, Badaia mendatea igaro eta izen beretsuko ibai buruan. Kolpea emon eta Uretatik *Ateleka>Delika*-ra doazen zangadak aurki.

Enperadorea bera etorri omen zan legionariei adorea ematera.

11 Hitzen erratuz “Ostia” birautzak ere hartu dute. Naste gehiagorako latinak *ostis* deklinaten du “arerioa”, harako *bizarra lepoan, kaltea daukanak* bezela, hotz, okotza bizkarrera adi dabilela eraso bildur dena. Andagoia Ostean, ezuste batez-edo, jipoituak izan omen ziran, etsaiak ostean *oste/osterik*=atzetik, *oste*=enemigo. *Oste! Oxte!* (Ikus or. 90)

3.3. *Ordeum* <*ordea ordaintzen da*

Gurutzeratuak hartu zuten euren *ordea*, Erromako legearen arabera, eta bizirik gelditu eta itxura baten damutu eta erromatartu zirenek ere *ordea ordaintzen* jarraitzen zuten beste era batera. *Ordeak*>*ordelea*>*ordalia* dakar hizkuntza guztietan.

Auzi nastuetan, Sumerreko o-bendurua uretara botaten zuten, jainko Urak ebatz zezan. Erdi Haroko kristianoek surtara botaten zuten erruduna, Suak *ordezka* zezan epaia, geroago erromatar legearen arabera, borrheroak egotzi oinasearen larriak borogutzen zuan eztabaida. Eta “munduko lapurrak” zelan *ordezkutzen* zuten? *Ordeum* kopuruaren bitartez. Zer zen *ordeum*? Anitzean *ordea* deklinatzen zena “garia” edo “garagarra”. Arrohaka pixatu, zenbatu, Kontzejuaren atera jaso, edo *Macelu* plazara eraman eta kitutzen zan *ordezko orde*.

Iruñia Veleia inguruko lurrak emankorrek dira, alturako eguzkiz eta aizez ondo girotuak, uzta aberatza zan, abastoak oster, aldi bateko Frankorenak bezala, hamarrenak edo erdizanak eramaten zituzten. Heurek egin ziguten kaltea geureek ordaindu behar, geure *ordeaz ordaintzeko*. Euskera ez da aztukor. Beraz, heurentzat *ordeum*, guretzat *ordea*, heuren gudeen *ordea* jasatea, Frankoren garaian bezalatsu.

Lan egiten zan Karistia garaiko ordekan, Araba lautadan. Itxasaldean Ibañlanda, Landibar, Landaberde zena, ordekan Langara, Lagran, Garlan, Langarika>Langraiz bihurtzen zan, beko eta goiko emaitzak bereizten zetorrena, garagar eta gari uztarako lurrak ordekoak eta artatxiki, baba eta arbi lur egoikiagoak ibar berako besteak.



Ume batek bere aitaren larraineko lana marrazten du. Aita mandoaren laguntzaz dihardu. Maisu azterle batzuk astoa ala mandoa den susmoz dira, marraskia benetakoa ete denetz

3.4. Langarika>Langreic>Langraiz

Ordeka toki laun garaia da. *Langarika* izenak Arabako lautada baizen *garaiko lan* tokia adierazten du eta Iberlanda, *landa* izen erantziaz agertzen diren itxasaldeko baratzak bezala¹². Karistiarrentzat ezaguna zan *Ibarlanda*, *Landaberde* beko ibarretako lana, goikoei *Langarika*¹³ izena jarri zizkienean. Ogia uztatzeko leku berezia zan euskal tribuentzat. Ezaguna da Martintxoren¹⁴ paradisoa edo “Ama, ogia. --Arabana dauko bihia” koplarraino egin aitortza. Frankoren erasoak arto soloak ere garitarako lantzerak behartu ginduzan. Gero pospolinak desagertu ziren euren kantuekin eta Langarika eta ordekkako ogi gozoa jaten dugu barrero.

Tokizen honek ba du Iruña Veleiaz zerikusirik. Alboko herria *Langraiz* formara etorri bai-da eta Arandio mendian, *Santiago de Langreic* izenez agertzen da han izan zen monastegia.

Arabako ordeka alderik alde Zadorra¹⁵ ibaiak urestatzen du eta Ostetik ia Karistia mugetara eltzean, uraz esi bustia egiten zion Iruña¹⁵ Veleiari eta *ibarka>parkea* egokitzen Inko Amaren¹⁶ babespea bizi zuten emaztekien eta umeen atseginerako.

12 Lotsatzekoa ere bada, Europako aberriak, *Ireland, England, Deutschland, Nederland*, etab. *-land* “lanbidea” adierazten, izena presta dienak beretzako, Englandeko *kunterri* bat bailitzan-edo, *Basquecountry* izena aukeratzea.

13 *-ika, -ike, -eka>-eic>-aiz* egiten dute, tokizen gehienok Bizkaian Urdaibai aldekoak dira. Karistiarren forma berezitzat har daiteke.

14 Ataunen ez zan ezagutzen garia eta Barrankako gizagurenak uztailean gari pila andiaren gaintetik zeinek salto andiagoa apostu egiten zuten. Martintxo polaina⁶ zabalekin apostuginen joan omen zan eta gari meta erdian pot egin. Polaina artean galazia zekarren etxera. Gizagurenak konturaturik, atzetik jasarrian joakozan atzematera, aizkora jaurti zioten, Martintxok itzuri... Koplak ere Frankoren ogi baltzaren aurretikoak dira: “Ama, ogia./Arabana dauko bihia, /Gerniken panaderia./Buelta guztiok ein arte,/ hartu pazientzia”.

15 *Zadorra<Etze+torre*, Gebarakoaren omenez datorko agian. Sumerren *Ur* esiak egiten zuan *Uri*, gero *Uriña/Iruña* ahozkatzera joan da. Esia den bes-tean, garbigunea eta iturria da. Urik ez duen aldetik, harresia gehitu zioten.

16 Inko Amaren desagertzea oraindino aztertzeke dagoen arazoa da. Norik lurperatu zuan Bastia>Baza-ko Ama Inkoa? (ikus or. 29) “Inko Amandre” izenaz aztuta, “Baza-ko Dama” deitu zioten. Iruña Veleiako Inko Ama solopetik jaso zutena *Dama* tituloaz gelditu zan. Taxuz erromatar ereduakoa da, tituluz grekar Anatu/Diana lez, *Ama.Ata* legezkoa *Dama* itzulia.

ZENBAKIAK ARKETIPO ERATARA

A N	uTu	E RRa	iLU	B A	KA	ASa
un	dui	iru	lau	boga	seka	zapa

ZENBAKIAK ARKETIPOAK ALDATUZ

bat	bi	iru	lau	boga	sega	zapa
------------	-----------	------------	------------	-------------	-------------	-------------

Arketipoak maiuskulaz: Teilape txikian, giza arketipoak. Jainko+gizaki=orokor Izena arketipoz aldatzea kategoriaz aldatzea da: a**N**=ama Inko arketipoa, **BaT**= giza arketipoa+aita jainkozkoa: Ama arketipoa desagertzean, Ama Inko Eskola agintetik Aita giza jainkoa eskola agintera aldatzen da. Teologia iraultza hau Menfis Egipton, XIX dinastian *Ptah* jainko guzti-egile aitortzean, egin zan, Tebas nausitu zaino. Aldi berean, 2000 urte K. a. Sortzalde Urbileko jainkoen izenak titulo bereziaz aurkeztu ziran¹⁷.

3.5. Eresia guztien ordua: patekoak

Gizakiaren sorkuntza Jupiter jainkoaren ekintza edo beste bizar-dun jainkoarena denean, eresia guztiak parte hartzen dute eta denak *amakutzen*, bada *amatu*, analogia baliagarria izan dadin, *Ama-Aita* Jainkoak bakarrik egin dezake, biologia lekuko.


Path jainkoak magia bidez sortu nahi zuan, *ino in/* esan eta egin arabera, bihotzeko barrundak abotsera jasoaz. Menfis en lortu zuten iraultzaz, Tebasen aurkako Dinastia eratu zuten. Goierriaz eta Beterriaz bat eginik, *Oiku-Batu*>*Ikupta*^(u) deitu zioten>*Egipto* ezagutzen dugun lurraldeari. *Patekoen* agerkundea, aipatu ijitoena baino, zati bat zaharragoa da, patriarkalismoaren garaikoa, alegia.

Menfisko tenploa arte eta diruaren erakunde egin zuten. Azkai erdiko langileak, epotxak ziren urrea eta harri bitxiak lantzen zituztenak, *Ptah*-ren seme, *pateko*¹⁸ deituak. Meatza, metala lantzeko teknika, arostezia, otzarak egiteko trebesia, artisau eta musikari ziran. Teologia arlotik ikusita, izadiko elementuak: zeru, eguzki, aire, lurrak ezetsi eta giza *baita*, *Ba* jarri zuten lehen mailan, heuren burubideko sorkuntza halako magiaz erabagitzeko. (Ikus or. 44)

Euskerak duen oroimenaz, profeta eta misiolari ere ba ziran, Nazaretekoa sortu baino 2000 urte aurretik. *Bata*>*Ptah* dator

17 *Diccionario de la Biblia*, H. HAAG, Yahvéh (IV), p. 2056

18. *Patekoen* anaikideak ere mundu guztian zabaldu ziran, behin Tebas uriburuak Menfis menderatu zuenean. Haraz gero, *patekoak*, *ptojot*^(u) "eskeko" geroagoko *ijitoak* bezala, mundu zabalean dabiltz gaurdaino euren bazkunen babesean.



Patekoak Ptah jainkoaren semetzat zeukaten burua. Argin, bitxigile trebe, *Ptah* ardurapean, haren templorako lana zuten bizibide, erlijinoa ekonomiaz ornitzen, sorkuntza orokorra hitzaren magiaz burutzen zuten, fedea gizarte loturaz bermatzen, bitxitegi sagaratua herriari saltzen. Munduko masoneriak hor nonbait izan zuan bere sorburua.

koptoz. (Ikus or. 44) *Jainkoa Bat eta bera nahikoa* zan euren predika gurean eta halako dotrinaren aurrean zenbakien izenak ere aldatu egin ziran. Ikusi arketipoen (or, 42) araberako zenbakien izenak eta *Bata* jainkoaganako fedea katekesi bereziaz bultzatua¹⁹.

Kristau eleizak, patekoen oktoadak Erromako sinboloez trukatzuz gero, ontzat eman-bide izan zuan “Esak Bat” kantagaia, funtzean jainko bizardun bakarraren aldeko zirelako²⁰.

Euskerak bere teologiaren erratuak eta bestenak ere gogoratu egiten ditu. Aitortze orduan, ostera, lekuko eskerga da askorentzat euskera, erromanikoentzat bederen eta zihur masoientzat. Kulturaren sarradan, euskerak euskaldunok ere noizbaiten *patekoen* ziria izan gendula aitortzen bai-du, zenbakiak lekuko. Gero zer izango garen edo nork kolonizatuko gaituen, ikusiren da²¹. Zur ibili.

19 Honela hasten da kantagaia: “Esak bat, gure Jauna bera dok Bat, berak salbauko gozak gu. Esak bi. Erromako altara bi, gure Jauna bera dok Bat, berak salbauko gozak gu. Esak hiru, Trinidadia hiru, Erromako aldara bi, gure Jauna bera dok Bat, berak salbauko gozak gu...” Horrela jarraitzen du leloak “Hamabi, hamabi apostoluak...” osatzeraino eta kantagaia “gure Jauna bera dok Bat...” amaitzean, “esak hamairu” galdetzean, “*Ez dok hamairu!*” planto egiten da.

20 “Se veneraba a Mari y las sorgiñas eran mujeres creadoras. El avance de ejércitos violentos llegados del oriente y, posteriormente, la iglesia quisieron borrar esta cultura”. (MARI KARMEN BASTERRETXEIA)

21 “El euskera, a menudo, era separado de la cosmovisión vasca, del modo autóctono de concebir la totalidad de lo real, quedando como una herramienta comunicacional entre otras, lo que le deja en delicado lugar ante el inglés entre la juventud. (F.R. MORA, *Propuesta estratégica...*)

Adapa^(s)/Abata^(eus)>Ptah^(k) hitzen jatorria*: *Adapa* Eridun Enkiren tenploko *abadea* izan zan, berak ezarri zituan erlijinoko errito aratzak. Itzuli bat dago *ada+pa/aba+ata>abate>abad* zerrendan eta gero, *abade>apaiz* datozenak. “Jainkoa Bat eta bera nahikoa” esan ohi da. **Bata>Ptah** dator, ain zuzen. Koptoa eta euskera elkar ulertzen dira. Jainko hau **Ba** arketipoz gizakiagan baitatua dago. Bere aldarria “*La teología menfita de la Creación*” da. **Ptah** jainkoak hitzaren bidez sortzen du: bihotzean erne eta ahotzez gauzaten, *bihotz/abotz* aldarrikatzen duela, geroago *Enuma elys* eta *Génesis* liburuetan ikusten dugunez. Sorkuntza honen bidez, **Ptah ta tenen^(k)/aita denen^(eus)** izatera dator. Hagaitik dino euskerak: *Batek badaki* “Jainkoak daki” edukinaz. Orain bada, **abata>bata** dator eta **>Ptah^(k)** honek beragan batzen dituelako jainko guztiak. Beraz, euskerak zenbakiak aldatu behar izan ditu, halako teologiaren misiolari sutsuekaitik: lehengo *un*, orain *bat* gelditzen zaigula.

* *Adapa* Sumerren, jainkoen serbitzari *abata* izan zan. Menphisko *abadeak*, jainko serbitzari izatetik, burunahiko egin ziran, hotz, jainkotu egin ziran eta aldaketa hori beti gertatuko da *adapa/abata>abate>abade>apaiz* den artean...

Dena den, *pateko* nahiko eta ez gutxi *patetiko* agertzen dira nolabaiteko *Patuak*²¹ jota. Gaur bertan, paperetan irakurriz: USAko gidaria sikiatren batek aztertzeke gomendagarria ete den aipatzen da. *Aduak* gauzkan geinua aztertzeak on bekigu²². *Adu* bera *Patu* datorrelarik, *Patu=Ptah* hein berekoak dira eta *fata*, *fatalidad* erderatzen da eta euskeraz “halabeharra” ere deitzen. Hala edo bestela, heziketa onerako, errua norena den galdetu behar da eta deabruzko ganorazko arketipoez hezi edo bezi, Menfisko apai-zen erratua ala arrazionalisten kalkulua zen jakiteko²³.

21 *Adu>Patu* gizatzen da, *Ba* arketipoa aurreztu zaiolako *Adu* jainkoari. Sumerren ezaguna zan *patutu^(eus)* nortasun gaisoa *Pazuzu^(s)* zeritsona: “nekalduaren” piura du, erderek *pachucho*, *paxuxo* “gaisoti, makal” erabilten duena.

22 *ADU: sorte, jokera, zori, asmo, deabru...* gure hiztegian. *ADAR>ADDAR* jainko arketipo bikoizdun “*cuerno, diablo, adardun*” adierazten.

23 Eduard Punset zenbakien maisuari galdetzean, euskerak duen *Bat* salbuespena jardezten dio. Galdera bizia berea, erantzun motela bestearena. (Ikus or. 42) kuadroari begira, Jainko nortasun *aN<>Bat* izenaz aldatzean, beraz, heuren teologian baloreak aldatzean, burubidezkoa zan zenbakien izena ere aldatzea.



Franko paliopean: Korpusti kalejiretan Eukaristia paliopean eroaten zan. Palioa zeru zatia lez zan, misterioa babesteko *ANube>añubi>nube* antzo. Ze mesede zor zion Konstantinok Elizari? Nork uztiatu zuan eliza bere onurarako? Eskandaloetatik ere ikasten da. Zer egin behar ez den erakusten digute, beenipein. Sikiatrek esan dezakete zeinena den aktoreon arteko lotsa, daldara, arrokeria.

Erratua izan zeiteken Eukaristia txit santuari zegokion palioa Frankori eskeintzea. Ez zuten kanonizatu, baina bere gorpuzkinak oraindino berak fusilatu eta berak gudako orde z lan neketzuetara behartuen eskuz jasoriko santutegiaren atarian obiratuta dago²⁴.

Jainkoa da nortasunetan lehenengoa, beraz zenbakietan lehen-tasuna jainko izenari zegokion. Horretan ez zuten kaskoa berotu beharrik izan eskola maisuek, patekoek alegia. Heurek bizi zuten eskarmentua eta fedea baino ez zuten adierazten horrela²⁵.

24 Berak bere aurkakoei opa erromatar bakean, hilik dagoz, egotez, baina Iruña Veleiako ostrakak, nahiz egortsita dagozen, bizirik dagoz injustiziaren guzurrea salatzen eta "egia geugaz" aldarrikatzen. "Txikizinoari" *bakea* deitzen ziotela erromatar haiek? Euren eskolako besteok *cruzada* deitzen diote guda hiltzaileari eta *judizializatzea* demokraziari.

25 Sorkuntza Amagandik zetorrela ikusten zuten: lehen-tasuna Amari. Amaren *ugatzek* inñutzen zutem jaioberria: bera zan *ugazama*. Izen eta duin-tasun egokia. Zeren zeloak-edo analogizatu dezake *ugazaba*, *ugazaita* tituloa eskarmenduaren aurka egonik? Ama bakarra bai-da *ugatza* ematen dakiena!

GRAMATIKAKO PERTSONAK ETA NOR ORDEZKOAK

AN/ona	UTU/dui	RA/iru	ILU/lau	BA/bost	KA/sei	AS/zazpi
en/ni/no	tu/tou/zu	er/ar	ille/él	bat/banek	ego/eketa	txe/je
my, moi	tto/you/yo	eurak	le/la	beste	gu/kau	txeia
nor/inor	ide,ti/ich	ura/era	alguno	batek	kide/quién	zein/zer
eni/mihi	tui/tibi	ari/ark	lui/ler	vobis	cui/cuyo	sibi/si
nos/noster	ode/zoin	ori/orrek	allelon	vos/vester	gure/ekaien	sfeis/sfon
nemo/nick	deus/tots	urlia	alter	hic/hoc	ekeinos	se=ses
neu/neure	su/zure	euren	alliquis	berendia	kori/qué	ése, éste
mengano	zutano	urlain	ulain	fulano	quaedam	sandia
nadie	uts/todo	rien/res	alako	pan/bakotx	gauza/cosa	ezer/ze
norbait	autos/tal	eren	lo/algo	ber/bera	qui/aquel	zerbait


“Jakinduriak bere etxea eraiki zuan, zazpi zutabez ornitu zuan” (Esa, 9, 1)

3.6. Gezur guztien ordua: patetikoak

Patetikoen ordua aipatzeko “vascongadismo o eusquerización tardía de las vascongadas” ikusi behar izan dut eta agotik kendu didate kalifikatzailea, “heurak dira” esateraino. Ba datoz fasziolo tipook Iruña Veleiako indusketetan bonbazko sator zuloak egitera eta *ostis*, *oste*, ostrakak artean, erromatar alfabetoz zeramikan idatziak eta euskeraz! *Ostia*, *oxte!* larritu egin ziran mutilok, larritu, jaurtineko tiroa ostetik zetorkiela ikusirik. Lehenbiziko erabakia: gezurtatu, gezur gustien orduan! “Gezurrezkoak dira ostrakak eta parte txarrekoak aurkitu eta aurkeztu dituzten arkeologoak” esan zuten eta errudunak ikatzeko Kalbarioa jaso zuten beingoan. Ez zekiten oraindino zenbat kurutz. “Hiru direla? Ba, hiru”²⁶.

Hurren, ondamakina ere eraman zuten Idoia eta Eliseok urteen buruan egin lan txukuna, kamionkadatan altxatzeko. Eliseok arkeologo lanean Iruña Veleiako Kalbarioa aurkitu zuan, Zirineo lez, lanetik zetorrela, Nazareteko Jesusen kurutzanga angailatzera behartu zuten (Mat. 15, 21). Beronikak ere, errukide, Jesus odolduari arpegia txukatu zion, halanola arkeologoek euskera lurretik jaso, fotografiatu eta internetean erakusten diguten modura.

26 “Creo no exagerar en exceso si resumo diciendo que, al menos para mí, como filólogo vasco, Veleia —por lo que a la filología vasca se refiere— ya antes de finalizar junio de 2006 había dejado de ser un problema científico para convertirse en otro de muy diferente índole: policial y judicial, por un lado, histo->



Gernika, apirilak 26 1937. Frankok aginduz, alemaniar nazien su bonbak erre zuten euskal demokrasiaren une historikoa. Txikizioa Stir lekukoak salatu zuan. Pikaso hor ispiratu. Frankok egia ukatu, Raxoik bonbardaketa horren memoria aztertzea galazo, Frankoren aginduz-edo.

Path jainko aizuna eta *patekoak* ezagutuz gero, heurek baino *pate-tikoagoak* dira herrien sorkuntzaren asmatzaile berriok. Txorien egadaz Karistia zaharra ikuskatu dute, nazien egazkinekin fotografiatu, bonbaketen tokiak aukeratu, hildako gorpuentzat hilerri hautatuak aurkeztu, anti-Iruñia Veleia asmatzen, *vaskoindar* armadunen arpegiak itxurgatu, agoz euskera ohoretsu dela aitortu eta funtsean ukatzen, “musu batez saltzen duenaren antzera”. (Lk. 22,-48) Zergaitik ukatu? Euren asmoen aurkari lekuko bizia delako. Zenbat eta ukatuago, lekukoa argiago. Euskerak amatarra izanik, ez duelako amakatzen, eurak oster, *Ptah*-kume *patetikoak* izaki, *amatu* ezinik, *amakatu* egiten dutelako denetan. (Ikus or. 48) Besterik da, engainatzeko duten medioez belarri asko sorgor gelditzea.

Txori begiradaz fotografiatu dute gure lurdia, eukiak dira dirutan, boretsuak medioetan, baina tokizenen ezezagunak erratarazten ditu bidean, ez dituzte ulertzen euren euskera laburrean: *Oka*²⁶, *Anboto*, *Gorbea*, *Deba*, *Nerva* eta mitoen garaiko hitzok eta ama eskolako euskerak salatzen ditu eta hagaitik dute gorroto.

>riográfico (de historia de las ideas históricas, religiosas, artísticas y también de historia de las ideas en torno a la estructura y evolución de la lengua vasca por otro. (INFORME [Lakarra] SOBRE INSCRIPCIONES EUSQUERICAS ANTIGUAS DE VELEIA (pag. 4) 26 *Oka*>*Ausa*, *Autsagane*, Urdaibai buruan. *Okatorre* bertan, *Oka* auzoan. *Oka* izenak, *Okon*<*oka*+*une* formak bezala, “garganta” esan nahi duen erreka unea describatzen du. Aditzak *agokatu*>*okatu*, *oka* egin, *oka* ematen dute.

amatu/amakatu>magia: Euskerak bai, argi dezake zer den *magia*, itxurak egin eta tati egitea, politiku askoren antzera. Amaren alaba bat *amatu* denean, ume ederra agertzen da. Norbaitek itxurakeria askoz, zerbait agintzen duenean, *amakatu* egiten du: *amatu/amakatu* elkarren aurka datoz, *muin/muineka* bezala. Horrela, *amakatu>amagar* dator gaztelanian ere, eta *amaka>magia*: engainuzko ondarea, planta asko, gero sonbreirutik *muineko* bat atera eta erakusteko. Hatarako, hizkirimiriak ere erabilten dira, hitz arraroak bailuen magiaren giltza. Amaren erraiak maitasuna dute, ez magiarik, ez hitz trukatuena gezurrik; amatasuna erdeinatzen duenak egiten ditu *magia* saioak, bai eta gizakiek asmatu jainko berriak (dela Marduk edo Ptah, dela Zeus edo Brama) eskeintzeko, denak gizonetzakoak hatan ere, sor-kuntza berria egin asmo zutenek: *amakatu*, *amatu* ezinean...

Gorroto dituzte Mitoak, baiña euskarari aurrea hartzeko asmoan, zelden mitoa asmatzen dute, halako zemaz ohartzeko: “kontu egizue *zeltak*²⁷ bizi izan zirela lur honetan eta okupak zareela...”

Frankok ere *amakatu* egin zuan: “Gernika erre dutenak heuren dinamiteroak izan dira koldarren igesian. Halako jendailak ez du aberri izena aipatzeko eskubiderik”. (Begitu orain berari or. 45) Etika berekoak dira guda gizonak Erromatik Hispaniara eta alde-rantziz: ostu, zapaldu, erail, gezurra esan, errua besteei egotzi. On-do zekian Goebells-ena: “mila bider errepikatu gezurra, egia daite”.

Eliza katoliku ofiziala maiz politika matxistaren errukide izan da Euskal Herriko Kalbarioan, serbitzari apal, bestalde, Zirineorena egin dutenetan ere. Batzutan bildurrez, koldakeriaz, bestetan fedea inkulturatu beharrean, kolonizatuz. *Eliza Ama* bada, herria *amatu >maitatu* ezik, *amakatu* egiten duelako. Ebangelioak *maitatzea* eskatzen du, Zesarrek bestelaz agintzen duenean ere. Ama eskolarik ezean, bokazinoaren eskasiak adierazten du zein nekesa den

27 *Keltoi, galati, gali* latinez, Atlantiko *egala* jotzen duten herriak. Portu *egale>Portugal, Egaleko>galego, gali, Gales, Englan*. Gende ezagunak ditugu, harreman onak ditugu heurrekin, euskaldunen lagunak dira gehienak. Baina itxumustuan dabilenak, umeak izutzeko mamu askoz baliatzen da. Gu ez garela sasikumeak, geure amaren eskolan ikasiak baino. (ikus or.100)



Eliseo Gil arkeologoa, lan apal eta zehatza egin ondoren, lanetik eta bizibidetik aztandua izan da. Iruña Veleian aurkitu duen euskera berak duen patua jasaten du. Lanetik zetorrela oratu zuten Zirrino ere kurutzera zeramatanaren partekide egin zutenean. Iruña Veleiako Kalbarioak azaltzen du...

eleiz gizon izatea. *Santon* hitza ez da euskera, baina *etxandera* >*-santera* euskeratik dator ostera, ama eskolako zeregina delako.

Elizako abotsak gaizkileei, euren izen-abizenez deitu beharrean, *Deabru*, *Satan*, *Txerren* mitoetako geinu gaiztoen izenez deitzea izan da. Jesusek arpegira jaurtitzen zizkien idazlari eta farisearrei, “*Subetzarrok! Azpisuge enda halakook, zelan ekidingo duzue infernuko zigorra?* (Mat. 23, 33) Halako aitormenez gertatu zuan Jesusek, izan ere, Temploak eta Erromak leporatu zioten kurutzeta.

Patetikoak dira Frantzia eta Espainiako Estatuek, Eleizako Diplomaziaz baliaturik, egin nahi izan dutena azken hamarkada honetan: gotzain anti-euskaldunak izendatu, artaldearen buruak jota (Mat. 26:31) artaldea zakabanatuko zelakotan²⁸. Bada, ez. Herriak berak aukeratu gidariei jarraitzen dio eta ez, ostera, bere abotsa ezaguten ezbduten eleiz gidarie. (Jon, 10) Ebangelioan dago.

Gure Unibertzidadeek ere nahiko lan izango dute gure herriari muiña jaten datorren patetikoen azpi lana Fakultate guztietan sakon aztertu eta bizitza ekologikoaren izenean salatzen.

28 Espainiako Eleizak, Rouco Kardinalaren gidaritzapean, ezelako lotsa gabe egin zuen (eta euskaldunok orain jasaten dugun) barrabaskeria, Vatikanoko loak eta haren ordezkari Mons. Fratrini aldameneko zuela, frankistek eta fascioleok, antxina lez, euskaldunon aurka alkartu eta herri txikiak Genero legera tratatzean. Lana izango du F. Bergogliok gurea konpontzen.



Marzion, Sinope-ko gotzainaren semea, kiristino maisua, Erroman txalotua, bere teologiaren ardatzak erakusten, Paulo jentilen apostolua eredutzat harturik. Onaren eta gaitzaren hastapen bikoitza aitortzearren, gero erexetzat emana.

3.7. Marzionen buruaustea.

Marzion Ponto-koa zan jaiotzez, Kolkida mugakoa. Aldaretara joian Jainko arduraz, baina jainkoekiko bere *eritsia*>*erexia* gelditu zan. Bizi zuen gizartean eta eskarmenduren buruz, argi ekusan bidezkoa eta bidegabekeria, eta jainkoen arteko burrukara jasotzen zuan denaren erantzukizuna. Beraz, onerako hastapen sorkuntza batek eta hastapen gaitzoko beste sorkuntza batek zerabilan munduko burruka. Une baten ontzat ematen zuan Elizako buruak Marzionen eritsia, bada, Kristo Jesus ere munduko gaitza eta pekatua konpontzera etorria bai-zan, “emakumeagandik jaioa, legepean sortua, legepe zeudenak seme-alaben sena izan zezaten” (Gal, 4, 4) Baina eritsi hori nola konpondu “Jainkoa *Bat* eta bera nahikoa” *patekoena* onartuz gero? Honetan zan eztabaida: “Bat ona”, ala “bi nastua, ona eta txarra”? Erabagia: Marzion, erexe²⁹.

29 Marzion (Sinope, 85, Roma, 160) *Erexe*, h- barik idazten dut, hitza, *eritsi* formatik datorrelako, klasikoen aurreko mikeniko, ama-eskolakide>



Metereologoen arriskuaren oharra emana zuten. Komunikabideen arduradunak, prest egozela erantzuteko. Jausi zan edurra eta laguntzarik ez bidean. Kexu garratza arduradunari eta honek Kosmoa jo errudun. Ekologia ardurarik ez eta Nor itxurgatu?

Marzion, Ponto *Euxino*>*Osinera* begira eta, haren *kolko*>*Kolkida* ama eskolako mutila zan. Horra, erorien beste osina: *Bat*-ekoen jainkoa *Ba+Aita*>*BaT*³⁰ bai-zan. Marzion, beraz, erexe. Marzionek Jesusen Jainkoa aitortzen zuan Jainko ontzat eta juduen Yaweh³¹ baztertzen, “aita hori aitorde faltsoa da” esateraino. Paulo Apostolua zan bere maisua, Bibliaren jarraitzaileak, berriz, erexeak.

Halatan, gure galdera: Yaweh ezpazan, nor zan aitorde faltsoa? Ezagutzen ditugu *Ptah* egitiar eta *Marduk* babiloniarra: batak Ama Jainkoa ukatu eta besteak erritualki eta amorruez erail zuena, beste jainko errukideak apenatik askatzearren. Baina *Marzionek* ez zuan Egipto zaharra, ez asaben Babilonia ezagutzen. Historia hori lurpean zegoelako orduan, arik eta arkeologoen argibidea eldu zaino.

Erantzuna sikiatria sakonak dauka. Jung maisuak *giza arketipo eta jainko arketipoetan* jartzen du erantzukizuna. Gizakia tipo nastua da “abere eta adimendun erabat”, abere lerak dauka alde batetik eta gizasenak bestetik. “Abere *adn*ren grina Goikoari sagaritzen ez dion artean, abere mende dagoke, ez du amore egi-

>euskeraren hitz jatorra bultzatu eta ez ukatzearren.

30 Gauzea ez zan hain singela, Jainkoa *Bat* eta *Hirukoitza* dela erabaki bai-zuen gero Nizea-Konstantinopla Batzarrak (381).

31 “ATA YAVEH” dager Valentina katekesian, beraz ez zan Marzionen kredorik sartu Iruña Veleian. Yaweh ezpazan, zein zan, beraz, gaiztakeriaren iturburu zen jainkoa? Galdera honi ez zaio erantzun zuzenik ematen. Deabrua dela, Txerrena, Satan, Addar, Baradisuko Sugea. Hanartean gaizkilea libre, besteen lepotik bere erantzukizunak ekidintzen. Egunotan (6, I, 2018) elurte andiak direla-ta, bide istripu asko Segobiatik Madrid-era bidean eta bide-larien kexuak. Gobernuaren erantzuna: Errua *Kosmoari* ezarri behar zaiola...

ten giza ganoraz eta adardunen burrukaz dihardu gizarteko politika bide guztietan gaurdaino, genero burrukan bezala.

Ama Eskolak argiago ekusan geugan daukagun gaitza, bai *Ma.aT* jainkosak Egipton, edo *ANTuk* Sumerren eta bai euren sendiko *MaDi* eta *MaRik*³². Euskalerrian; amek obeto ezagutzen bai-dute heuren erraietatik jaio den jendea. Ama den hezitzaile-rik onenak ere, ezinaren eskarmendua izan bai-zituan seme *seta-tien* heziketan, Erraren alaba Atorrek eta Anboto Marik beini-pein. Ama harek Or eta *Set* anaiak izan zituan eta honek, Mikelatz eta Atarrabi, onaren eta gaizkiaren eredu. Egitiar anaien tema obeto kontatzen du Egiptoko Mitoak, gurean guk euskaldunona baino. Euskera berak ere, *seta*, *setati*, *seta gaizto* gogoratzen ditu eta geiengo kasuan, *setena*>*Satan*³³ dator hizkuntza guztietan.

3.8. Eliseoren buruaustea.


Salapenetan agertzen denez, Eliseo Gil eta Idoia Filloy arkeologoen taldeak, dirua lortzearren konpondu omen zituzten Iruña Veleiako ostraka bedegarrak. Diruagaitik ala ospeagatik? Javier de Andrés, Esataduko Aholkulari-ohiak Iruña Veleiako etzalekuaren zuzendari ohiari, "errua aitortu dezala" eskatu dio martitzenean: "etzatokian agertu diren ostrakak gezurrezkoak direla".

Egia esan eta zigorra lortu, gezurra esan eta askatasuna lortu ete leiteke? Ez, gezurrak ez du inor askatzen. Esana dago: "egia geugaz, denen aurka" edo "egiak aske egingo zaitue" (Jon 8:31-38)

Patekoa magiaren sorkaria denez gero, gezurraren umea da, benetako sortzaile den amaren seme-alaba izatera eltzean, lortzen da gizatasuna. Patekoek ez dira libreak (ikus or. 43) Tenploak babes-ten ditu, Ptah-ren semeak dira, baina bai eta haren jopuak, eskla-

32 Arketipoak maiuskulaz dagoz. Izen konposagaiak bata emea *M* da eta beteak arrak dira *T*, *R* (ikus, or. 46) Ama Inko izenak arketipo biak oratzen ditu izenean, *Teus*>*Zeus* izenek oster, *M ama* arketipoa, ukatzen.

33 Por lo demás, "no es sensato empecinarse en identificar a los cristianos de Iruña-Veleia con alguna corriente [herética] en particular, ya que no sería nada raro que hubieran desarrollado concepciones propias, o variantes de las corrientes [gnósticas] que acabamos de mencionar." (*Lo pagano y lo cristiano en Iruña-Veleia*, MIKEL LARRAÑAGA, AMA.ATA *uw*)



Eliseo Gil arkeologoaren lantegi izana: Iruña Veleia etzalekoa. Kolore baltzean Zadorra ibaia Veleia urez uritzen duena, Aestetik harresiaren marra zurian. Erromatar garaiko euskaldunen Kalbarioa patekoen erruz, gaur daino dirauna...

boak ere. Eliseo-ta, ostera, kale gorrian dagoz, lanetik laidozki aldenduak izan direlako. Heurak ez, baina justiziak lan etena, huelga egiten du heuren aurka, juzkatu aurretik aidean uzten bai-ditu.

Patekoak izan ezik-edo, egin ete dezake batek “egiaren huelga”? Eta dirua eskekiniez gero? Patekoak diruaren jabe ziran, artea, argintza, erainkintza euren eskuetan zegoan-eta. Eta epaie dagozenoi askatasuna askan ipinten dutenen zoria opatuez gero? Eskarmendu andia euskaldunok duguna. Patekoen eskuetatik harribitxiak, magiazko margodun gutunak, urdin, orlegi, orixtak urteten zuten Tenplo lantegitik. Tenploa zuten landola, baina Valentina Etxea Ikastola xumea zan eta hango umeen bitxiak ez dute preziorik.

Egia da, aberazteko beste ofizio bat aukeratu beharko zutela arkeologoek: urrea, zilarra, esmeralda, rubia eta beste distiradun harriak bilatu eta ez euskera. Itzi euskera mistikoentzat³⁴ edo Ama Eskola jarrai-mina dutenentzat. Bisuteria lanetan artetsuak ziran patetikoak (ikus or. 43) eta *abata*>*Ptah* leinua jarraitzen dutenek sakratuaren balorea gehitzen diote harriari, harri magikoa izan dadin. Baina gure arkeologoek materiazko baloreoi jarraituz, grafito berezietan aurkitu zuten paregabeko baloreduna galduko zuten zigur, hotz, denok paparrean erabilli behar genduken domina.

34 “Mate zaitut euskera, gurea zarelako, zugan sortu naizelako, mila eta mila urtetako herri baten lana, mina, maitasuna. zoriona, zugan osatuak daudelako, zure bitartez haien berri jakin dudalako...behar zaitut” (J. A. A. ARTZE, *Uztaritzetik Tolosara barru,*)

IV. IRUIÑA VELEIA, EUSKO KALBARIO ALEGIA

4.1. Arrain andiak txikia irunsten

Horrela da itxasoko legean; arrainak ez dira eguno gizatzen, hagatik ondo dino Valentina Eskolako umeak: *NEURE ATAK ARAINA ARRAPA*, eguneroko eskarmendua ikasgai egitean. Osineko legea osinak gidatzen du eta bardin basoko legean, basoak ornitzen. Ur denak itxasora doaz, osina den errai mandoa elikatzen, itxasoko biologiak kalterik izan ez dezan. Basoan, ostera, gizakiaren sarradak gero eta estuago hartzen ditu abereen bizitoki esparruak, mota asko galtzen doazela.

Abere asko, leoiak, panterak, otsoak, etab. abere parkeetan giltzapetu egiten dira, baradisuko espezien ikusgarri, uretakoak akuariumetan bezala. Erakusketa hau gizakiaren eskolarako da, “azeriak larruz bai, baina setaz aldatu ezin duela” adibidez.

Enperioek eta Erreinuek osineko gosetiaren antza hartzen dute eredutzat¹ eta bizi dugun lurrean, barriz, abere indartsuarena eta arnasten dugun zero zolan egazti arrapariena. Egia da lotsearren, jadanik kendu ditugula geure armarrietatik abere arraparien irudiak, baina batzuk hormako harriari erantziak dagoz. Zerk arrotzen gaitu geure jardunaren eredutzat hartzeko?

Giza matxistak² ikasi egin behar du, bera, gizakia denez, ez dela leoia eta “leoia edo haren manadakoa naizelako” esan eta ekin gogara, diktadurek egiten duten bezala. Ama eskolako gen-deak bezala, txikitatik Amaren Eskola izan ez badu, arduradunen gizarteak konpondu beharko du, “nor bakoitzak, boto bat” aginduaz, adibidez. Gizartea emakumeak eta gizonezkoak osaten dute, familia armonian bizi diren ama-aita- seme-alabek lez. Hatarako jaio dira adimendun, amagandiko sena erakus dezaten.

1 Ez nuke kirola ariketa honetan sartu, kirola ona delako, baina giza grinak agertzeko ere ez plaza makala. Batzuk *leoiak* deitzen dira, besteak *armeroak* edo *erregetiak* eta inortxo ere *eskola*, *kirola* edo *abegia*.

2 Egunotan (*Deia*, 2018, 17, I) emakumeak basalegearen aurka kexu dira: tratu txarrakaitik salatu legearen aurrean, eta gizonezko legemaiak kaltegilearen aitzakiak auzira jaso. Etxean senarrak jipoitu eta auzian, legegileak zapaldu emakumea. Ba dago, horregatino, Kristonak jasatzen dituenik gero!



Osineko uren sakona, galaxiak bezain ezezaguna gizakia ezin daiteke hurbil haiengana: gizakien erresuma legorrean da, amaren urretatik behin urten genduz gero. Ur ilunetan, submarinoak bezala, kukuriotzen diren erasozale direnak, ostera, halako monstren etikaz moldatzen dira, Euskalerrria bezelako aberri txikiak irensten, “eta ondamen-diari *bakea* deitzen die...”

Genero burrukan maiz basalegea eta osinlegea legea jarraitzen da. Ohargabeko patriarkatuan bizi garenez, ostaz bereizten ditugu arketipoak akertipo hoiengandik³. Nork kenduko digu gerena?

4.2. *Leoiak ala bildotxak?*

Geure arketipoen iluntzea argitzeko mitologiara jo behar dugu edo mitologiaren hurrengo den jakintza zaharrera. Aitatiar eskola batek honela dino “Judako leoia gaintitzen da”. Geroago baten, Judako igarleak herriaren askatzailea ikusirik, “horra munduko gerena kentzen duen Jainko bildotxa” (Jon 1,29). Leoia guda gizonekin burrukatzen zan, bildotxa guda gizonen eskuetan kurutzertua izan zan. Jakinduria hau Iruña Veleiako historiari itzatzia dager. Èz ditugu lekutako ereduak eta eskarmenduak. Herri zaharra garenez, jakituria zaharrean sailduta eduki behar ditugu garau-nak. Bildotx horrek “munduko pekatua” salatzen du. Ba ditu, eduki, jarraitzaile batzuk eta emakumeak dira gehienak. Galdetu Bilboko auzitegi batetan birritan itxurgatua izan den emakumea-ri. Arrasoiz aitor dezake umeak “neure ama Roman il ta cistiana”.

³ Gizakia sakon aztertu duen Jung sikiatrak *arketipoak* aipatzen ditu, heziaren buruz oinarrizko geure ereduak ezagutu eta jarrai ditzagun, Ikastolako umeek bezala. Gizabidea ikasteko gei ez diren besteak dira *akertipoak*, basatien basalegea jarrai nahi luketenak, basa-legeak babesten ditueno.

4.2. Otsoak ala azagariak?


Abere mota biotatik zeinek egiten du triskantza gehiago gure artalde edo oilategietan? Ez, ez dira ez-eredu bakarrak, baiña berea lagunduko digute geure *arketipo* > <*akertipo* ilunak argitzen.

Otsoak bere pasea izaten zuten Gibixo menditik Arandiora zubia egiten zutenean. Han gelditzen dira antzestu, mendigoizaleen ikuskizun, artzainek egin zulo aurrean guztion ikasbierako. Hau da ikasbidea: “ez dugula otsoarena egin behar”, ez errua otsoari bota, eta gitxiago bildotxari, ipuinetan lez.


Haraz gero, Bizkaiko Aldundiak ere atzindu zuan Gernikako Arbola ikurditik otso arrapari bikotxen irudia, “legea edozelako indarkeriaren aurkako araudia delako”. Ez zaie gutxi kostatzen gure bake eragile artisaueri bakezkoak egiten. Herri zaharrenak ere, luzaro eta Amaren Eskolari uko egin barik, bizi nahi badu, bakean bizi izaten ikasi behar duelako.

Otsoak eta azagariak>azeriak auzo batekoak direla esaten da, baina azeria beti hurbilago. Iruña Veleiari babes makala egiten zion Zadorra ibaiak, bizi zelarik. Orain bizitzako baime-nik ez duela, zer esango, “azeria predikari hasten bada, kontu zure oilategia”, adibidez, “vascongadismo tardío”-ko atarian, euskara goraltzen denean bezala. Eta beste esaera batek, “azeri zaharrari ulea jausten, baina larrua gogortzen”. Hala ere, “azeriari, azeri t´erdi” da urtenbiderik onena. Horixe egin zuan ondakinaren eta kamionaren lapurretak filmatu zituen muti-lak [txalo!!!], eta bardin ostraken benetasuna internetera jaso zituztenek. Agur, bestela, ezingo nuan “Iruña Veleia bizirik” titulatu, ez erakutsi. Azeriari predikari urtetea gelditzen zaio.

Patariok ondó egiten dute euren lana, ez dute besterik, izaki miazkatuak eman dien eskola maila baino. “Horra bada, ardiak otso artera bezala bidaltzen zaituztet nik, beraz izan zaitetze subeak bezain zur eta usoak bezain xalo”. (Mat, 10:16)



Leoi bikoitzen Aker irudia Erra iduzkia ta haren Tenploa zaintzen



Hona munduko Enperio eta Erreinueen ikurrak, ezalako begiramen barik, abere arrapari gaiztoenen legera jokatzan dutelako seinale. Nork aukeratu ditutu? Nork eman die ospea? Nor arrotzen da horren ekintza basatiekin? Gudak, kirolak ala deportibitateak?

4.4. Odolezko garbiketak

Ura da berez garbiketarako emendiorik onena, baina norbaitzuek odol ixurketaz nahi dituzte garbitu odol orbanak, giza-kiak ez bailuen zerez garbitu bestela bere gaiztakeria. Juduak Yon Kippur, garbiketa egunean, eta islamiarrak Ramadan aldian, aker edo aritoren bat odoldu gabe ez dute osatzen ospakizuna. Kristiano batzuek ere horrelatsu dakuse “horra munduko pekatua kentzen duen Jainko bildotsa” Jesusez esana. (Jon 1:29-51) Baina abere odolak garbi al dezake giza erailketa baten gerena, edo giza guren, edo martiriaren odolak munduko pekatua? Gauzak ez dira atzekoz aurrera hartu behar.

Iruña Veleian erruduntzako bilatzen da, eta martiriak garbitu behar du, heuren ustez han gertatu den ondandemia. Ondamakinaz ere saiatu dira, baina ez da nahiko. Errua gizakiarena delako eta erritua eskatzen du. Babilonian Marduk, giza jainko-etuak, Kingu Tiamat jainkosaren gudalburuaren odolaz naste, sortu zuan lurretik gizaki berria eta jainko zaharren gerena garbituz, jainkoak askatuz, gizakia haien serbitzura behartzeko.

Euskal Herriaren nortasuna ezagutzen ez duten askok mitoa ezbaikortzat salatzen dute, Historian onarririk ez dugula esateko. Mito bizia ukatu eta azeri mitoa asmatu. “Amari ez yako gezurrik esaten”. Ama gabeko herria nahi lukete, patekoen eratara, amagan igarotako aldia gure biziarekin zerikusirik ez bailuen.

Amak ez du odol zaleen odolik ikusi nai, hilak bere seme-alaba direlako. *Jainko Bildotxa* bera ere giza jokera basati odoltsu hori apurtzera dator, indarkeriaren aurkako iraultza iragarten.

AN	UTU	ERRA	ILU	BA	KA	ASA
anate	uso	arrano	oilo	basoilo	kanard	txepetx
				Arketipoak emanak egozen gizakiaren eskolarako. Ama Eskolak geure gobernurako gizabidea eman bai-zigun.		

4.5. Noiz arte jasan behar dugu?

Horixe bera galdetzen zuten Egiptoko kristiano koptoak, Alexander grekoaren garaian atzerritarren zapalkuntza jasatean. Elenismoaren distira joan zan, erromatarren indarra desagertu, arabeen sarrada ekidin...Egipton ez. Gurean bai? Koptoek islamiarren erasoak jasaten dituzte oraindino, eta guk hispanismoarenak⁴. Gaitz berak mindu zuan gizaldietan Egoamerika eta euskaldunon jasan kortasuna ere frogatua izan da, Job nekatuaren ustez “bizitza gizakiarentzat gudaritza bezala bai-da”. (Job VII:1)

Joan ziran erromatarrak eta igaroan bagaudak ere eta desegin-da utzi zuten Iruña Veleia. Nortzu ziren Vela eta Velaskoak⁵? Eta Toledon uriburua zuten godoek zer zuten bakoindarren aurka? Bada, izatez, da gaur ere baskoindarrak jende iguingarritzat yutubetzen dizkigun arimabako genderik, baina sentzunezkoa ete da azeriaren aholkua jarraitea? Veleia, Velaz, Velaskoak, Alavako alabaren semeak. Gu agiri edo dokumentu gabeko etorkinak ete gara?

Iruña Veleia bizirik dago. Bizirik ezpalego, ez zuten han eztabaida itxurik sortuko. Hiltzat utzi nahi dute, baina bizi da ostera, eta armaz ezinik, propagandaren magiaz nahi lukete... Argi dauka-gu, beraz, noiz arte jasan behar dugu: Iruña Veleiako egia argitu daño, jasan behar dugu, obeto esan, iraun egin behar dugu, iraupena bai-da euskaldunek munduan egin duten ekintzarik andiena.

4 Arazoa ez da Hispaniari h- hori nork ezarri dion jakitea, parte txarreko enperioen espiritu gosetiaz nork eskolatu zuen jakitea baino. Bada, Eskanian (Norvegia, Sueden) ez dager orain holako gosetik eta zergaitik bai Espenian? *Eskania*-ra etzalako eldu erromatarren ondamenik, baina *Espenia* menderatu ezezen, bere gaitzaz kutsatu zuan gaurdaino.

5 Bagaudek Ebro errekarara begira dagozen bideetan jo zuten asaldua. Iruña Veleia ere bideotan da, nahiz Argandona atekak Egotik babesten duen. Karistiarren ordekan godoak sartu ei ziran eta Vitoriano fundatu. Hori da euskaldunek gaurdaino *Gasteiz* deitzen dioten gunea eta Martin Txikiak eta Marotoek zein baino zeineek “maitagarriago” duten *Kasateka*.



R. Bellver arteziak taxutu zuan Eroee erori, giza-bera zoriaz jabetu zedin. Ez zan ez jainkoki, ez gizaki, giza jakiturian mitogai baizik. Arketipoez landa ez zegoela beste urtenbiderik, ez zeruan, ez lurrean. Akertipoeke heurak erabili dituzte maiz deabru eta Satan irudiak heuren erantzukizunak itzuritearren. Halakoetan merkea da Baradisuko Subeari errua egoztea. Elizan *abate* > *patekoak* izan dira erru garbitzaileak, Jesusek giza, osatuaz batera, deabruz garbi gelditzen zan. Ni, Zu, eRa/eL baino beste nortasunik ere ez dago eta, aMa.aTa arketipoez landa, irugarren nork hartzen du eRoe paperaren jardueran dagoke arriskua. Non-zelan kokatu gure betekizuna lurrean... eta kitu.

4.6. Angeruak ere erori egin ziran

Gramatikak ez du barkatzen, ama eskolak hala emana bai-da. Hiru pertsona dira (ikus or. 46) Edozein familian bezala, lehen postua aMa eta aiTa datoz [euskerak No eta To ezagutzen dituen modura] eta irugarren postuan eRa/uRLia aukeran hizkuntza denetan. Hirugarren hori Ka+Ba erdi kaizu eta erdi baita gara [korputz eta espiritu esateko]: Gramatikako hirukotxa, hain zuzen. “Gramatika aldatu ezik, ez dago Jainko idea kentzerik”, damu zuan Nietzschek. “Bai, Ni eta Yi arteko hitza egiztatzeko dago hiRugarren hori hortxe” mingatzen zan haren jarraile Lacan ere. Hirugarren hori aurreko biengandik datorren Espirituak bizibarritu eRoe askatzailea da Kristo ere. Beraz, Teologian eta elkarrizketa maian tokia hartzen doguno, bizitzara gonbidatuak izan garenon ganora hartzen ikastea daukagu.

4.7. Emakundea, aldiotan ere argibide

Valentinaren garaitik zerbait aurreratu dugu, baina Iruñia Veleiako baztergoa ez da emakundearen isilaldia baino luzeagoa. Horretan ohoregarri dira Eliseo eta Idoia, garbi gorde dutelako euskaldunon burujabetza agiria. Bai, ondo dokumentatu eta dokumentudun gara, mitoen garaikide garelako eta hizkuntza bizietan mitikoena, ez bai gabe, euskera delako. Zerk beste papiro edo adrilu egosik gainartu diezaioke Iruñia Veleiak opa digun agiriari?

Inko Amaren eratako sorkuntza barriztu behar dugula, Zeusen guzurrezko sorkuntza baztertzeko. Ariak gero eta finago arilkatzen ari direlarik, Trumpen tranpak ez dute izkutatzerik eta euren nehurriko “begia begi truk” lege berak zigortuko ditu.

Valentina ama andereñoak estimatzen zituen herriko hizkuntzak ikastola asko sortu ditu XXI gizaldian, beraz zailagoa egingo zaie, bonbardaketaren kolonizazio merkea. Emakumeak eserlekua dauka⁶ eta *eseri>essere>ser* dator hizkuntzetan. Amek urteetako lana daukate seme-alabekin, abereekiko *adn*-a bere seneko egin artean, Inkoak haseran (Has. 1,2,) bere antzeko egin bai-gintuen gizakia: emakume+gizakume, sorkuntza legea erratu ez zedin.

Emakundeak bere ikurrinak jaso eta salakuntza nabarmenak egin ditu, Unibertsidadeko Katedra Aulkia jada hartu du eta Katedralekora eldu arte, ez da ixilduko, legea eskutik duela, “zapalduak jasoko ditu eta andizkiak apalazoko” (Lk. 1,52)⁶, aginduta daukanez. Horrezaz gainera, horra Katedralean bertan eserita “jakinduria berria” altsoan duela eredu bikaina. (ikus or. 61) Eta mirarien magiaz barik, gizabidez eta apal jardungo du bidean.

*Andramari*⁷, eleizak maizegi erabili izan du, Inko Amaren idea baztertzearren, Isis-ekin gonbaratuz, Jainko Amatzat goraldtu, emakume mailatik urrunduz, baina Evangelioko Maria, Jesusen ama, Inko Ama+Aita eredia baztertzen barik, bermatzen dator.

6 *Angosto<Angio oste* Andremeraritik Idoia, Isabako Andremerarira eta Begoñatik Lizarrako Puig-era eta harago tituluz eta edertasunez bete du emakundeak Euskalerra, eten gabe, haren arartekoa eskatzen duela eta arketipo guztiek opa die jarlekua *Añua, Oitia, Oro, Ola, Peña, Koro, Zalao*.

7 *Andre=madre* hitz bera da, arketipo berberak, euskeran amatasunaz landa, titulu gorenari eusten diola *andre jaunok* “señoras y señores” eratan.



Oro/Orue-ko Andramari, Murgia, Araban Umea altzoan daukala. Benetako indarra dauka Andre honek zeruan eta lurrian. Gizakiak ez du hemen etorkizunik emakumerik gabe. AMA+ATTA Jainkoak gizatzeko emakumeagandik gizalegera jaio zan, legepean egozenak askatu eta seme-alaben sena izan egien (Gal 4, 4) Amaren Eskola jarraituz, amaren uretako seme Jesussek, judu herriko patriarken jokera baztertu eta emakumea gizonetzkoa bezala dotrinatu zuan. Pedro eta Madalenaren arteko aldeak gero Grezia eta Erromako ur gazien kulturak egosi eta isildu zuteino. Haraz gero, Eleizak ere Menfisko abate>patekoen estilora, isilduz ebasten du *Ma-at*-en eskola eta Babiloniakoak, oster, Marduk jainko basatiaren armekin: itxurgatzeko gezurra eta erailteko burdinaz erail zuan Inko Ama...

4.8. Inannaren *me* arteziak

Mitologian Inanna dager faminismoaren aurrelari. Bere garaian ikusi zuan Sumerrek akadiarrengandiko saldukeria. Gilgames eroeak baztertu zuenarren, ez zan koldartu, gorago arkitu zituan bere arketipoak, beragan jainko xeguna eta sena barrundatu eta Enki jainko senideaz baliaturik, patekoen magiak emakumeari ebatzi zizkion eskubideak berreskuratu zituan Ur urirako. Hirurogetaz eta gehiago ziran albideok, eurretan *apaizgoa*, garbikuntzako *isib*⁽⁶⁾>*isipua* eta *egia egiztatzeko* artea.

Harrigarria da horregaitino *egia egiztatu* beharra. Nola egiztazen da *egia*? *Amatu*<>*amakatu* hizkunez, adibidez. (ikus or, 48) *Abate*>*patekoak* ezin dute benetako gizakirik sortu, inutu, hezi, garbitu, jantzi, eskolatu, elikatu, maitatu. Amak, amandreak bai. Emon, beraz, *isipua* ere amaren alabari. Orduan argiago geldituko dira, elizak ere Historiaren malkarrean egindako erratuak.

Inannaren artea *me*, *emea* “fina, zorrotza”, da. Matxismo trotza feminismoa bere borroka eredura lerrazotzea dela, grekoek amazonamakiaz, edo zezenketa zaleak tauromakiaz gozaten dutena errepikatzen. Inannak *me* eta fin, jardun zuan, “asmoz eta jakitez, txikiak andia bentzuten”, esana dagoenez.

V. IZADIKO ARKETIPOEN MEMORIA OSTRAKETAN

Torturatua izan denak ezin du aztu jasangariko Kalbarioa, soinean jasan dituen eztenkadak mina errepikaten diolako eta maiz azalean daroazelako torturatzailearen markak. Hagatik herri xumeak memoria luzeagoa dute, historian zehar alboko akertipoen erasoak jasan dutelako. Memoriak jatorrizko asmoan bermatzen ditu, amagandiko baloreak zaintzeagatik torturatua izan delako eta, soineko giharrez ezinean, baitan sendotzen du estrategia berezia eta jakinduriaren eskola bermatzen.

Amaren Eskolako direnek, haren adorera atxikitzen dira eta euskaldunek euskeran aurkitu dute Amaren Etxea, oinarri eta teilatu egina eta bertan jaioneko umeak “ni, neu, nik, neuk” esan eta egiteko buru jabetza nahikoa lortu.

Lurak berak ere, amaren altzoa bailitzan, babesa prestatzen dio giza behartsuari. (ikus *LVRA SVA* umeak bustinean sakon garabatua, *lurra, sua* irakurten da.)

Hori da umeak ur eta naste jolaserako Zadorra ertzean erabilten duen lurra, bustingileak katiluak egin eta gero sutan egosteko erabilten duen ore. Oinarri sendoa da, bere gainean saltoka egadatxoak ames, giharrek sendotzeko. *VRA, SVA, AIREA, LVRA*, latin alfabetoz eta euskeraz idatzita, kosmoko lau elementuak



ezeze, ekologiazko pizarra eta Sumerreko kuneiformetik hara, kultura zaharrenaren ardatzak direla ematen du. Zeintzu ziren obeto hezitako gendea ezpaere, Kantabriako Guduan ziharduen legiona, ala Valentina Ikastolan bustinezko taulez eskolatu umeak?

Ibaiak, mendi lerroak, ordekek, luizu sakonak, barrankak, itxasok gordeleku ezeze, norabide zihurrak ditu, eguzkiaren birak haiekin zero gune eta eguraldi bateratzen direnetan. Ekologiazko goi arketipoen *URA, SUA, AIREA* eta *LURRA* bai-dira funtsean. Txoriek, heuren kabiak, patariak, heuren zuloak egin eta gizakiak Amaren Etxea jaso zuan heuren seme-alaben eskolari eusteko.



Zadorra ibaiak besarkatu, lastandu, mordindu egiten du Iruña Veleia. Bilotalo errotak andepara egiten dion unean. Urak ama ferekaz egiten dio Zeru Ama Inkoa izpilatzean. Une bat geroago, ibaia Oka edo agoka estuetan bera jausika Iruña mugatik aldenuz doa.

5.1. Uraren memoria ostraketan

Urak ezein beste *uri* baino estuago besarkatzen du *Iruina Veleia*, *uri* guztiek, antxinako *Ur*, eta *Uruk* uriak lez, urak egiten dion estuntzatik hartzen bai-dute izena. Iruña Veleia, alaba mai-teena bezala, uretan jaio eta uretan garbitu eta bateatua izan da.

Zadorrako *urak*, gainera, amaren beste lanak iragoten ditu, etxe-ko lixiba, lapikoa ornidu, ganadua edaraso eta uritarren sargoriak ibitu. Ura *ago* zapaira orduko, estarriak atea idekiz edaten dogu edo *ezpaere*, *agokatzen*>*okutzen*. Zadorrak Iruña igaro eta beingoan *Oka* unean edo *Okinan* daukaz *agokak*>*ahutsak*, uharkan harriak urtetan diolako bidera. Urak egaletako atxetan utzi dituen igadura markak milaka urteren gomuta dute harri bizian.

Lur bustinduak ere hantxe ibai ertzean zuan bustin orea nas-tatzeko aska zabala. Okina errotara bezala, hara joaten ziran bustingileak ore bila. Mahai gaineko ore multzoa eskuetan, batean txukatuz, bestean ureztatuz, orea samurtzen, moldatzen joian eskuartean, lapiko, kikara, edo platera antza hartu arte. Ontzia eginean moldekaizten bazan, ura gehituz, ore bigundu eta makurrak zuzentzen zitzaizkion. Alegin denak ez dira lapiko on bat izatera eltzen, baina ura eta lurra moldatzen dira bustingilearen eskuetan, *melatuz*, *mordinduz*, *ondatuz*, *txukatuz*.

Labera orduko apurtzen ziren bustingiok, Valeantina Eskolan idazlarien pizarrak bailiran, etxe-ko kulturaz janzten ziran

AN	UTU	ERRA	ILU	BA	KA	ASA
uin	ud	ur, uri	uil	basure	kernu	txis

eguneroko ikasgaien argirako. Samurrean umeak ere errazago hezitzen bai-dira, bustingiak, sutan erre orduko, bigun hartzen zuten etxeko umeen artezia, batek idazten, besteak marrazten.

Bi mila urte eta gero, lapikoa lurpean ostraka bihurtu dene-ko, han izango ditu uraren ugarrak edo geruzak. *Koenraad Van den Driessche*, bezalako zeramista¹ argi batek behingoan atze-mango ditu geruza hoiek zenbat denbora behar izan duten bus-tin errearen gainak erropatzat hartzeraino. Uina Amaren arketipoa da²: berak *umetu*, *inutu*, *ondu* gaitu, horretarako astia, eroapena du-elako: umei *antza* emateko berezkoa *antzea*, eta amaren edo aita-ren xeguna izateak arrotzen gaitu seme-alabok. Hagaitik gara geu ere

sena deritxon *adn* beteriko gizakiak: aulak, samurrrak, kupiberak, maita-tiak, sentzundunak, tirritsuak, gurasoen arketipoez oretuak izan garenez gero.

Bizidun oro ure-tan sortuak gara, ur barik ezin dogu bizi, ura utsean edo zurrutatzen dugula. Ez dago zirrikiturik gure ekosisteman ura sartu ez daitekenik eta harago, gu-re sumertar txikiek zotzaz lapiko zartatueta eginiko hizkietan. Hizki hoiek dira lekuko: *ura*, *sua*, *airea* eta *lurra* izan dira. Ez dago lekuko oberik. Atzindu ezina da euren geruza eta ezinbesteko leku-koak Iruina Veleiako auzian. Egia egiztatzan laguntzen digute.



1 Arkeometria deritso haren zientziari. Zeramikan sartzen diren ma-terialen funtsa eta kimika ditu azterbide eta laborategiak lantegi.

2 Amaren Eskolak urari emoten deutso lehentasuna, ikus daikegunez. Halabaina, izen bakoitzat edukin berezia du. UIN *ur multsoa*, *masa de agua*. UINAK *olatuak*, UD G.=UR, URI>EURI, UIL> *lluvia*, *lokatzetan dena*. Lehen lau-rak dira izenen arketipo gidariak, elementu berriztagarriak direnez.



Hizkuntzan *Utu>su* erabagi zutenak izadiko maisutza jarraitzen zuten eta beroak, eta argiak biologian zuten garrantzia eta bizi luzapena Amaren Etxean. Haraz gero, Amaren Etxea santutegia izan zan, sugarritan Jainko Sua sukaldearen jabe egin zelakotan.

5.2. Suaren memoria zeramikan

Eragin andiko santzua uzten du suak jotako azal eta ezurretan. Urak emez mordintzen, suak errez tuldutzen, bata amaren eta bestea aitaren arketipoak direlako. Batak bestea amatatzen du, urak sua, nehurri txikietan. Nehurri andietan ostera, uTu iduzkiak dundutzeraino argitzen du aN zero zola edo aN>Aiñubi>Nube lurreratuz, euri biurtzen du, lurraren egarria asetzeko.

Ura odeian, ibaian, iturrian, sua, suatzean eta sugarri diren gauza organikoetan, nondik bizia lortu dugun, hara bihurtzen bai-gara.

Iruña Veleiako lapikoak arte *zaparro>txaparro* eta kurbitzugarriez³ ondo tulduak eta erreak izan ziran, gertuko Badaia mendilerroetako altura haretan eguzkiz ondo *zoldu>soleado*ugarria aurkitzen bai-da⁴. Laborategi on batek ausaz igarri dezake zetariko zurez erreak izan ziren Iruña Veleiako lapiko eta platerak.

Lapikoa eguzkitan legortua izan denean, surtara doa, suak lurra goritzeraino, keramikaren ganora, zehatz eta auskor erabatera.

3 Kurkuxe edo kurbitxe ugariagoa da hango mendietan, txaparroa baino, biak dira abereentzako frutaki adina daukenak eta sugarri apartak.

4 Sukalkiak ere egur berezia eskaten du. Es da bardin pinua edo arte txaparroa erabili, bero iraunak nehurtzean.

Margoen gama arketipoen arabera

AN	UTU	ERRA	ILU	BA	KA	ASA
anil	dundu	urdin	Laru	Beilegi	gorri	zerulegi

Harako lur ikutuak halako edo bestelako kolorez jantzi dezake, suaren eraginez, gar biziak burdinaren urdin-gris xeguna ematen dio eta bestelako beroak gorri biziz ere janzten duela.

Iruña Veleiako ostraketan argi dago ez dela erabili ez ezelako gazaren sopleterik, ez elektro-laberik, *Utu>su sugarría* ta *zura* baino. Energia berriztagarriak ekologiaren marka uzten dio azalean barrutik eta kanpotik, norbere sentzunak direla lekuko, eta euskera hizkuntzaren agiri gainera. *Utu* eredia *otoz-otoan*, *utz*, *utzi*, *ustu*, *uxuri*, *otsi*, *oso*, *ostu*, *oztu*, edo begiten *itu* denetan *itu*, *ixu*, *izu*, *zuri*, *zurtu*, edo *txi* jasanik, *txut*, *oju* eginenez, *zuldu>soldar*, nola mugidan, *jo*, *so*, *iduli*, *itzuli*, *itzuri*, hala *doitasunean*, *doitu*, *doha*, lanean *dolatzen* edo nekean *dolutzen*, *doluz* zein *doluke>dulce* denean. Iduzkiak ez gaitu uzten egunez eta gaeuz, haren beroak erropatzen gaituenero, eguzkia geure soinaren elika eta giro egokia gertatzen delako beste lau elementu barriztagarriekin batera.

Harrigarria da izadiko lau elementuon bateratzea gizakiaren eskuetan. Bustinak eskuak zikintzen ditu, baina esku trebatuek bizi berria ematen die elementuoi halako auzolanean edozetarako baliagarri diren tresnak egiteko. Tresna hoietan, ontziez aparte, bai eta idazteko eta marrazteko taulak ere, Iruña Veleian agertzen direnez.

Artea osatu eta gero suari ematen zitzaion bustin aulak gizaldieta-ko iraupena har zezan, bada ontziek, bere betiko moldean harritu jarraitzen bai-zuten apurtuarren. Iruña Veleiako *ostrakak* "ontzi puskak" hor dagoz lekuko zindo, geuk irakurri eta baloratu ditzagun.





Airea bizien ta gauzen espiritua bezala, aienatu gabe bizi den goi-been utzunea betetzen, otsa eta beroa ditu estalki, zirrikitu xumeenak egon gela, uraren aizta da gardentasunean eta berarekin batera antolatzen du oxidoaren memoria.

5.3. Airearen memoria bustingian

Bustingilea lur bustiaren ore a gurgpilaren laguntzaz dolatzen ari delarik, hirugarren elementu den *airea* datorkio lana erraztera. Lurraren eta uraren artean airea sartzen den nehurrian, ore a arindu eta zaulitu egiten bai-da, forma ezbardin eta ugariak hartzeko lain egiten duela. Forma berriok izakera berria ematen diote berez materia moldekaitz denari, lurra arrotzeraino.

Bustinlaria artista egina baloratu zan antxina eta gizakia be ra edertasunez antzeztean, sorkuntza berrirako pusmina sortu zitzaion eta halako magia z saiatu. (ikus patekoak or. 42) Ptah jainkoaren morroiak jainko berrien irudiak moldeatzen zituzten eta haien barnean hitzaren magia z ufaturiko jainko espiritua zegoela aitortzen⁵. Haraz gero, espiritua lantzen duten erlijino askok, santuen irudiez baliatu dira fede debozinorako⁶.

5 *Atum*⁽⁹⁾/*Item*^(k) "berez *ide>idea*": "Atum jainkoak bere fisikoaz "azi" eta "as/ats" bidez sortu zuan, Path jainkoak, oster a, bere "aho-espainez agozkatu hitzekin". (*La teología menfita de la Creación*, 55) ANET. 44-5)

6 Ikonoklastek demonizatu egin zituzten, baina gero Eliza Katolikoak onartu egin ditu santuen irudiak, Jainko gizatuaren izenean. Iruña Veleiako ostrakak demonizatze ko arrazoi bakarra *euskera* da, espiritu bereziko balorea.

KERAMIKA ONTZIEN IZENAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERRA	ILU	BA	KA	ASA
ontzi	utxa, usuil	urtza	lapiko	baso	kazola	txarro
antoxin	tarro, taza	orza	eltze	bacia	cazo, kikera	jarro
mazkelo	tupin	artesa	lebrillo	pitxer	kopa, kurtzelu	aspira
morko	terrín	arado	lámpara	plater	katilu	

Sentigarri direnak urbiltasuna geitzen dio, eskola zentzunari, eta lokarria bihozkeri. Izan ere, hirugarren elementua erratura prestatzen da, ikusi ez ikutu ezin angeruzkoa delarik (ikus or, 53), atzbegiei iruzur egiteko prestatzen da. Deabruari edo Baradisuko subeari errua botaez gero, barrabana libre gelditzen da⁷.

Iruñia Veleian agertu den euskera berez kulturazko balorerik espiritualena da, batez ere umeen ago eta idazkeretan *neure ama*, *neure aitak* formetan. Gramatikari ikasiek erratuak ikusten dituzte bihozkerotan, baina bihozkeran ez dago erraturik⁸.

Amaren eta Aitaren *no+to* arketipoak naro eta doi jokutzen dute, baina bion ondare den, heren elementuak, *aire* edo hirugarren *era* nortasunak astoratu eginten ditu, ama semeen arteko armonia apurtzean. Atmosferan korronte biziak ekaitza sortzen dute eta itxasoan galarren galgarriak astintzen, arik eta dena baretuz, eguraldia gozatu daino.

Gizakiari ama-aitaren ereduaz ondo dioako bizitzan, baina eroe pusminik sartzen bazaio soinean edo antuste ustelik buruan⁹, arrokeriak daroa aldomaldoka bardin Amaren Etxeko baratza lardaskatzera edo aldameneko anaien larraina zapaltzera. Gizakiari egitura bikoitzez nastu eta ezbaikor izatetik diatorko halako jokera. (ikus nor pertsonaiak or. 46)

7 Ebak Subeari egotsi zion errua, Adanek Ebari eta teologo zaharkituek Deabruari. Exegesi horrek nor bakoitzaren erantzukizunari kuku egiten dio, ostera, eta zuzenbidea ostopatzen, gero maiz aulenari errua egotsiz.

8 Umeak nortasuna azpimarratzen dute *nire*, *zure* forma legunen gaitetik ikaskideen arteko lehiaketan bezala: *zurea zeurea eta nirea neurea*. Erratua bihozkeretan barik, aurreritziotan egoten da, batez ere, aurreritziok politika jakin batek erosita badaukaz eta partalientzat salgai.

9 Eroek legetik ate bizi nahi du, eta sortzaile izan legetik kanpo: amarik gabe guraso izan eta *amatu* ezinean, *amakatu* egiten du. (ikus or. 48)



Gudaldian tankeak, abioiak eta arma az-tunak ateraten dira. Halatan Iruña Veleian hondamakina eta kamioiak, arkeologo apala eta estratotoen memoria galaztearren. Baina, hala eta guzti, lurrak ez du bere geruzen jatorria galtzen, bai azterketea ostopatzten.

5.4. Lurraren memoria ostraketan

Lues loa urak arrastan daroan lurra da, maiz bustin egina. Lurra berez ez da ezertarako, baina beste hiru elementuen laguntzaz aziari bizia ematen dio eta Baradisua sortzeko lain da. Lurra dena beharrean dago, sumertarrentzat ez zuan jainko mailarik, beste elementuen artean, beraz Ama Jainkoari *Ama-lur* deitzeak ez du propagandarena baino beste bermerik¹⁰.

Iruña Veleiako lur silutua estimagarria da, Ponpeia Valentinararen Etxe izanaren erauskinak gorde dituelako eta erauskinotan, ama erraietan bezala, Ama Eskola eta karistiarren agiria den euskera bai-dager. Lehendik ere ba genekian euskeraren soloa zena, inguru zabalean eta harago tokizenak zigurtatzen digutelako, baina kolonizatzaile berriekiko eztabaidan, ondo diatorkiguz gehigarriok. “Ez dozue tokizenik ulertzen? Horra ostrakak.”

Lurraren deskribapenak gutxitzat bazeunzkaten, ostraken ez-ustez okak egiteraino larritu ziran kolono berriok. Tankeak atara eta lur silutuaren estratoak bonbakatzen asi ziran. (ikus or.13) Begirale azkarra oldez eta moldez, han gertatu izan ezbalitz, ukatu egingo zuten gero, lotsak hartuta, koldar halakoek. Matxismoa hiltzaile den bestean, gezurtti koldarra da-ta, ikusten dugunez.

¹⁰ Medioek, ezjakinez edo jakinian, euskaldunok kolonizatu minaz maiz jokatzten dute, *Mater Tellus*⁽¹⁾ edo *Pachamama* eredia har dezagun, osetetik gero esateko “horra, zuek ze latinaren kume edo amerindio jantzi zareten”.

Tokizenak lurra deskribatzen du. Sinistu lurrari, euskarari sinistu gura ez badiozue, baina euskara lurraren lekuko da eta Iruña Veleian lurra euskararen lekuko.

Lurrak aziari erraia ideki eta baratza egitera prestatzen denez, hala euskarari. Landaretzaren azia nondik harako den jakitea ez da erraza, baina euskerarena, susmagarri zenez, Amaren Eskolako frutua da Baradisuen garaietatik gaurdaino eta hanarteko Valentina Ikastola lekuko. Nortzu ziran, ezpaere, kulturaz jatzia-go, Valentina Eskolako maisu eta ikaslegoa ala Erromako Enperadoreak Kantabriako Gudara alokatu legioia?

Kolonizatzaile berriek tresneria eskergaz eta medio larriekin bonbakatu dezakete ostera ere gure lurra, baina biziok lur gainean eta hilak lurpetik aldarrikatuko dugu Ama Eskolaren alde.

VI. GIZA ARKETIPOAK OSTRAKEN MEMORIAN

Izadiko arketipoak ez dute memoria erraturik, *urak, suak, aireak, lurrak* elkarrekin edo bakarka izatasunaren arabera jotzen dute beti, ezerk itzuli ezina dutela, eta beti ere, elementu barriztagarri direla. Arketipoen gizakundean dagoke erratua, gizakiak bere oldez eta naitara erabil bai-ditzake, baliabideak desbideratzean. Horretan dagoke gizakien hiruzurra ere, gizakiak besteen lepotik eroe urten gurean. Gizakiak *ama+aita* eskolan ondo doake haien arketipoei jarraiki, baina *eroe* tirriak haiekandik ate badoa, mitoen Ikaro bezala, edo Satanaz antzera badihardu, erori egingo da. (Ap. 12:4) (ikus or. 59)

Eroe mina *Erra hirugarren arketipoarena* da. *Errak* erratzen du, *arrak* nahi luke beretzako *arrakasta*, bera *arrazoidun*¹ eta berarena *arrenkura>rencor*². Ama eskolako mitoetan ikasten ez duenak manadaren kalean *burukatu>frogatu* beharko du. Gizakiak jainkotxo izan gura du hirugarrenaren hiruzurraz baliatuz.

1 *Rason*⁽⁶⁾ "Errari atsegin zaiona", haganako abegia. (*Cartas d Tell el- Amarna*. BRIEN J., *Tratados y Juramentos en el Antiguo Medio Oriente Próximo*, DB n^o23, p.101.

2 *Arrenkura>renkor*, ardua bezela, nahiz edukinean banantzen diren.



Erromatar ingenioaren oroigarria Zadorra gainean Iruñña Veleiatik Bilota auzora doana. Oraingo bideak baztertuta utzi dute, latina utzi gendun lez. Beraz, nortzuk kordatu zuten obeto herriko memoria, euskaldunen *ongoak* ala erromatar *bakeak*?...

6.1. *Ka-ren memoria ostraketan*

Memoria geure barnean *kordatzen* ditugun oroigarrien bilduma da. Ondo kordatzen den memorian, bizikizunak bata besteri lotuta datoz, ganbarako piper txortuak bezala. Kordel onaz kordatzen ez dena zakabanatu egiten da eta bat ez da gero *akordatzen*, galdu egiten da, askoren gorantzia lez.

Ka arketipoak *kaizua* eta *gaia* dino, surtan *kedarra* den lez edo uretan *ugarra*. Giza gaiak amatar materiaren emoiak dira eta gure sentzuketatik harako distira oratuak, hatan ere. Ikusi, entzun, usnatu, sentitu, gura izan, nai duguna oroitzen dugu eta garautegiko disko gogorrean *kordatua*>*gordetzen*. Gura eta, barne *koko* dugun, *gogo* horrek lotzen du memoria. Gogotan ez dagoena, galkorra da, aztu egiten da.

Lur silutuak ondo *kordatzen* denean (ikus or, 13) urak, berokak eta aireak beragan utzineko arrastoak ondo *gordetzen* ditu, *korde*>*gorde* datorren lez. Zer ardura digu guri Erromako zubiak Iruñña Veleian? Euren ohorerako da ala jasan zuten ondamentdiaren lekuko da? Euren arrano gosearen lekuko dira eta aberekeriaren bedar txar horrek giza kaskoan du kabia eta giza giharrean kaizua eta besteek gordetzen dutena *koiu*>*coger*>*kolekzinoa* egin zaleak dira, hotz, guk geure *gurako*<*ekur* “santutegi” lez, *kur*>*kurtuz*>*gordetzen*>*guardar* duguna, dena euren bailitzen, inorena koiutera datoz, eta geure *kurtzea*>*Cor-*

tetzat hartuaz, eurentzat>ekur>egurginen>corte>cortar eta gendea kurutzean ikatzen asten dira, Iruña Veleian bezala.

Eskerrak agiri bizia den euskera historia guztia ondo kordatuaz, denaz akordatzen den eta eta bere formen edukinetan euskaldunok gogoratzen dugun jakinduriak gutaz esana “asmoz jakitez...” bere betera el dadin. Eskerrak Iruña Veleiko lur silutuan euskera bere lurrari ondo lotu agertu dena, *katilu*, *kazola*, *koilare*, *kikera* eta keramikazko beste ontzi puzketan garapetua.

Eskerrak *ekur* “santutegi” zaharra ere ia bi mila urte geroago izenez eta soinez arrigarriri *kurutzeari* ondo lotu agertu zaiguna Iruña Veleiako lur silutuan. (ikus or. 33, 35) Bestela, erraz esango genduke, Ebangelioko ipuinak direla eta erromatarrak gende txit ongile eta eskolatua zirela, gaur bertan euren faszismoa jarraitzen dutenek bezala. Baina Iruña Veleiako irrintzi horrek ondo agertzen du erromatarrak zetariko moxo ziren eta eurelako arrano gosertiak gaur ere nor diren ulertzen laguntzen digu. Eta gauzen memoria ulertuz, obeto antzematen dugu, eroi eroen laborria eta patekoen patetismo galgarria.


Eskerrak euskal martirien lekukotasuna, antxinako koptoena bezala, goiztarra izan zena gure artean, albora begira barik, ulea orrazten duten gure gazteek, izpilu egokia izan dezaten. Bestela Eliza Ama Katolikuak ere pentza zezaken ona dela, kristatasunaren onerako egokia zeitekela Enperioarekin harremon armonikoak izatea, gaurdaino konpondu duen bezala.

Baina egunotan inoiz baino argiago gelditu da Eleiza eta Enperioaren arteko harremanaren ustela. Franko hiltzailearen krimenak estaltzeko (ikus or. 45) ona izan zan, ez ostera, zuzenbiderako. Enperioak, Tenploarekin bat eginik, Kristo kurutzeratzean, ondo berezi gelditu zan patetiko deabrutuen (deabruk baldin bada) botere grina eta giza askatuaren jokera laua.

ARKETIPO BEHINENAK

AN	UTU	ERRA	ILU	KA	BA	ASA
ama	aita	eroe	lekuko	gizaki	burujabe	etxa

Denak aztertzen, definitzen, laguntzen digute, batzuk obeto besteak baino.



Ba>baita>baitatu>batu. Rodin artista sikologo eta filosofo ona izan zan gizakia horrela brontzean taxutzean. *Eroee eroeen* aurka ondo dator baitan bildu gizona, aurretiaz zer egin eta zelan jardun pentzatzeko duena. Koptoen sikologiak ondo bereizten du Ka eta Ba arketipoen ganorra. Merkatariak salgaia pisatzen duen lez, hala pentsalariak norbere *pentsudaz pensu^o* pentsatzen ibilbidea. Eta ibil bide horri lotzen dio bere fedea, *bide>fide^o* gertatzen zaiola eta haretaz *fidatzen* da. *Ba* arketipoa *apala* da eta *baloreak* eta *baliabideak bere pisuan pisatu eta barrundatuz, fedez* jokatzeko du lagunartean, fedea deituko urkolagunari. (ikus or, 59 eroe eroeren ganora eta lurtean oinarritzen den Rodinen pentsalariarena)

6.2. Ba-ren memoria ostraka idatzietan

Ka arketipoak ekintzarako giharra prestatzen dio gizakiari eta *Ba* arketipoak ekintzan *behar* duen *pentzuda*³ prestatzen dio. Pentzuda horrek ematen dio gizakiari gizartea arremon honetan eta bakezkoan gidatzea eta ez adarka edo mokoka, aberekek euren artean bezala. Gizonezkoak bederen lezino gordina dauka abere arren, ordotzen artean gertatzen dena, elkar hiltzeraino burrukatzen bai-dira, emeen arrapari edo gizakiak guda-teko sakeoan (ikus or.54). Gizakiak, ostera, *Ba* dauka abisari.

Abereak *ba-ka* dira, ez dute *Ba* arketiporik, hagaritiek kontzientzi-bako>*vaca*, *beiga* deitzen dira, ez dutelako idearik *barrundatzen*. Ez dute *begitzen*, ez *bereizten*, ez *berbatzen*. Abere moduan jokatzeko duen gizakiak ere, gaizkia eginik, inoren pentzudan uzten du erantzukizun osoa, erromatarrek Iruña Veleian bezala, eta senaz euren jarraitzaile direnek Iruña Veleiako ostraken auzian. Giza aberekeria edo matxismoa, koldarra bezain gezurtia delako, Baradisuko mitotik eta honaino,

3 *Pentzuda*, ustekida, barne oreka, laguntza.

Babilonian eta Iberia Bietan ikus dezakegunez. “Baina noiz arte, Ama-Ata Inkoa, jasan behar dogu zorigaitz hau geure lepotik, jainkotik jainkora, zeinek gehiagoka bailebilz, “non duk hire jainko hori egunero geuri esatean deuskuela?”. (Sal. 44)

Gizonezko askok eroe eroaren marka daroa bekokian, mitoen garaitik hara eta katakunbetatik zehar. Ez du Amaren Etxea gobernatzeko adinik, ez ganorarik, amaren agindura mendezen ez deino edo amaren aholkutik desbideratzen.

Izan zan gizon bat Galilean, patriarkalismoaren edeak ezetzi eta estaietako jai baten, amaren esanera, Jainko Erreinuko iraultza aldarrikatu zuena (Jon 2, 1-11). Herriko abade buruekin berba egin zuan, merketarien Tenploa garbitu, pobreei barri ona iragarri, gaisoak osatu. Hala ere, Tenploko abadeek eta Erromako aginteak kurutzera eraman zuten. Kurutzatu hori, hain zuzen, pintatzen dute Valentina Eskolako umeek halako xalotsunez eta guk ez dugu oraindino nahiko ezagutzen kurutzatu horren auzia.

Maisuek aztertu zituzten marraskiok, ezetz esan zuten. Han kurutze buruan RIP irakurten zela *Requiescat In Pace* erromartatu elizak beti irakurri duena (ikus or. 35), agian ez jakinik erromatar bakea *Ba+-ka* lez, *Ba bako* norbait baino harago, zerbait zena, hau da, hildakoa, “bakardade eginari [halatan] *bakea* deitzen” bai-zioten. *Ezetz* esan zuten, beraz, gure maisuek. Benetakoak izatekotan, aipatu ostrakek INRI ipini behar zutela kurutzaren buruan, hotz, *Jesus Nazareus Rex Judeorum*. Nazareo horixe izan zan, estaietako pozaldi haretan, amaren esanera, ura ardao bihurtu zuen igarle gaztea eta patriarkatuaren adar biak, Tenploa eta Kaiserra elkaturik, kurutzen ikatu zutena.

Ezetz esan zuten zuzenbidearen begiraleak ere eta jasan ezinoko iraintzat⁴ hartu Iruña Veleian egin den atxurketa. Eta, legeak dinonez (Jon. 18,7) “berak hil behar du”. Ostiral Santuz gertatu zan eta Jesusen Ama-Aita Inkoak ez du dagoneko apenztarik hartu, semerik maiteena kurutzatu zutela-ta, dutelako.

4 Iraina arrunta ala pertsonarena den aztertuko da, baiña, ardura barik, ez dute inoiz aitortuko atxurketarik zakarrena, hondamakinaren hondamena baino nehurtuagoa dena.



Jaialdi atsegi-
na eztaietako-
a, kantxineta-
ko ura ardao
bihurtu zene-
koa. Amak gi-
datzen du Se-
mea "ardaorik
ez dute-eta".
(Jon 2, 1-11)
Miraria, sin-
boloa. Amak
ez zuan ama-
katu, beraz, ez
zan magiarik
izan, elkarta-
sun jaia baino.

6.2. aS memoria aztuezina Iruña Veleian

Hizkuntza ondo kordatuak erritualki jarraitzen ditu arketipoen lehentasuna euren arteko elkarrizketan. Arketipoetan azkenik aS agertzen da⁵, errito honen duintasun seinale. Egipton aj "aintza"⁵ seinu lez dager eta zid⁶ deitzen dio sumerioak.

Jainkoen izenak ere azken arketipo honen seinua hartu zuten orduan AN>San egiten zela, INKO>Xainko, Baba>Xawe>Yawe⁷.

5 Aj "aintza" hau asieran Faraoiarentzat bakarrik zan. Geroago herri guztiaren onurarako demokratizatu zan Egpton.

6 RIES. J. SAGRADO -2. *La expresión de lo sagrado en el mundo sumero-babilónico*, D.R. o. c. p.1577-1578.

7 Jainkozko izenei Jaum/Jau- aurrizki ezarteko ohitura K.a. 2.000-garrenekora da: Yahwéh (IV) ANTIGÜEDAD. En inscripciones akadias se encuentran ya desde el siglo XX a. C. nombres propios prefijados de Yau o Yaum (y como no llevan el determinante de dios, no han de considerarse como nombres de dios) M.J. LAGRANGE, D.B. o.c.). Cf: Antu>Santu>Santxo, Utu>Iduzki Saindu, Abatè>Ptah>Sabat. Babilonian eta Grezian oster, jainko izenen aurrisi, Theus ezarteko ohitura sartu zan. hala, Meter<Demeter, Ma.at>Tiamat, Anatu>Diana>Tanit, etab. Umekeria dirudi, baina ume barrabanak Ama Inkoari opa zien ordaina: Ama aztu, Ama ukatu, matxismoak gaurdaino emakumeari egiten dion hiruzurra.

Lehia, tirria edo zerk daraman gizakia Amaren izena eta eskola atzintzera edo amari kalte egitearren, norbere semea hiltera, Jung bezalako sikiatra sakonak azal dezake, gizakioi arketipoak aztertzeraz gomendatzen digunean. Guk giza barnez halako tirriaz jota dagozenen kaltea dugu eskarmentuz, politikan, kultur arloan eta Iruñia Veleiako auzian baitik bat⁸. Ez gara bakarrik, baina bakarrean jasatea tokatzen zaigu eta ikustzen dugun egiaren zorbatzak epai egin gaitzakena kontuan dugula. Hala ere, egiari eta ikerketa zor diogu arnasa. Berak tiratzen gaitu tirriatzeraino, ez beste ezerk, gure eskarmendua aztertzeraz. Beraz, lehendabizi *asa* hartu, urren, *eseri>essere⁽ⁱⁱ⁾>ser* eta *asi*, gero *asmatu*, *astatu*, *azertu*, filologo lez, gure zoria dagoneko emana ezbailegon, jokatzea bai-dagokigu.

Ba arketipoak baitatzen duen guztia *aS* asmoa da birietan asbertzen dugun *asa*, arnasa ere euskeratik latinera, analogikoki *asperatu>spiritu⁹* den bezela. *Asperena* ere deitzen dugu, nekearren unadaka *biritzen* dugun *asa* eta *as-* aurritziz, askatu ere *asaskatu* dator.

Iruñia Veleia, Kalbario eta guzti, gaurko eztabaidaren korapillo egina da, Jesus umea Tenploan


aurkeztean lez. (Luk. 2,25) Abagune egokia dugu benetan, denarako balio diguna eta arlo guztietan ustiatu behar duguna, bizi dugun gizartea arketipoz arketipo aztertzeko bederen.



"Grafito batzuetan YAVHII - ATA - NIIVRII - GIIVRII ATA, YAVHII-ATA - ikusten da

8 "Abyssus abyssum invocat in voce cataractarum tuarum; omnes gurgites tui et fluctus tui super me transierunt/ *abusuak abusuari* deitzen eta zure oka denak eta olatuak gainezka in didate". (Sal. 42,8) Cf: *Abyssus* latin aurretiko hitza da. *Ap.Su* sumereraz "*pusu*, leza". Tokizenetan *Abusu* gelditzen zaigu eta *busu>pusu>putsu* hitz arrunt bezala.

9 Espiritua aipatzea amagandik eta amaren eskolatik hartu dugun seme-alaben *sena>seny^(ca)* edo *sentsu>sentido* bezela da, eta Inkoari Ama deitzeko eskubidea, (Gal., 4,4,) Apostoluak opa digun bezala.



Bizi dugun lurra, Karistia eta Iruña Veleia (lauki zurian) bederen, deskribatzeko tokizena ditugu. Mapan mendiak, ordekak gorrizkan eta itxas aldeko ibarrak berdean.

VII. TOKIZENEN MEMORIA IRUIÑA VELEIAN

Tokizenen memoria euskeraren memoria da. Tokizenen esanahia jakin gura duenak ikasi dezala euskera sakonean. Ez dakiena profetatzen hasten bada, idatzita dagoena betetzen da: “Quidquid ignorant blasfemant” (Sant.1) *Ulertzen ez duten oro kakazten*, eurenaz urtetearren, baina holakorik jaso ez daiten, ez daitela predikarik falta. Euskerarentzat ulergarri dena, halakoek *zelten* berbatzat jotzen dute eta inortxok ez daki zelten hizkuntzarik hemen izan zenik ere. “Mito zaleak” itxurgatzen gaituzte eta “hizkuntza mito bizia da” Jung sikiatraren gardiz, eta euskera, Mito biziak, lege zaharreko Amaren Eskola ondo ulertzen du (eta, behar bada, ulertzen dutenetarik bakarra da), beraz, Historiaren gizenerako, Mitoa gutxiesten dutenek ulerbidean beztu eta euskera bera iraindu eta baztertzen dute¹, gaurdaino egin dutenez.

¹ “El vascongadismo tardío” eta Dic. *Etimológico de la Real Academia de la Lengua Española* denaren itxumustuan oinarritzen dira. Beraz, “itxuak itxua gidatuez gero, biak lezean aguro” (Mat. 15.14) dino Jakinduriak eta itxuan, “lezeak lezeari deitzen” esakera jarraitzen dute.

Horretan euren arketipoaren mendeko dira: Amaren Eskola gorroto dutenen akertipoen manadako. Hemen Etimologien Hiztegi Sagaratua euskera ukatzetik hasten da eta ikaslegoa euren Unibersidadeko ikergintza erratuari jarraiki joan behar duelakotan. Amaren Eskolak, badu Ama Eskolaren kontrako Unibersidadetik. Hagaitik ez da ikasten euskerarik Estatuko Unibersidadetan. Eta, *nai-nai!*, ikasi barik, erakutzi nai digute.

Tokizenetan bardin. Baskongadismo berantiarraren mitinistek tokitik kanpo utzi gura ba gaituzte, eta tokiari izena aldatu: *Iriberr*i bada, *Villanueva* jarri, *Gasteiz* zela? Ba, *Vitoria* ipini, aspaldi gertatu zen lez, *Bidebieta*? Bada, *Dos Caminos* agindu, Frankok bezala. Horrek esan nahi du euskera ulertzen dutela, baina ez onartzen. Baina halako jarduera sentzundunei lotsagarri egiten zaie. Lurraren deskribapena ukatu ezinean ere, gure oinpeko bedarra moztu gura dutenek tokizena ukatzen hasten dira. Okupa direnek okupatzat jotzen gaituzte, lapurrek, lapurtzako, patekoek, patetiko. Guztia, ezagutzen ez gaituelako, eta ezagutu ezik, ez dago maitatzerik. Gizabidetsu, edo demokrazi zale balira, gure herri nortasuna eta kultura errespetatuko lukete.

SANTUTEGIEN IZENAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERRA	ILU	BA	KA	ASA
Añua	Oitia, Idoia	Oro	Olabe	Barria	Koro	Estibaliz
Oña	Itziar. Uxue	Arrate	Lierni	Baraxuen	Kurtzia	Zalao
Angosto	Dorleta	Arantzazu	Aloña	Begoña	Gordoa	Jainko
Amatza	Tuesta	Orriaga	Almike	Puy	Gorriti	Zenarruza

Ez dago matxismoa baino ezer trokotzagorik lurraren gainean, ez inor itxuagorik gizadian, gizaki izanez, abere legera jokatu nahi dutelako apostua. Ezin onartu Valentina *Paedagogium*ean euskera erakusten zitzaiela umeei orain dela bi mila urte. Sumerian direla sei mila erakusten zitzaien. Heurena ez da maisutza, mendekua baino: gezur epaia, izuna, tortura, kartzela, kurutzea, triskantza. Erromatarrengandik dakite *bakea* egiten.

Dena den, gu ikasketa errimeak egitera bultzatu gaituzte, Amaren Etxean bizi garenok, etxea jagoten ikasi behar dugulako.



Oroko Andra Mari, Murgía (Araba) aldean. Mendiketa, erromeria, poza, promesa eta oparia. *Oro*, monosílabo honetatik sortu da>*Koro* ere mendiko *koro* tontorra adierazten edo eta *koruena*>*korona*>*gorena*. Zertan *kurritzen* da hara? Andre Mariari *kur* edo *agur* egitera, haren Umea *gurtu*, etxeko “gaisoa” *ekuritu*>*agrotu* “osa dezan eta etxekoak *guri* zaindu.

7.1. Santutegien izenak: Oro, Koro, Kurtze.

Tokizenak ere, izen arruntak bezala, arketipoen sailean aurkezten ditugu, banaka barik, multsoan. (ikus or. 7) Horrela izen bakoitzak dagokion etxea bilatzen du, amaren eskolak eraiki zuañez. (ikus or. 46) Banaka bat aztertuez gero, idea bat izan dezakegu. **Oro/Oru** izeneko *Andra Mari* adibidez. Ikus bere irudia (or, 61) Izenak jatorria nondiko duen jakiteko *Or^(k)*>*Ortzi* mitologiaren topo egiten dugu. Izan ere, *Oru* “solar” da tokizenetan, eguzkiak maite duen tokia. Orobat, **Ori** mendia, grekoz *orus* “mendi”.

Zeinek ordezkutzen du Iruzkia *Oroko Andra Mari*agan? Bere seme Jesus *ino*>*himno* kantagaian “Zuzentasun Iruzki” deituak. Katekesi on bat barik, ez duzu zutik urtengo Valentina *Paedagogi*umetik. *Oro/Oru* monosílabo honek kosmo jakinduria zaharrenarekin topo egiten du, hotz, izen horren sustrai sakonena.

Mitologian sakonduz, *Or*, *Ator^(k)* amaren seme *aitorra* izan zan, bere anae *Set*>*setiaren* ondoan. Kontu egin Anboto Mariaren bi semeak, Atarrabi eta Mikelatz², harako bien gomutagarri.

2 Iruña Veleian egitiar maisua agertzen da: ama hizkuntzen familikoak gara eta bide beretik doake jainkoen *koru* goiztarra Euskal Herrian.

Oro izenetik sortzen da gizatuago **Koro** izena, Donostian du bere eleiza, aldarea eta jaiera daukana. (ikus or. 78 taulan) Titulo horren oinarria menditik kalera jatxia da aurki. *Urgul* tontorra, *Urkiola* eta *Urko* bezela, arketipoz itzuliak dira, *Ekur*>Ekurrola formarekin gonbaratzen baditugu. *Ekur*^(s) da, izan ere, mendi santutegia deitzeko izena, asierako santutegiak menditarrak izaki.

MENDIEN ETA IBAIEN TOKIZENAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERRA	ILU	BA	KA	ASA
Ainamendi	Udala	Ori	Lumentxa	Bamendi	Gorbea	Esmendi
Anboto	Toloño	Erremendi	Uliamendi	Beramendi	O(k)iz	Etxamendi
Maxa	Sollube	Remendia	Lekanda	Beriain	Garamendi	Asmendi
Nerbion	Aturri	Oria, Urola	Leza	Ibaizabal	Kadagua	Zadorra
Mainaria	Deba	Irati, Aragon	Loira	Ebro,	Ega	Segre
Nela	Dorio	Arga, Erro	Lea	Bidasoa	Golako	Sena

Gero Sumerren, baratzak landuz, uria Ur urez uritzen zelarrik, bustin erreko adrilu andiez *ekur* berezia eraiki eta haren gainean jainkoari *etze*>*etzia* egiten zioten eta *etzi-ekuratu*>*Zikuratu*/*Eskurtze* “*etxe goratu*”deituz, bertara igoteko eskailera eta gutzi, Egipton *Sakara*<*etxa gara* deitua. *Zikuratu* kultur maila Sumer eta Babilonian burutu zan, Eufrates ibarraldean bereziki. Euskaldunok mendiak eurak ditugu naiko *Zikuratu*/*Eskurtze*, eta agian euren koroan ermitaren bat edo jaso izan dugu fede goiztarra gurera eldu zenean. Horra **Kurtze** Bizkaiganen eta Bizkargin, edo Eskalera mendi/Montescaliers, Ainamendin.

Mendi santutegiak, giza oinen nehurrikoak dira, nahiz harri-maila eta gutziko agiri batzuetan. Altuerak baino ingurumariko ikuspeiak gehiago dino eurok baloratzean. Mendiok konikoak dira, nahiz eta oraingo baso zapaztoak itxura galduazi dien. Izenak berak ere itxura aldatzen du zehaztuz **Kurtzia** deitzean eta harago *Kurtze*>*Creus*>*Cruz* biltzean kristinoen martiriorako, *Mari*, Inko Ama izenaz ere, *Andra Mari* ospatzean bezala.

Herria baserritar “paganoa” izan da eta izaten jarraitu du egunotaraino, beraz sinistedun. Bere “paganiatik” urtenaz gero, zer izango den ez dakigu. Eleizari “paganía” hori berreskuratzeko



Santa Kurtze Bizkaiganen (Erregoiti) Sortzaldetik igoten da, erraz igoteko mailadia dauka, Urregarain Santa Eufemiakoak bezala. Koroan Kurutze Santuaren omenez eraiki zen ermita-txoa dago aterpe eta guztiko, itzelezko ikuspegia, barriz, Sartalderantz. Abadea eta monagioloak zirialekin urtero igoten gendun errogatibak egitera. Berezko zigurata dirudi Arrigarriena, ostera, Kurtzia izenaren jatorria da: zi+ekur+ate>zikurat, ekur+ate>**Kurtze**>Cruz.

gelditzen zaion abagune bakarra da. Gaitzerdi zeharo ito ez zuena.

Ekur izenaren bideak santutegietakoak baino zabalagoak izan dira. Ekurrola>Egurrola, Eskurtze>Kruzes, etab. Kruzeta” eduki-nekin. Artean dogu ekur>egur hitza eta Kortez>Kortaza, ekuriko abeleen tokia adierazten, eta Ekurrola/Lagorria formak.

Jatorri berekoak dira Cortona⁽¹⁰⁾>**Gordoa** edo Corona deierak. Halaber Elgorriaga/Lagorriga, Orriaga/Agorria, Eskoriaza, Gorkiz, Gorla, Gorriti, Gorbea, etab. tokizenak.

Ekurrera kurri egiten da santuari kur eginez, agur esatera. Hori zan agure eginkizuna, ekurian ekuru sentitzera, edo eskurian>sekuru>seguru>zihur. Bai eta San Antoniok gordeta ekurian gorde eta gordo dagoen ganadua begiratzera. Hatarako dago **Sokorriko**³ Ama ere Urruina inguruan, etxekoren bat beharrianean aurkitzen denean sokorritzeko, hotz, norberak bertaratu ezin duenean, bera etor dadin sokorritzera. Historiak lan ederra egin dezake oraindino gure artean, baina euskerak xuxurlatzen, eta Iruina Veleiako arkeologiak iragarten digunaz askoz sakonagoa.

3 Orain laguntza ona dugu Osakidetzan eta santuak atzeden gehiago har dezakete, baina aldi bateko ondarrutarrek Antiguako Amaren gona barrera ondarrrez zikinduta ikusi zuten, gaues ere itsasoan mariñelei laguntzen ibiltzen zelako.


7.2. Mitoak eta Historia

Horrek mitoak dira, beste hau da Historia esaten asten zai-guna susmogarria da, beste barik, “hori guzurrea da, hau da egia” esan gura duelako eta nork egiztatzan du egia hori? Untze bat beste untze batekin ateraten den lez, horrela Mito bat beste mito batekin atera gura lukete. Horretan maisu dira, Egipton patekoengan (or. 42) ikusi dugunez. Halan gertatu zan Babilonian Sumeriar mitoak ordezkatzean eta argiago Grezian, Egiptoko mitoen soineko urratuekin heuren Olimpoa janztean. Enperio orokorrak ez du beste jatorririk ezagutu gura, bere burubidea baino.

Matxismoak ez du amarik ezagutzen, misoginoa da: amen umeak gorroto ditu, txikiak zapaltzen, ama-eskubideak (foruak adibidez) ukatzen. Gazteria garbitzearen, gudak asmatzen ditu, eta emakumeak hiltzearen, amazonakia harrian taxutu eta edertia bailitzan, Partenongo metopara jasotzen du. Antimitoon jarauslea Erroma izan zan eta haiengandiko Enperio zaleak.

Akertipoak, batez ere, ama eskola du gorroto. Ez dute onartzen eurek, hain ederto ere, egiztatzan duten, *Or* eta *Set* anaien Mitoa. Mitoa ukatuz, nahi lituzkete euren erahilketak garbitu.

Mitoen sare barik ulertu ezinak dira zure mobilean edo mahai gaineko ordenadorean *Ainua*-ko Andra Mari, *Oitia*-ko Andra Mari edo aipatu dugun *Oro*-ko Andra Mari. (Ikus Mitoen sarea, or. 46) Mitook antxinako bizi erduetara bidaltzen gaituzte eta gizakiak bere erra-ietaraino sartuta dauzkan tirriak. Jung sikiatrak *arketipoak* deitzen die halako jokerei, ez *akertipoak*.



Aniemendi edurtzan
Sarerik ezean, zertara-
ko balio dizu mobilak?

4 Euskalduntze berantiarraren morroiak halatsu esaten du. “Pues bien, eso son mitos y ésta es la Historia”. Eta horrela euskaldun memoria kolonizatzen hasten dira. Horixe da patekoek egin zutena ere. (ikus or. 42)



Gorbaien, Aldaminapetik-edo Arratiara begira, ikusten dena: Sakonean mailo altuena, *Anboto*, *aiñubia* ikutzen, eta bean Arratiako bailara, urrunen, aNu “zerua” aiNubiak .

Aiñua tokizena ulertzen dut *Aiñomendi/ Montaña* sarean. *aN* arketipoa *aNu* ere ba delako Sumer-Akadian “zeru *anila*”. **Oitia** tokizena ere ulergarri zait *Otamendi/Montoto* arian, *uTu*>*ota* datorrelako “goi” esaten *iduzkiarekin* analogizatzean, *Otatu*>*Otado*>*Otadui* abizenetan lez. Erdi Aroan santu batzuk, menditik kale urbilera jatxi ziran *Antigua*, *Andiko*, edo *Antxinako* deieraz. Batzuk jasarpenaren baztergotik berreskuratuak izan zeitezken, hala *idoi*-tik *Idoia*-koa Nafarroan eta *Idoibalzagakoa* Erregoitin.

Sare berdineko egiten da **Uxue** izeneko Andre Mari, Nafarroan, *uTu*>*usu* aideko egaztietan (ikus or. 58) edo *idi*, *udo* lurrekoetan. **Itziar**-ko Andre Mari ezaguna, Gipuzkoan, bideko Andre Mari delako, hotz, ibiltariak *itera* bidean *itera*>*izera*>*zehir* aurkitzen duen atsedena edo “bide zuzena” bailitzan.

Zehir>*izar* ere moldatu da, *Zeiarra*>*Izarra* egin denez. Idiak *itera*⁵ ibili behar dute soloan, goldaketa desbardindu ez daiten, malkarrean ere. Hortarako izaten zan itaurrekoaren lana.

5 *Itira jo*, “bidean *zehir*, zuzen jo” esan nahi du. Latinak, beste barik, *iter zehir* bidea, egina aurkitu zuan gurean, nahiz berak kaltzadak egin gainetik.

7.3. *Mendien izenak: Gorbea, Ainamendi, Anboto*

Ikusi dugunez, *ekur* “mendi santutegi” izanik mendien izenetan erro hau idorotea bidezkoa da. *Kurtze* aipatu santutegiaren oinetan ba dago *Gorbiya* izeneko baserri bat. *Gorbaie/Gorbea* datoz, *Ibai+Ekur/Baigorri/Ekurbide* adierazten.

Ainamendi/Aniemendi Pirene katean ederrena da bere hiru milakin *aN* “zeru” alaba *Nanna* ospatzen du bere izenak, gure alaben *Ana*, *Anne* izenak bezala, edo *aina* “aizta nagusia”, *naia* “maitea” eta *nini*, *nene* hitzak bezala.

Euskaldunek ez dute aztu *Anie* mendi, urruntxo dagonarren, izenagaitik, garaia, lerdena, piramidezko delako edo *aN* zerutar Inkoaren mezutik gertu dagoelako. Ama Eskolako ez diren erro-moanikoek, ostera, patetikoen aleginak egin dituzte zeruarekiko loturak ezabatzen. *Ainamendi* deitu beharrez, *Montaña*, *Aniemendi* esan beharrez, *Muntanya*, *Montagne*, deitzen diote, nortasun dena pikutara bidaltzen dutela, eta zer norena den jakiterik ez dutela. Ondo desmitologizatzen dute euskera eta kolonizatu batzuk ere atzetik dioakez, *Anie* mendira zuzen joan beharrez. Eskiez ezin denean edo edurrak urtuz gero, sentzunak, irudimena eta adimena ditugu ibiltari azkar eta emendioko.

Eta nondik asmatu zuan euskerak *ain* (h-dun edo bariko) gonbaragarria? Berez edo norbaitekin gonbaratu barik, ez. Gonbaratu, beraz, adostu Mitoaren jakinduria zaharrarekin, euskera zaharra eta berria sakonean ulertu al izateko.

Anboto izena aztertzeke ez dugu zeltengana joan beharrik. *An* arketipoa “zeru” Ama da, Anbotoko Mari den bezala, eta tokia zeru berak *boto*>*votoz* aukeratua eta *boti* egina. Horixe bera da “date el *bote*” esakera eta latinak *pot esse*>*poder* erabili zuena. Nola zeruak aukerauta? Bada, *Anuk ainubia*>*nube* bihalduz.

Anboto Axpetik, betik gora, edo Igiriñaotik goitik bera edo pare-parera begiratzea baino ez dago, izen eta guzti Mariren katedraltzat hartzeko. Bera, Zeruko Erregina bada, beragaz dakar zerua ere lurreko palaziora (Ikus or. 28), alaba-semeen koi-tak entzutera eta ezbai><baiezko juzoaz gizabidea gidatzera, zerupeko lainoen txanda hartzen duen artean.

Amaren eskola uxatu zuten setatiak Mariren koban sartuko di-



Ikus (or. 83) argazkian lainoen katea Anboto erpiñaz jostatzen. Artzainak, Arrabatik-edo, hala ikusten zuten eta izena ezarri *Anbatu: aN betu>aiñubi>nube -tu* batzen zuelako, hotz, zerua lurrera jaizten zuelako, zeruaz maitemindu bailegon edo Anboto Mariri lumazko bidea egiten. *aNu+be>Ainubi>nube* dator, zeru betua.

Ambotoren txapela Euskalmetek argiro azal dazaken ikuskaria da: Ordekako aize otza haren parera eltzean, utzune andi eta epelagoarekin aurkitzen da, batzutan bera tiratzen diona eta orduan *amilaina<amil lainoa* sortzen da.

ra eta han mitoa baino besterik ez dagola aldarrikatuko. Baina kobako Mitoaren ostean zer dagoen ez dute begiratuko⁶. Herri apalaren jakinduria baino gurago dute Historiaren guzurrezko kondaira, andiak txikia ondatu zueneko.

Euskalerriko tribuak euskalkiak landu zituzten, denak Ama beraren Eskolakoak, eta Mitoen sare berdinez zortu zuten izadiaren ikuspegia antolatzean: Ama+Ata sortzailea Ma.aT eta eRra, bien arteko ondare eroia, (h)irugarrena: horra euren Trinidadea (ikus arketipoen zerrendan (or. 46), eta gainerako lur-tarrok bere alaba-semetzakoen arloa, zoria hartzen dugula⁷.

6 «Zerua da ene eserlekua eta lurra nere oinpekua. Ze templo eraiki behar didazute gero?/El cielo es mi trono, y la tierra es el estrado de mis pies. ¿Qué casa me edificaréis? ...» (Is 66, 1-2)

7 Zeozegaitik sumertarrek ez zuten jainkotzat onartzen *iLu>loi>lurra* eta gaisoetan *alu>il>hilgarriztat* zuten. *Larri* izate horrek, ez jainko, ez lur uts, egiten gaitu eskale, ezbaikor arduratsu eta erabat sinistedun, hirugarren zenbakiko eroen mailan, gu ere Jainko Irukoitzaren partekide bai-gara.

7.4. Lurraren izenak: Asia, Afrika, Europa, Ozeania

Mendiak jainko santutegiaren izenak ulertzeko lain den euskera, haien oinpeko diren lurra eta itxasoen izenak ulertzeko ere izango da, ezpaere, frogagarriren batzuk, ez denak, amango ditugu, Inannaren meez egia egiztatzen saiatuz⁸.

Asteko ondo dator *Asia*⁹ izena, handik *asten*⁹ bai-da eguna argitzen, hango *itsosotik uTu itoitzen*, bestela ez leuke ingelesak ere esango *Ast*, euskerak *Aste* dinonean, edo *West*, euskerak *Oste* dinola, *uTu>Oste* horretan *otsitzen* bai-da¹⁰. *Ifarra>Far* egiten du, euskaldunen *Ibarra* bai-litzan eta *Sud* "Egoa", *udan Sute* lain duguna. Beraz, ingeles zaleok, funtsezko euskera ikasi aurretiz.

Gure mapa Ostetik asita, *Tarteso* unean *asten* da eta Amur ibai parean Sajalim ugartearekin *Tartari* izeneko *tartea* egin eta Ohaido irlaren urtenbide bat bailitzan agertzen dena. Europako Mediterranean osina itxiagoa da, Japongo itxasoaren ondoan (ikus or 87).

Afrika da Europatik urren dagoen kontinentea, nahiz tarteko itxasoak alderik alde banantzen duen, Mitoen garaitiko etorria dago Afrikatik Europa. Asieran patekoak Amenofis III Faraoiaren garaitik gerora, gero ijitoak, Alexander makedoniarraren garaitik, gero IX garaian bereberrak etab., gaur senegaldarrak eta datozkigu, amaigabeko zerrendan, Europako kerizpera.

Iruñia Veleian ere izan ziran ijitoak, susmo dugunez, eta aldameneko Ibaias ibarraldean, ba dago *Aprikano* izeneko herri bat, baina ez C. Barojak, tokizenen ezjakinian, uste duenez¹⁰. Horretarako *Afrika* tokizen beraren jatorria jakitea dugu¹¹.

8 "Una mentira repetida mil veces acaba pareciendo verdad" (Goebells) Una verdad olvidada, no puesta al alcance, acaba pareciendo mito, cuento.

9 *Asia* tokizenak ezpadu h- hatxerik, ez du merezi *asi* aditzak ere.

10 C. Barojak Kantabriar Guduan nabarmendu zeiteken *afrikar* buruzagiren baten izenetik zertorkikela uste du, hako Eszipion Afrikarra bezala.

11 *Celtiberia.net* blogean ikus daitekenez: (EUSKERA, sábado, 24 de enero de 2004 a las 00:00) Ibar es aglutinación de ibai "rio" +are "terreno, área" en vascuence. *Abbay* en gu´ez etíope significa "Nilo Azul", are/ari es "solar de Ra", dios egipcio. De Ibar procede Iberia. Sus derivaciones más frecuentes son *bar/bra/ira*, como Barcelona, Braganza, Francia, etc. La toponimia de este término se halla extendida notoriamente en toda Europa. (Gracias, Silverio)



Horren zabala ete da gero euskararen memoria? Ama eskola hizkuntzak bat datoz funtsean. Sahara une gogoangarria, Egipto, Sumer eta arteko itxasoak, ba dakizu non bizi zaren: Ikastolan ikasia zara. Bada, hantxe izan ziran lehenengo Ikastolak. *Eduba>edupe* zeritson lenengo Ikastolari, *edu* “modelo” *peko* “según” taulak erabilten zituan

Iruña Veleiako historia ariketetan Nefertiti eta Nefertari irakurten dira ostraketan. Ejitiar maisu haiek gogotan zuten, haien taxu agurgarrien edertasuna. *Afrodites* deitzen zioten grekoek Ator maite jainkosaren kalkoari, naiz eta bere jatorriaz eta nortasunaz ezarduratu. *Ibarre/Abarre* formak bikotxak dira, Abasolo/Ibasolo bezala, beraz, *Abarri+Kano>Gano/Gane>Aprikano* dator, bertatik bertara ikus daitekenez euskararen deseina.

Afrika izena asmatzean, ama hizkuntzetan han zegoen euskerar: *Abar+-ika*, Iruña Veleia inguru *Langarika* lez, Karistia guztian, izenetan, *-ika* atzizkia tribuaren xegunetarikoa bai-da.

Europa azaltzeko *Oribe>Euribea* arabar forma urbiltzen da grekoen *Europa* agozkerara¹². Haxe zan Ifar-pean lurmenduzan *orube* berria, eta euren poetek, *Europa*, neska maitagarriena biltzan, Zeus bidaldu zioten, zezen itxuran, bera xarmatzeraz.

Ozeania <*osinean* galduneko Eurasiaren zatia dirudi. *Osina-otina* bihurtu balitxakon, izena eta izana ezin adosturik dihardu itxaso sakonean. Baina latinak ere *osin* izena aintzat du *Ponto* <*hondo* “itxaso” txikiari *Euxino* eransten dionean. *Mediterraeo* baino *hondatsuago* dena. Latinak aintzat du euskeraz.

¹² Horrela dator F, ZUBIAGA, *La onomástica oído de la prehistoria* (2002), azal-azalean.

7.5. Herri izenak: Sumer, Egipto, Grezia, Kanada

Historiak begiez gain-gaineko soaz aldian eta tokian aztertzen du herrien kondaira eta herrien izenaz ere ez da arduratzen. Gorraizea bailu, ez ditu entzun ere egiten, ulertzen ez dituelako. Euskerak, entzun orduko, ulertzen du: **Sumer**, Zumarraga lez, Marrako bezala. Eufrate ibaiak "itxaso" *marra*>*mar* topatzen duen unean, hantxe izan zan *Sumer* eta hantxe ur ertzeko alde bietan dagoz Ur, Uruk, Eridu eta gorago, Ubartutu, Duranki, etab. izan zireneko erauskinak. Arkeologoen aritu ziran eta K.a. 5.000 urtetako zantsuak eta jakinduria iragarri zikiguten¹².

Egipto, Nilo *Abbay* ondoan, Goikoa eta Bekoa bereizten eta tirriatzen ziran. Bien elkarteari *Oiku*+*Batu*>*Ikupta*^(w) "etxe batu" deitu zitzaion. Sumer eta Egipto izan ziran lehen kulturako enperioak mediterranean baranoan, ama kultura izan zirenetik eta geroago. Patriarkatu gaitzaren eskarmendua izan zuten, harrazgero, geurk bezala, Iruña Veleia lekuko.

Grezia<*Kreta*<*Karate* "garaiko atea", Egiptok Ifarrerantzako itxasketan topatzen zituan *ate*, *Atena* bezalako bortu, porta, portu gertuenak. Greziak Kretari, herkide zirenen hizkuntza, kultura eta izena ostu zizkion¹³, beste zerbait edo norbait, txukunago, ederrago, klasiko izan asmoz. Matxismoa, arteko trapuak izkutatzeke amarrutan bakarra da zan/da. Inorenaz jantzi ondoren, kolorez aldatu zuten amaren jantzia, mikenikoaren ondoan, elenikoa, bestelakoa zela adierazteko. Matxismoa koldar, gezurtia da, haraz gero eta haien aurretiko beste bi mila urtetan.

Kanada Amerika izena ezaguna zelarik ere, eta lurrari bira egin orduko, euskal mariñelek ezagutzen zuten *Kanada*<*Kaiña*>*gain*+*atea*>*Kaiñada*. Horrela detzen dira mendi bideak elkarrekin *gainka* zubia egiten duten uneak ere.

¹² Oraindino arkeologoen lan andia dauke Iruina Veleian eta giza indarkeriak zapal dutako uri askotan. Arkeologoen, Bakegileen ezur arakatzailak lez, geure munduan gertatzen ari den Azken Epaiako lekuko bereziak dira, bakearren eta justiziarren, lurpetik ere egia ateratzen dakitelako.

¹³ F. ZUBIAGA, *La onomástica, oído de la prehistoria*, 9, (2002) Cf: *Creta*>*Grecia* dator. Doriarrek hango urrea, artea, fama eta izena ostuz gero, ama eskolako euren hizkuntza minikoa ezetzi egin zuten.



Arga ibaia Garesko zubipetik igarotzean, zeru-lurren batasun egina, aire gardenean orekatua. Zerutik ura eta urdina, lurretik baratzaren orlegia, ta erdian, herriko Ikastolan umeen lekukotasuna: ama eskolako alegina: euskera...

7.5.1. Ibaien izenak: Deba, Nerbion, Oka

Deba ibaia dela-ta, faszismoaren kulturak balankea¹⁴ sartu du, toki hori gurea ez dela esateko, bada euren ustez, *Deva* izeneko zeltarra da. Akiakulua, urrunetik, eztalakoan, zauritzeko akulua. Karistia zenaren marra da gainera, ibai sakona, igaro gizaldiraino Elgoibarko burdingintzatik kañoi pisutsuak urez atera al izateko hainakoa. Nondik, ezpada *Debako* atetik? Ez du izan “bortu¹⁵” izenik, *ate* bai-da izen zaharragoa eta *Deba* <Ate+ibai da, *Atabe*>-*Adabai*>*Adabe*>*Teba* formak bezala, *ibaia atea*, hain zuzen.

Nerbion ibaiak Karistiako beste muga markatzen du. Ibai hau *Urate* deitu aldean jaioten da, Kuartango goienean, Torre Urbina¹⁶, “torre venero”>*vena*=*nervio*>*Nervio*+*une*>*Nerbion* jaioten den uanean, Arando mendiaren alturatik Delikara bosteun metroko jausia egiten duena. Ez da txikiagoa Urrunagatik, Arratiako Undurragara egiten duena, Arabak urunez eta urez inutzen bai-du Karistia.

14 Palankean sartu eta oinarriak mugitzen dira. Alexander Andiak, kirten luzeko astamakilez itzuriten omen zituan persiarren erasoak. Politika bakoitzak zetariko armez ziztatzten duen jakinian, gert egon behar dugu.

15 Ez du izan, hala ere, *portu* izenik, Bizkaiko *Portumek* lez.

16 *Urbina* izenak ur banaketa dino: Ibaia Egora, Urate, Ifarrera. Erdian, uren edo *iturrien*> zaintzako *torre venero* <*vena*=zain=*nervio*>*Nerva*+*une*>*Nerbion* jaioten den Urate gunea, Arando mendiaren alturan. Ba leiteke lehenago ere nahasi gurako norbaitek Pontean urok ezjakinez nastatzea.

OHIUSKOEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERRA	ILU	BA	KA	ASA
ene/en	otoi/iso	ara,ario	alá(ar)'	bea/vae	ka'kia	ixi'che'txen
enei	ut,ux,aida	arren	olé/iole	ba'buá	gel'gora	jau'chao
iñó/añó	txut'ixo	aro'rau	(h)il'lúe	ave'afa	ako'ecco	asa'ajai
oinó	et/eit'at	arraio	ola'alló	eup'vah	gerô/coño	zaust
ená/nai	uju,jo/ujui	arre'aira	ely(h)	uf'huf	agur	xapi/zape
áinü	otian/ospa	rayos	elas/alto	eup,hip	courage	txist'chitón
aan	zut,tira,tus	arrano	ale/ela	vaya,epa	kontuz	esti/este
áinintz	oste'uxela	urra	al'alajina	balinba	kurra	ezbe


Honexek dira guk otoz-otoan euskaldunek erabiltzen zituzten/dituzten oihuak neke, ekintza, ira eta gainerako jasanpenetan. Geure arketipoak ezagutzeko berebiziko ariketa dira.

Oka da gidari itxuek¹⁷, edo ezpain mutuek, *agozkatu*¹⁸ ezin duten ibaien beste izen bat eta euskeraren aurka *okazkatu* nahi luketena, gure ezarduratu edo albora begira orrastuak, zulo berean jausiarazteko asmoz (ikus or. 91), edo guzur antepara andiak egiten dituzte, gu ito naian, uger egiten ez bai-genekian.

Ez dator gure eskolarekin, baina euren politika egitekotan, geure mendeko lurtzat edo ibaitzat har genitzaken *oka* > *oja* xeguna dutenak eta bardin *ate*, *ibai*, *ain*, *kur* > *gora*, etab. konposagarritz aurkiten direnak, bada geure asabek bateatuak dira Eurasian eta Afrikan zehar. Baina dena ez da gure euskeraren meritoa, ama eskolako familia garen hizkuntzena baino. Gure meritoa edo, obeto esan, zori bakarra, bizirik irautea da, besteen Ba hilik edo hiliñan dagoela. Galdetzekoa ere bada, zergaitik, zertarako utzi gaituen Sortzaile > Sortemaileak, kontzientzi honen jabe geu gaurko munduan. Ohartzeko ere bai, gaurko medioen arriskuetan zelan, gorde hain ontzi auskorretan halako altxorra.

17 Heurak bezalako, gidari itxuekaitik esana da: "eulia irasten dute, eta ganbelua irunzten". (Mat, 23:24-26)

18 *Agokatu* > *afogar*^(ga) > *ahogar*^(gaz). Izenok euskarak askatzen ditu ugoldeetik. baina guk *ago* > *aho* > *ahokatu* esan eta idatzizez gero, ez genduke ez inor eta ez geure burua salbatuko. *Ataka* < *ate* + *-ka*, *atea* ukatzen, "estukune" adierazteko. Hortik *kate* > *gate* > *gat* ere hizkuntzetan, "estukune, kontrola" adierazteko. Bardin *agoka* < *ago* + *-ka*, agoan dugun estarria adierazten. *Agokatu* > *ahokatu* > *okatu* etorri da eta *okaskatu* iguin ematen diguna.



Oka-ko ate>*Kakuete*-ko *autzak*>*fauces* Zuberoan. Ibaiek igaroan gainditu beharreko ostopo asko dituzte, *agoka* deitu estuntzetan. Ur dena golpean iruntzi ezinez, ura multsotu eta *okatu* egiten da. Igaro une estuoi *Oka* deitzen zaie. Urdaibaik adibidez, *Oka* deitu auzoan, Muxikan, Zadorrak *Oka* Iruña deitu unean, *Ojakastro* herrian Galera ibaiak *Rio Oka*>*Erriojan*, etab.

7.5.2. Ibaien izenak: *Aturri*, *Aragon*, *Ebro*.

Gure gaurko mugak busti daroazen beste hiru izen entzutetsu dira, *Aturri* Ifarretik, *Aragon* Astatetik eta *Ebro* Egotik.

Aturri da aldi batetik hona Ifarreko euskal muga egiten diguna, Ainamendiko (Pirene) edurren hirurena dakarkiguna. Beraz, ibaiari besteak beste, *uren atea*>*Ate+ur*>*Aturri*>*Adur* deitzea euskerak urretik etxekotzat hartzea da. Euskerak urrunagoak ere dokumentatzen ditu, *Rone*>*Arru+une*, adibidez, edo *Loira*, jakobinismo barik, ikasi nahi duen eskolarako, beste barik.

Aragon ibaia eta ibarraldea aldi baten Napar Erreinukoa izan zan. Izēn eta guzti alboko erreinuak eraman zuan, baina *Aragon* izenak zer esan nahi duen jakin gura badute, euskarari galdetu beharko leukioe. Euskerak honela dino: *Aran+goi+une*>*Aragon* du bere grazia. Oraindio han gorengo lurak, *Etxegara*>*Segre* mugaraiño beinipein eltzen ziran.

Ebro ibaiak Egotik eusten digu, Nafarroa puzka batek urez harantz gelditzen dela, euskerak barriz, muga gabe. Bera da Ainamendi egoko uren biltzailea, goiko eta beko Iberiari ere izena ematen dien ibaia, iturriak Kantabrian dituela eta Euskalherriko uren gehiengoa daroa Mediterraneora eta gure kultura, landaretza bezala, iberikoa egiten duena, atlantikoa den betean.

VIII. IRUINA VELAIA 2.000 URTETAN

8.1. Euskeraren memoria ostrakan

Norbere bizikizunaren memoria Arqueologiako agiriez egiztatzeak, sumerioekin, egiptiarrekin eta Ama Eskolako beste kulturen familiako egiten gaitu eta eureka kidetasuna aitortzera bultzatzen. Ba genekian lehendik ere geure jatorriaz, baina arkeologoen baimenak urrezko eguzkia ezarri digu paparrean.

Birritan bizi al izan dugu, hil eta gero berbiztu baiginan, kontuizu. Suerte da, nahiz arerioa tukuz dagoen ipini diguten dominea dela-eta. Konturatuko al da gure arerioa¹ bere amarruen gaintetik guk arnasa hartzen jarraitzen dugula bi mila urtetan? Gu bizi gara, baina arerioa ez da ahienatu. Eta zer? "Iruina Veleia egitasmo bizia da"². Herriaren ikurdirako landu beharreko urrea.

Antxinako kulturek museuetan dauke erakustokia. Gasteizen prest egozen arduradunek Iruina Veleia Museora jaso eta herriko ikasbidea gertatzeko. Baina emakumeak birritan frogatu behar duelakoa dago matxismoaren agintepean. Ba, bardin euskerak birritan arakutsi behar du bere memoria argia dela, benetazkoa dela erakusteko, matxismo beraren tukuak³ ezietan bai-dauka.

Euskeraren memoria ez da berezkoa, ez eta zoriak, Iruina Veleian bezala, prestatu diguna. Suerte berez galkorra da, memoria, oster, Valentina *Paedagogium* Eskolan egin lana goiztarrean du sorrera eta arkeologoen susmoan eta euskeraganako agertu duten maitasunean izan du lorpena.

Dagoneko ostraketan gorderik dugu euskararen lehen dokumentua. Keramika horrek duen gorputza eta beroa gotorra da. Museua bera ez da izango gerdeleku segurua. Gogora Irakekoa.

1 *Arerio* hitza *ERRA* mitoarena gogoratzen digu, *Errensugea*, alegia. Etsaien formak ez du halako memoriarik Mitoetan.

2 Eliseo Gil no parece muy dado a las palabras poéticas, pero ya ha acuñado una expresión propia, la de que "*Veleia es un proyecto vivo*". Es decir, que las sorpresas no acaban aquí.

3 *Tuku* "zelo" da euskeraz. Sumerreko Mitoetara jo behar da ulertzeko. *Ut* arketipoak bere zelataria eukan, *Utuku*⁽⁶⁾ zeritson, *Utuku>d*o dogo dator, eta hala zeritson Veneziako agintaria eta deritso zaintzako txakur mota ezagunari.



Zeramikatik ordenadorera 2000 mila urteren aldea eta gehiago dago. Biostatik zein iraunkorra? Hala ere, memoria euskeraren arketipoetan dago. Zer dino? Zer esan nahi du? Amari galdetzen zaion bezala, itaundu euskerari ere eta jakinduria zahar denaren berri emango dizue, matriceinuko bailitzan.

Orain gure gazte jendean tabletei eta ordenadoreari emana dihardu. Aldi berriak, medio berriak. Eskola ariketak ezeze, gure tesiak eta idaztiak gordetzeko lain da, merkea eta segurua. Segurua? Ba dauzka, euki, jakerrak⁴. Saretako armiarma arma-tuak dira, bat txikitzeko beti prest direnak, matxisten burruka orokorra bai-da, Babiloniako iraultzatik hona⁵.

4 Ez dira rusoak, gertuagoko aipatu arerioak eurak baino, baina beste medio eskergaz baliatzen dira, zu bistatik kendu eta estalgarri batez albo-ratzen zaituenak. Egia esan, maiz sagua eta arratoia lez, dihardugu bizitzako burruka honetan, nazioarteko merkagai aurkatuen artean, *Vocento* eta *Amazon* uleetatik tiraka, esateko moduan, bata geure arteko berriak bihurritu gurean, bestea, berekotu tituloak saldu nahian.

5 Babiloniako iraultza *Enuma elish* idazki sagaratuan agertzen da. Han Ama Inkoa erritualki erail egiten da, Marduken bersorkuntzari bide egiteko. Arrigarria ere bada, erritueltasunari jarraitzearen, VI, 124 eta VII kapituluetan Marduken tituluak sumerieraz aurkitzen dira eta “esto parece euskera”- ohar egin zuan zatiaren hiruskina egitea tokatu zitzaion neska euskaldun barriak. Benetan Marduk herriko “*baratzakusu*” dino, adibidez, laugarrenak. *Ikusi>kusu*, beraz, herri baratzaren zaindari esateko. Baserriko ama eskola dugunok kalekoak baino askoz obeto ulertzen dugu jakinduria zaharra eta euskeraren memoria bere hiztegian dago. Memoria maite baduzu, hitz bakarra ere ez baztertu, beraz, “hori euskera zaharra da” esanez.

8.2. Erromtar kurutzean josita

“Jesus jaio zeneko, Erromak mundu guztia baketan zeukan” dino Gabon Kalendak liturgian. Handik urte gutxitara kurutzera-tu zuten Galileako Profeta. Ba genekian zelakoan zen Erromako *Ba+-ka>bakea*, hotz, “ubi solitudinem faciunt, *pacem* invocant”. Iruina Veleian ere barri goiztarra izan zan Jesus Kurutzeratuarena eta haren berbizkundearen inguru alkartu ziren iraualtzaile berriena. Erromako gudarien artean ba zan barrionaren susmorik. Jesus aipatzen zuten ijitoek ere, Iruina Veleia kristatu zanean.


“Gurutza salbagarria” aipatu dugu arinkeriaz, baina kurutza erromatarrek erabili torturagailua da eta han ikatzea gizakiari egin daitekion irain negargarriena. “Gurutza salapena da”, ez salbarena, eta salapena den heinean, da osasuna ere. Norbaitek herriaren aldeko egia aitortu duelako. Horrela, Iruina Veleiako Kalbarioak Erromako politikak erabili zuen tortura eta gaurko torturatzailak salatzen ditu, eta euren guzurrak argitara ateratzen.

Chagal margolariari Alemaniako naziek juduei opa izan zien *shoa<sua* harako sutatik igestea gertatu zitzaion. Ez zituan aztu eroriak eta, euren omenez, kurutzatu andia erdien dutela, margozten zituan. Bi mila urtetako aldia dago Iruina Veleiako Kalbario xumetik XX gizaldikora eta salapena da nausi egitura bietan: etxeokak eta besteek jasan zuten tortura salaten du.

Erromatarren ostean gure herriak jasan duen zigorrik andiena Gernikak eta Karistia izeneko beste uri askok jasaneko su bonbataka izan zan, (ikus or. 47) Gonbara Gernika⁶ su goritan eta Chagalen marraskia, (or. 95) gaueko iluna ere gorrituta egon zan harakoan. Chagalek ere ondo begitantzen du Gernikako Kalbarioa.

Igaroak igaro eta Iruina Veleian bi milgarrena ospatzen dugula, beste mutilak ostera aurreratzen dira, euren eratako beste kurutzea jaso behar dutelakoaz. Baten bat ikatu gura dutela? Zer-

6 Urdai bai baranoan bizi eta nire adina dutenek ondo gogoratzen dugu Gernika iziotu-izutuak eta inguruko baserriak jasan zuan heriotza. Bost urteko nintzala, neuk ama galdu neban. Jaio barri alaba besoetan eta Errepublikako gudariez etxea bete eta eukiak desagertu. Ama gaisotu eta meriku eta osabiderik ezean, joan zan. Bai, gogoan dot orduko gauaren kolore gorritzka.



Chagal margolariak bizi izan zuenaz Kalbarioa gizarteratu zuan. Beti dago baten bat kurutzeratu irrikaz, andikien okerrak izkutatzeko. Ez genduke holakorik ikusi gura, baina norbait kurutzeratu barik, bizirik urtengo ete dugu Iruña Veleiako auzitik? Zer dinoe gaurko Kaifas eta Pilatok? Ez da gutxi izango euren izenekin guk ezagutu, euren jokera ikusi, euren zikinak besteen izen garbian lixibatu. Hor dakust torturatzaillea, inor "terrorista" salatuz, garbi urteten.

tarako baina? Beti legez, euren okerrak izkutatzeko amarruz. Matxismoak gizaldietan, mitoaren garaietatik ikasita daukan joera da. Euren garrantziko ez den edonor emakume lez tratatzen dute. IAurrekoaren kupida gabe, golak sartzeko tirria daukee. Akertipoon moralak ez du emakumerik aintzat hartzen, ez ikusten eta gu bezalako herri txikiak jan egiten ditu. Zientifikorik baletor gauzen benetasuna aztertu duelakoaz, "egia neu naz" erantzungo diote edo eta Millan Astrayk bezala *"muera la inteligencia!"*.

Errömako gizabideak abetik eskegi zuan Gurutzatua eta haraz gero, askok gurutza dugu ezaupide, salbabide barik, salapide. Gure mendi askotan gurutza andiak jasota dagoz, ikur bereziak dira herriarentzat. Kantu samurrak abestu doguz. *Kurtze, Kutzia* santutegi zahar askoren tokizena ere >Cruz eratorri da tokizentan, *Eskurze>Kruces* bezala. (ikus or. 81) "Hori suertea!" esateko edo "nork daukaz mundu honen giltzak?" beste askorentzat.


Euskaldunok ere odol beroak izaki, zenbat eta baztertuago, bular asiagoa adoretzen gara, ez uzurtzen, Teatro zaleak ere bagara eta kantu sentikorrez, fedea eta damuak aitortzea dugu gogoko. Lagun bekigu geure arketipoak aztertzen eta garatzen.

8.3. *¡Muera la inteligencia!*

Millan Astray, Franco-ren adizkide mina izan zan, falanjeen taldea axatu zuena *¡Muera la inteligencia!* ozenkatuz. (ikus or. 97). Irailak 12. 1936-an izan zan, handik bi ilabetera hil zan Unamuno gurea, ausaz euskararen arduretatik aske.

Matxistak eroe antustekak bai, baina ez dira adimen argikoak. Patekoen lerrokoak dira. Amaren Eskola ezin jasanez, eta amaren etxeko umeen zoria ezin eroanez, izaki berria asmatu zuten, magiaren hizkirimirietan. Amakatu egin zuten, amatu ezinean. baina bai eurenaz urten-zale setati barrabanak: Menfisko nausigoa galdu zutenean, Babilonia, Atenas, Roma ingurua, patekoen magiaz kutsatu zan. Patekoek gende apalaz eta erkinaz baliatu ziran Tenploko Eskola eta teknika garatzen, eta guda gizonek ere berdintsu: “soldadua, amaren seme galdua” esan ohi dan lez, amaren seme galduez ustiatzen dira euren mendea gidatzen, Jordan bestaldean, Gerasako deabrudun *Legiona* bezala. (Mk, 5)

Argumentorik ezean, gezurra darabil matxistak, argitik iges egin du, bere egiteak agertu ez daitezten. Gezur zalea berak edatu sarean sarean jausten da. Bere burua salatzen du eta ezelan ezta du ezineko trapuz multzotzen du zarana. Gezurra erabiltea ez da adimendunaren jokera, baina eurak ez dute beste urtenbiderik, amaren aurrean, “amari ez jako guzurrik esaten” entzunaren entzunaz. Hala-ko trolak asmatzen dituzte, berriz: Eliseo Gil⁷ ezain salatzeke, adibidez, keramikazko taula txatal betetan, *SENEKA*, *SOCRATES*, *VIRGILIO* ospetsuen ondoan *DESCART* jarri zuelakoa. Eta nork irakurten du holakorik, *MISCART* baino? Horra, ba, salataileak bere burua saltzen...



7 Ponte en la piel de Eliseo, le empecé diciendo, hizo un descubrimiento excepcional y mira el premio que ha recibido: lapidación mediática, deshonor, desempleo... Y por si eso fuera poco, está en grave peligro de ir a la cárcel y de cargar con una multa millonaria (Coenrad amigo)



“Habeis vencido, pero no convencido” esan zien Unamunok falanjeko mutilei, Orduan Millan Astrayk ots egin zuan “¡Muer la inteligencia!” eta maisua isildu egin zan. Handik bi ile be-tera bakardadean hil zan Salamañakako Erretorea...

Unbersidadean kontseilu berezia dute zientzien ikerketak begiratzeko, benetako *baratzakusu* halakoak, norbaitek, lurpean karistiera bizirik edo blogean “euskerak!” oihukatu edo euskerearen jatorria aztertzen dueneko. Kanean eta zeinbat ekintzetan, gende arrunta dirudi, baina patekoen deira, manada bezala erantzuten dute, hotz, amaren seme galduen antzera.

Lingüistika eta Exegesi arloa berez Legea eta Política esparrutik nahiko urrun dagoz, baina hantxe ere Arkeologian lez, euskera mundutik datozenak bezala, *baratzakusuaren* begiradapean dagoz, emakumea lez, kate laburrera behartuak, euren erreinuak Erromako *Ba+-ka>bakean* iraun dezan, ez gizaki arruntari dago-kion [sociedad de bienestar] *oneko>ongoan*, Erromak eta bere legionez munduari opa dien *bakean*, hain zuzen, eta Iruina Veleiako Kurutzatua agertzen den R.I.P. lekuko.

Konstantino kristautu zenik ez dakigu, baina kruzada halako batez, enperioko gozamenera liberatu eta erakarri zituan kristianoak. Esanda dagoenez, “ilunbeko semeak argi semeak baino azkarragoak dira” (Luk 16. 1-13) eta Eleizak laban egin zuan Konstantino Enperadoaren Liturgiako apaizak sagaratzean. Euron buruetako batzuk gaurdaino iraun dute enperioko morroi eta burunahiko diren eta izan gura duten herrien saltzaile.

8.4. Ene!, ohiuak otoitz ereduak

Ohiusko formak (ikus or. 90) ama eskolako bulkoak dira, jainkozkoak jainkoei eta euren abereei dei egin edo gizakiek kideei ots egitekoak. Mitoen garaikoak direnarren eta direlako, baserriko euskeran maiztxo entzunak izan dira jainkoei egin otoiak bezala. Orain giza mailako besteok gelditzen zaizkigu.

*Ene*⁸, eta *ene bada*, erabilten zituan oparo gure amumak, *aida*, *arre* erruz gure aitak golde lanetan eta nire arrebek bedar igaroketan. Orain, gure soinuen organoa murristu delarik, *uf*, *eup*, *agur* eta holako batzuk entzuten dira. Euskerak hilian dagoela? Ez, hori aipatu zuena bai ostera, *aipatu*>*eipon*⁽⁹⁾ bera zela ohartu gabe. Ama Eskola galtzean, hitz batzuk desagertu egin direla, Ama Inkoaganako fedea otzitatean, hari egin deiak bezala. Hala ere, harrigarria da dagoeneko zergaitik hil ez den euskera barrundatzea. Ama Eskola galdu ezina delako agian?

Oihuak baitako pilpirak dira, norbere animoak egin deiadar ixilak edo ozenak, gure gogoaren nasaipenerako. Estrezatuta bizi bagara, ezbaiak, bildurrak, esturasunak, aserreak bizi bagaitu, aukerako euskal oihu bat gure agotan.

Begitu oihuak (ikus or, 90) eta aukeratu bakoitzaren gustoko bat edo beste, entzunak, erabiliak edo ez erabiliak. Berezi gero jainkozkoak eta gizar-tekoak, aztertu zeuk erabilten dituzunak. Norbere ohargabea arketipo bidez ezagutzeko ariketa duzu, ama eskoladun euskera munduan ezagutu eta sakonago eta urrunago egadan joatekoa.

Iruina Veleiako gure auzia erabagiteko, bigarren ereduko oihuak eskeintzen ditut: *jo*, *ut*, *oste*, etab, bakoitzaren gustora,! arridura ikurraz edo ikur barik. Baina



NEURE ATA irakurten da kurutzatuaren ondoan. Aita gurutzeko tituloa agertzen da gure ermitetan

8 Venezuelan guda osteko igesarien artean: “-Tu eres vasco. -¿De qué me conoces? -Porque has dicho *ene!*”. Bilbon lez: “*Ene*, qué risas hisimos”.



Munch, Oihua. Margolariak zazpi koloren nasteaz geure begietara dakar gizaki arri-tuaren irudia. Euskerrak zazpi arketipoen otsez geure bihozkerak adierazteko entzungarria ezeze, geure asmoak, eskerrak emateko esakerak prestatzen dizkigu.

lehen ereduak ere ez dagoz urrun, *ene!*, *enei!* errepikaz, edo *iñó!* azentudun eta erdeinuzko *nai!*. Hirugarren arketipotik *arraioa!* eta *arren!* aukeratuko neunkez. Giza eruedetakotan, barriaz, *ako*, *kia*, *gel*, *buá*, *epa!*, *puf!* (ikus, or. 90) eta ea benetako otoitzak eta aginduak diren gogoan hartu.

Euskera ikasteko ere ariketa ona da asieratik astea, hitzak monosilaboak izan zirenetik, alegia, eta erdi hitzakin alkar ulertzeko erarik zegonekoa eta, zer esanik ez, geure arketipoak ezagutzeko, *ama*, *aita*, *eroea* bederen, *eroeon* arriskua geugan izkutatzen dela. Ama Eskolak ere bere arantzak dituen eza egutu eta geure ohargabeak argitzeko.


Dena den, oihu egin beharra dugu, oihu ixilak geure gela barruko bakardadean, oihu ixila birietako geure arnasa bizigarria delako eta oihu zabalá kalean, geure gizartea delako. Eta oihu ozena plazan, oihu medioetan, oihu euren gorrieriaren aurka, euren itxukeriaren aurka, egiari bide egitea merezi du-ta, arnasa garbia hartzea bezala delako. Ama Eskolakook emakumearen parekoa dugu geure auzia Irina Veleian eta denean.

8.5. Ostraken geruza

Ostraka batzuk daukeen geruza dela-ta, ez dira argi irakurten, baina 2.000 urtetako seinale zigurra dira zeramistaren azterpenean. Ez diote sinisten euskerari, sinist bezaie geruzari. Eurak dira, Erromak eta eurenak bezelako legionen indarkeriak gizaldietan zehar egin digun kaltearen lekuko. Erromak lenengo, godok urren eta berbetan ez dakiten edo "hable usted cristiano" erantzuten duten gendea gero. "Cristiano dinozu eta nork kurutzeratu zuan, bada, "neure ama"? -erantzun liezaio halakoari Valentina eskolako bitimak. "Kiristinoago oraindino, ia mila urtetako agiria zeramika zindoenean garapetu gordeta daukanena baino?".

Deabrua aitatzeta gizabideari hiruzur egitea da kontuizu, baina gizatasuna ukatuz, norbere setaren ekintzak eta etika adierazteko erabilten dugun *aker* halako *akertipodunak* dira, geuk beste arketipoen aurrean aztertu eta ezagutu al ditzagun.(ikus or. 62)

Ostraken geruzak ez ditu asmatu arkeologoak, geruzok erromatar txikizinoaren ondorenak dira, *ura, sua, airea, lurra* direla denaren lekuko. Arerioaren aztarrena aurkitu dugu ostraketan eta haren erantzuna bere baitako inperua arkeologoaren gainera jaurtitzea da. Izan ere "deabru" hori asieratik izan da guzurtia eta eraila" Jesuñeri⁹ ere kosta eginten zitzaion halakoak exorzizatzea.(Jn 8,41-45.59) Sikiatria lana da, geiago ur bedeinkatuarena baino. "Gezurak barrutik ur-



9 Jesusek Gerasa uriko deabrudunarekin topo egitean, "Nor zara zu"-galdetzen dio- "Zein da zure izena? -"Legion naz, asko garelako"- erantzuten gaisoak". (Mk, 5:9) Legion erromatar gudarien kopuru handia zan. Ez hori bakarrrik, Markos ebangelariaren oharrez, Jesusek Legionez guztia txarri manara bidaldu zuan, eta exorzismo honek, ostera ere, Iruina Veleiako txarritxo zaurituagana itzultzen gaitu, (ikus or. 39) jakinik gudateak eta halako Legionen bizikizunak soldadu asko burua galtzeraino gaisotzen zituen.



NEU XII URITETU irakurten da ostaz, zeramika-ko geruzak ez digutelako izten. Orduan garbitu daitezke irakurketa osatzeko. Gerusa mesedegarri da ostera: idazkizunaren zahartzaroa noiztikoa den zeramikan, hotz, gerusako lurra gogortzen zenbat urte behar izan duen. Geruzak berak du aldean egiaeren lekukoa. *Ena! Hori bai arrigarria.*

teten diolako, gezurti eta gezurraren aita delako”. (Ibi) Nahi ez duena ez da osatzen, deabrutan jarraitzen du, Iruina Veleiako auzian nabaritzen dugunez. Izan ere, geruza hoiek Gerasa¹⁰ aldeko deabruduna dakarkigu gogotara. Deabrudun deitzen zaio edozein gaisori ebangelioetan, espiritu gaiztoek hartuta bailegon. Kontu egin deabruok anka bikoak direla eta gudatean *legione* izateraino ugaritzen direla. (ohar or. 97)

“Deabruak, munduak eta grina txarrak” eratako dotrina ikaste-an, “deabru” hori beste mundukotzat jo izan dugu, maiz agintea, boterea, dirua eta erleginoa direla urkolaguna menderatu, oratu edo arrapatzen eta hiltzen duen hori. *Legione* deritso (Mk, 5:9), bada, botereari eta diruari gende asko biltzen zaizkio eta bere zeregina herria torturatzea da, herrikoen ongoaz eta zorionaz Erromako *bakea* egitea, ondamendiari *bakea* eta guzurrari *egia* deituz.

10 “Este es el pecado: lo diabólico se ha introducido en la vida humana, definiéndola en claves de orgullo y opresión. El texto no dice (no puede decir) la manera en que el diablo/infierno ha querido apoderarse de la realidad humana, no distingue niveles que nosotros hoy distinguiríamos en clave de simbolismo e historia social o económica. Pero a su juicio es evidente que el Diablo/opresión ha penetrado en nuestra vida”. (X. Pikaza).

8.6. *Valentina amaren ausardia*

Ba dakigu emakumeena dena azken baten garapena eta ez idatzita dagoelako bakarrik (Has. 3:15), edo eta dagoneko emakumeek kalera urten dutelako, bizi iraupena eta gizatasuna eskutik dutelako baino. Hala ere, emakumeak geien bat bitima lez dihardu, Euskal herriak lez, armadunen indarkeria jasaten⁴, gu bigarren mailako norbaitzu baigiñan, historia aurka, demokrazia kontra, ekologia arruntena egalka dutela⁵?

Valentinak arriskuan zegoen gende xeari eta etorkinei bere etxeko atek ideki eta etxeko sute santutegi barruan gizarte erro-matartuaren erdian etxeko eskola emoteko ausardia izan zuan, umeek barrutik jantzi, kaleko indarkeria ekidin edo Ka arketipolari Ba ganoraz aurre egiteko ariketak egin.

Nafarroako Gorteak herri hizkuntzari halako begirunerik izan baleutso, bestelako ondarea izan zezaken euskaldungoak, baina eleizaren romanismoa hartu zuan argibidetzat. Erresumaren anditasunari begira, erdal abategi eta monastegiak eraiki zituan eta halako porruak jasotzen ditugu gaurdaino haien baratzetik⁶. Eta

4 Pero había algo peor. El sabio judío Filón de Alejandría nos informa de que "mercados, consejos, tribunales, procesiones festivas, reuniones de grandes multitudes de hombres, en una palabra: toda la vida pública, con sus discusiones y sus negocios, tanto en la paz como en la guerra, está hecha para los hombres. A las mujeres les conviene quedarse en casa y vivir retiradas" (J. JEREMIAS, *Jerusalén en tiempos de Jesús*, 372).

5 No es sana una actitud que pretenda «cancelar la diferencia sexual porque ya no sabe confrontarse con la misma» (Papa Francisco, LS 155)

6 Orriagako Abategitik, Fernando Sebastianek, Kardinal izan aurretiz ondo aukeratua, eta Franzisko Aita Santuaren egunotan gainera, Gazteizerako Episkopu berria ekarri zigan: harek bezela, ez daki euskerarik, Iruina Veleiako auzian, barriz, mu dagi, aitabitxiren antzeko barre gozoa dauka. Aitabitxik Nafarroako Euskal Liturgi Batzordea, ordezeko barik, jubilatua zuan. Ezin daiteke ukatu, Rouco bezelako arerioek bultzatu gotzain berriok min handia egiten diotela euskerari eta Euskalerriko fedeari. Eta beste bihurrikeria bat hanartean: Bizkaiko Aldundiak ba zuan Ziortzako monastegi zaharrean zerbait etxetiarrago egin asmorik, lortu zuan, Totorika gazte prestua lortu zuan abatetzarako eta euskaldun monje batzuk beragaz. Olivako Nagusiak Totorika Abatari deitu eta "behar zaitugu" esan eta nausigoaren botoz, Olivako buru jarri zuan, Ziortzako euskal asmoari ortzetan emanez. Halako jokerak eskola eskatzen du ez bai gabe.



Erromatar etxe baten egitura: hiru teilatu, harrizko abe eta ormen, erdian teilatuen itosura hartzen zuen putsua, alboetan gelak eta saak, sukaldea. Pompeia Valentinarak halako itxura izan zezaken. Atea eskolameei idekia eta legionarioei itxia, maisuei zabalik. Valentina halako mugidaren erantzule: etxe santutegia dotrina leku, eskola, ikastola egina, lehena.

euskera *lingua navarrorum* esana Agramont euskaldunen eta Beaumont erromantzatuen arteko tirabiran amaitzen zelarrik. Baina herriko arima euskarak aurrera jarraitzen du.

“¡Hable usted, cristiano! Kristinoago oraindik Iruina Veleiako euskera baino? Han Kalbarioa dagola jakin behar luke Gazteizko Gotzainak eta parte hartu, bestera birauta begiratu gabe. Iruina Veleian kristau eskola baten arrastoak dagoz eta ez dira gezurtiak. Gezurtiak albora begiratzen dutenak dira, gezurtiak Jerikotik Jerusalemara opariak egitera joiazen klerigoen antzekoek dira, herriko fedea bide bazterrean zaurituta dagoela (Luk 10:25-37).

Klerigoak barik, samariar gende arrunta behar dugu, emakumeak eurretan, ez gizonezkoak bakarrik. Emakumeek gertuagotik ikasten dute Amaren Eskola eta Eleiza Ama ez bada, zer da? Ba Euskaleko Eleiza, klerigo karreristen pentzudan dauka. Naiko Kalbario.

Arabako herriak Iruina Veleiako kristianoen argibidea egin nahi du. Herria azken gudako bitimen memoria egiten dagoela, zuek, Elizako begiraleek ezagutu ez zenuten gudatik libre sentitzen zaree, “guk martiriaren memoria” esanaz. Iruña Veleian ba dago “Kristoren izenean martia jasaneko gomutarik” eta zuek bardin, “guk martiri kanonizatuen memoria egiten dugu”. Beraz, argi daukagu: guk klerigoak barik, samaritar jende arrunta behar dugu.



Juan Martin Elexpuru eta Koenraad Van den Driessche eup, hip, urra!!! Zeuena da-ta, zeunenlako heroena Iruina Veleiako auzia laino guztien azpitik eta sasi guztien gainetik gailen aurrera ateratea. Zuekin jardutearren, lezoan ere bai.

8.7. AMA.ATA eta Eroei goratzarrez

Ez dot zuen aurkezpenik egin beharrik, ez eta iragarri ze apostu darabilzuen eskuartean. Izan be, ze asmo egon daiteke belgiar zeramista baten eta Bergaran Uberako hizkuntzalari euskalzalearen artean, Iruina Veleiako altxorra ikusiaz bat zaindu erabagia baino AMA.ATA blogera jaso zutenekin bat.

Eurak kaleratu zituzten, halako ausardiaz hatan ere, lurpeko egiaren aztarrenak eskua goitik dutenen aurrean, maisutza argisari direnen geruza uneak salatuz. Eurak jaso zuten internetera Iruina Veleiako auzia, mundu guztiak ikus eta juzka dezan eta eurak, etsaiari aurrea hartuz, hogetazak egiaren aldeko txosten aurkeztuazo, beste hiru-lau aurkako konponduen aurrean.

Herriko eta etorkin mazalon laguntza gabe, zer gara, izan be, Erromak hiltzat utziko Euskalerrion? Gutxi gara eta eurak legion. Baina "asmoz eta jakitez" bizirik urten dugu gaurdaino eta iraungo dugu beste hainbeste urtetan geure Historia osatzen, zuen bezalako gende adoretsuen eskutik, eup, hip, arraio, urra!.

ONDORENAK

Iruña Veleiako lurpetik argitaratu den Historia, geure-geurea delarik ere, edozein herriri gertza zezakion eta denen poz ta eskolabiderako emanak dira, joanen memoria osa al dezagun.

Iruña Veleiako arkeologoen aurkikuntza, edukinez eta eztabaidaz abagune itzela da Euskalerrriaren nortasuna, asmoa eta ekintza garatu eta memoria osotuz gure Historiaren oinarriak argitzeko. Edukinez, bi mila urtetako *euskerari bai* esatea, Euskal Herriari bai esatea delako eta eztabaidaz, arazoa sakonean aztertzeke aukera ematen bai-digu. Iruina Veleia auziak ez du alde txarrik onerako ez diatorkonik, halako zoria ustiatzen badugu.

Erromak Mediterraneo osoa irabiatu ostean, alde bateko herriak astinduz eta Kristo deitu Profeta Jerusalemene kurutzeratu ostean, eguzki Osteko herriak erasotzen ekin zuan eta bere asmoak ostopatzen zutenak abean ikatzen. Euskaldunen bidean ere sartu zan eta guda orokorrak arrapaturiko kultura ezbardindun gendeekin topo egin zuten gureek ere, guda guztietan gerta oi den bezela eta, harrigarria!, gudako nekea jasaten duten ama eta Iruina Veleiako eskolaumeek agertu dira ekintza hoiere erreportari xume. Xume eta xalo direnarren, guretzat armadunen ekinztzak goraltzen dituzten textoak baino tiria sendoagoa dute.

Kristianoek euren fedea aldarrikatzeko misinoa artu zuten asierratik. Biigarren edo hirugarren gizaldirako Iruina Veleian ziran hizkuntzaz ere lehengusu ziren koptoak eta Erromak berak aizaturiko gende eta misiolariak, jakinduria barriko iraultzaren predikari.

Arkeologia eta Historia bateratuak dauken indarrak eguneko argiaren distiraz uxatzen ditu arerioak gure begietara jaurtin aramu sareak. Euskera bizia, bera da naiko gure historiari argi egiteko, baina Arkeologiaren koska horrek urrezko domina geitu digu paparrean. Domina horren distirak, hain zuzen, atzera jaurti ditu beste mutilak eta ez dute garbi zutitzeke aukerarik. Hala ere, albesteko arramantza asmatuko dute, beti ere, gizabidetik ate, euren indarkeriak ez duelako demokraziarik onartzen.

Euskera bezalako hizkuntza Mitoaren garaian eldu zan eta gure biologia osatzen duten *ur*, *su*, *aire* eta *lur* elementuak, hotz, elementuon adigarri diren *zeru*, *eguzki*, *aire* eta *lur* sinboloekiko loturak edo euron gurtzako mendi, ibar, eta gainerako santutegiak, Inoteko erritualekin batera, mantendu al izan dute lehenagazko jakinduria. Aipatu izadiko lau indar berriztagarri hoiekiko lotura Mitoekin duguna bera da. Hor dago bizia, askundea eta ugalketa, hor etorkizuna, hortik edaten, berotzen, arnasten eta jaten jarraitzen dugulako. Jainkozko indarrak ere elementu hoietan susmatzen edo ezagutzen ditugulako.

Iruina Veleiako auziak giza barneko, edo geure etxe barruko arketipoak sakontzen laguntzen digu. Euskaldungoan %15 ostaz da auzi honen jakitun, eskerrak medioen suno txar edo igesari. Eta lekuko izatera deituak gara, hitzak eta eguneroko berriak mutu gelditzen direnean, izadiak berak geure alde berba egin duelako. Lurrak ereiten dena ematen duenez, Arkeologiak ere lurrean egortsi dena argitaratzen du, eta “benetan dinotsuet” hizparlariak isiltzen badira, Valentina Etxeko umeen zurrumurrua entzungo dela lurraren bihotzetik.

Zabalkundearen medio andiek Historia euren asmoetara bihurtzearren, Jatorrizko kondaira dugun Mitoa gutxiesten eta ipuintzat ematen dute, gezurra giza arketipoaren ondarea delarik. Ohargabe iluneko arketipoaren morroi direnok dira, hain zuzen, Cosmoko elementu barriztagarrien memoria gezurtatzen dutenak. Guretzat, ostera, ezelako kontraesanik gabe, euskera bera bezain benetakoa dugun Aurreistoriaren argi bidea dira.

Iruina Veleia auzian aldi bateko bustingintzagaz sorretan gagoz, halako sutan labetu zutelako gure agiriaren iraupena, eta Valentina Eskolako umeak morku galduetan hain poliki idatzi eta marraztu zutenak gaurko ofizialtasun salduari dautsogun baino adikune andiagoa deutsegu. Bi milako urrunteak aurrera joteko dinosku, “txoria txori” abestuz, nahiz Ofizialtasunak txoriari egoak bardintzea uko egiten dion.

Euskalduntze berantiar ustea ustela dena frogatzeko nahiko

zan berez karistiarren hizkuntza edo bizkaiera formak berberak direna jakitea eta baskoindar formen aurrean kontuan hartzea, baina ostraken froga gehigarria lar txundigarri izan da aurreritzi orokorrez antuste, okerreko bidea seinalatzen dabilkuzanontzat. Idazkizunetan zelta-edo agertu balitz, orduan bai, baina euren guzurreko zeltar hizkuntzarik ez da inon agertzen, euskera, barriz, edo bere lehengusuak Europa, Asia, eta Afrikako tokizenetan.

Iruña Veleia auzian, “burubide utsak dinoskunez, juzoaren erabagia ez da ostraken zindotasuna benetakoa denetz esateko inor. Zientziari bere bidea egiten itzi behar bai-zaio, goiak eta beak lardaskatu barik. Juzlariak juzkatu dezala bere orduan, obenduruak ostraketan ezelako trikimailurik erabili duenetz, ondo frogatu ondoren, eta ez aurretiaz lanetik aztandu eta meatxatuz. Politikak ez dauka zeresanik, ez eta zereginik Zientziaren Tenploan.

Iruina Veleiako auzian bezala, herri mailan, matxismoak emakumea bezala tratatzen gaituenez gero, zilegi zaigu gure auzia Genero arazoa lez ebastea eta ezelan unea ustiatuz modari kur egitearren, Genero arazoa, gizarteak Baradisutik hona erliginoaren eta militarismoaren eskutik jasan duen eskarmentu latza delako baino.

Iruina Veleiako Kalbarioak gaur ere, herri penatuen Nekaldia antzezteko lekukoak behar ditu. Gizonezko bat edo bi, ala hiru (hiru kurutzadun bai-da izatez Iruña Veleiako Kalbarioa) juzkatuko dituzte denon ordezko, “herriaren onerako” esanez, Kaifas Apaizburuaren arabera (Jon, 11,49), eta “Eliseo naz neu ere” eta antzeko oihuak entzungo dira gure plazetan, gaurko jerusalendar abadeburuen eta erromatar Agintearen aurrean.

Iruina Veleiako lur silutuak hizkuntza zaharrenaren alde berba egin du eta Ama Eskola aldaretik bera eratxi zuen patriarkatu=matxista zakarra eta eralea aztoratu egin da ostraka batzuen diztiraz eta bere juzoak daroan errabidean ez trunpatzearren, noraezik dago, euren erratuzko akatza nori-zelan egotzi asmaka.

Ama eskolako hizkuntza eta eskolaumeak bakarrik, keramikan antzeztu, utzi zezaketen halako agiria, Valentina adoreko *Paeda-*

gogiuna bitarteko zela, Iruina Veleian. Izan ere, pobreen alde idatzia dago, "herriko arduradunak ixiltzen badira, harriek eurek hitz egingo dutela". Araban euskera galtzear zela? Bada, Araban, hain zuzen, eta harriek ezpada, ostrakek egin dute berba.

Iruina Veleiako auzia arketipo baztardoen serbitzari diren patetikoen jarduera zantarra salatzen dator Euskalerrri osoan. Hare gehiago, gure herriak bi mila urtetan jasan duen baztergo eta erasoen laburpena da eta, antzerkiz bezala, euren lekukoen eratako memoria eginik, eskeini gurako leuskigue. Ospakizun horretan parte hartzera gonbidatzen gaitue.

Egiaren aitormenak bidegabeko kurutza ekarri zion Nazareteko Profetari. Ez da hainbestearaino izango Iruina Veleiako egia aitortzeagaitik inori ekarri daikiona, baina hor dagoz frogarako eta ez bidea salatzeko ostraketan agertzen diren Kalbarioak. Egia horren aldeko gara, berak gu aske egiten gaituelako, geurea defenditzearren.

MITOANALISIA

ETIMOLOGIAZKO HIZTEGIRAKO

Sigla batzuk: aur. aurrizki “preposición
atz. atzizki “sufijo”
an. “analogía”
adb. adibidez “por ejemplo”
tok. tokizen
ark. arketipoa
(Ikus beste batzuk or. 7)

A

ab-<*Ba* aur., adb. *ab*+*arrikatu* “asolar”.
aba<*Ba* “aita”, konposagai, adb. *osa*+*aba* “tío”, *izeba* “tía”
abail<*Baal*>*Ba*+*Ilu* “Iluren seme”.
abal<*ab*+*al*>*apal* > *qfable*.
abade<*ab*+*ata*>*apaiz* “cura”.
Aberrri, Ainemendiko jainko, >*abere*
zaindari>*haber*, *aper*⁽¹⁾>*affaire*⁽²⁾.
abutu<*ab*+*butu*>*putu*>*putsu*>*pozo*.
ad- aur. <*at*->*uTu* “iduzki jainko”, adb.
ad+*obatu*> *adobado* “jaki obetua”.
adobe>*ad*+*obe* “bustin obetua”.
Adar<*Ata*+*Ra*, akadiar jainko “borrasca”.
adore<*ad*+*doru* “ánimo” adb. >*at*-
>*oratu*>*atoratu*>*adoratu*>*adorar*.
Adu akadiar jainko <*uTu*>*adu*>*ado*>-
hado>*fado* “suerte”.
Adur “sorte jainkoa”, *uTu*+*Ra*>*Tor*
“trumoe>trueno”.
af- <*ab*- ekintza baitatua, adb. *afa*+*itaitu*>
“afeitar”.
ag-<*ak*-<*Ka* aur. “*gaia*”, adb. *ag*+*ertu*>
agertu “aparecer”.
Agarre>*Garra* “despejado” adb. *Agar*-
ramendi, *Garmendia*, tok.
ager, *agiri* <*ag*+*erri*>“*agro*”⁽³⁾.
agindu<*ag*+*indu* “prometer”.
agur<*ekur*, “inclinación de cabeza al dios
del santuario, adoración del *agure*”.
agure<*ekur* “anciano >*augur*>*gurú*”.

aiene<*ai*+*ene* “endecha, queja”.
Aiete<*Ate*+*eta*>*Atteta* tok.
ain, *aina*>*haina* “tan, tanto”, <*aN* “ze-
ru” gonbaratzekoa.
aina <*aN*/*iNanna* “hermana mayor”.
Aina/*Aniemendi*, *eNi*/*iNanna* m. “zeru
alabari” opa santutegia”, tok.
ainanino<*anunna*⁽⁴⁾>*aNu* jainko *ume*-
ak “ángel”, *aiñaniño*ko “demonio”.
ain>*aN*>*tan*⁽⁵⁾ gonbaratzekoa.
ainen<*ain*+*en* gehiengoan “maldición”
aintu <*ain*+*tu* “elevar, dignificar”.
aire<*eRra*, *Ra*, dios egipcio “aire”.
aita<*atta* “padre” <*uTu* “iduski”, su-
meriar jainko, hizkuntza arketipoa.
aitor<*aita*+*or* “noble”, “*Aitoren seme*”,
Ator⁽⁶⁾ *Ra* alabaren semea, analogiaz.
aize>*haize* “viento”, an. de *aS*, arqueti-
po de santidad ritual.
aizkora “hacha”, arma de Hadad^(a)
montado en el *Ishkur*^(s)/*Xekor* “toro”.
aker<*ak*+*ar* “macho cabrío”, esfinge
de leones, custodios del templo de *Ra*.
ak-<*Ka* aur., adb. *ak*-(*a*)>*batu*>“*acabar*”.
akiti^(s) “*aNu* jaien mendiketa.
akitian<*akiti*+*an* “brincando”.
akitu<*ak*+*aitu* “fatigarse”>*quieto*.
akordatu<*ak*+*ordetu* “recordar”.
al<*iLu*^(u) “poder”, kanaandar jainkoa.
alen<*alaen* gehiengoan, adb. *aliyn*^(u).
al- aur. <*aLa*/*iLu*, *al*+*egin*, *allasso*⁽⁹⁾.
ala, oihiu *aLa*-*ri*, “ale!, pasto”.
alaba<*ala*+*ba*, *ahal* baitatua, “hija”.
alajainko, ohiau “ojalá” <*aLa*.
alakatu<*al*+*akatu*>*halagar*.
alde<*al*+*te* “a favor”>*lado* itzuliketaz.
Aldi<*al*+*di* “racha de *iLu*, generación”
diosa urartia de la plantación, >*aldaka*.
alen>*aLa*+*ena*/*ahalim*^(u) gehiengoan.
alke<*aL*+*ka*, “*ahal* gabe, lotza”.
altu<*al*+*tu*> *alto*.
am- aur. <*aN*, adb. *am*+*il*, *am*+*oratu*.

- ama*<aN>*madre*^(gaz), bizi sorgua, iturria.
amai<ama+in> "akabatu, concluir".
amako<ama+ko>*amicu*^(l)>*amigo*.
amarra<am+marra, "amarre">*Mari*>
amare^(l) "amar", *amari*^(l) "límite".
amatigo<ama+tiko> "serenidad".
amatigatu>*mitigar*.
amatu<ama+tu> "amar">*amado/a*.
amatau<mato+tu>*amatar* "apagar".
amil>am+il "depeñarse, perderse".
amilaina<amil+laiña>*amilanar*.
amilamia<amil+lamia> "nereida".
amore<aMa+Or m., *amorio*>*amor*.
aN>*aNu*^(s) "zeru" ark. sumero-akadiar
jainkoa", hizkuntza arketipoa,
an-/ana-<aN aur., adb. *an-*+*bildu*, *an-*
+*tolatu*, *ana-*+*baino*^(g).
anae<aN>*anai*, *aina* "hermano/a".
Anboto<aN+boto tok. Zeruak *botoz*
aukeratu santutegia.
andi<aN+uTu>*Antu*^(s), "mujer de aN".
andre<*andere*<aN+uTu+eRra hiru-
koitz arketipodun tituloa.
angeru<*anunnaku*^(s) "Anun uneko/de
la esencia de Anu>*ainaniñoko*">*ange-*
lon^(g)> "ángel, demonio".
ansia<*antsi*<*an+*+*etsi*>"*ansia*".
antsi<*an+*+*etsi*"*diligencia*".
antu<aN+uTu>*an+tu* "anditu, enchir".
antxitu<*an+*+*atxitu*"*conseguir*".
An.shar^(a)=*Sar.an*^(s), padre de aN "cielo
viejo" m., como en aN "anciano".
antzar>*ansar* "zeru altuko txoria".
antzi "suspiro, gemido".
qntz<aN+uTu>*ANTU* jainko sortzaile
Anum.zaro^(s) "Anu+*n*+*azar*" "tiempo
de aNu">*Ononzaro*^(eis). "Navidad" m.
anze<*Antu*"*destreza materna*".
Añomendi/Montaño "monte de ANU".
ap-<*ab-* aur. *ap-*+*aindu*>*apañar*.
apa<*aba*"*beso, abuela*".
Aprile/Abril<*bere+ile*"*mes del ganado*".
- aR*<*Ra/erRa*^(k)"*aire*">*eRra*^(eus), Egipton
jainko, hizkuntza arketipoa m.
aragi<*ara+*+*ki*<*Ra*"*carne de Ra*" m.
aratz<*aratu*>*rado*^(l)>*raso*^(gaz).
arau<*ara+*+*du*"*eRraren errege*la".
arerio<*ar+*+*erio*"*eRraren etsai*".
argi<*ar+*+*ki*<*eRra*+*ki*"*lúcido*".
arketipo>*arje*^(g)+*tipo*"*eredu zahar*",
Jung sikiatzen izendegian.
arra- aur. <*Ra*, adb. *arra*+*kalatu*>*reca-*
lar>*regalar*.
arramantza<*eRra*+*manata*"*maquina-*
ción contra el Ra".
Aramendi/Ramonte"*monte de Ra*" m.
arrano"*buitre, águila*", mascota de *Ra*.
arrapatu<*arra+*+*batu*>*arrebatar*.
arras"*prendas, totalmente*">*raso*.
arrauts<*arra+*+*auts*"*huevo*"<*Ra*+*uTu*.
arrazio<*arra+*+*zio*<*Ra*+*uTu*>"*razón*".
arrazoin<*rason*^(l)<*Ra*+*aTon*"*grato a Ra*".
arre zamariak zurujatzeko ohia.
arriba<*ERra*+*ba*"*hermana*".
arren"*¡por Dios!*", oración a *Ra*.
arri>*harri*<*erRa*"*piedra*".
arritu>*harritu*"*volverse de piedra*".
Arthe, Ainamendiko jainkoa<*Ra*+*uTu*
"tiempo de *Ra*">*arte*"*sosiego*".
artezi<*arte*+*esi*>"*ardid, magia*".
aS>*ax/ats*>*asa*"*aliento*", hizkuntza
arketipioa, errirozko santutasuna.
as-<*As* aur. adb. *as-*+*beratu*>*aspertu*,
as-+*biritu*>*spiritu*^(l)>*espíritu*.
asaba<*as+*+*aba*>*asabatu*"*antepasado*"
eta euren eguna *Sabbatu*>*Sábado*.
asabotu"*pasatu*>*pasado*".
asaga<*asaka*>*asag*^(s)"*azken eraso,*
postremería">*zaga*>*[a] sacco*^(m).
Asaro<*asi*+*aro*"*sementera*" m.
Asaru^(s), Marduken tituloa "que esta-
bleció la sementera" = *asaro* m.
asi>*hasi*"*comenzar*" de *aS*.
asma<*as+*+*ama*>*asma*+*tu*.

asmatu ">asmar, inventar".
 asperatu <as+beratu "suspirar".
 aste>as+ate "comienzo" >Ast⁽⁶⁾.
 asti>aste<asi+-te "semana, comienzo".
 asun<at+une "hortiga"
 at- aur., adib. at-+otsi "acoger" <uTu⁽⁵⁾
 "iduzki zoria, arratzoro", atoratu>azorar.
 at<ate!, uxa oihua.
 ata>aita>aitxe<uTu ark. >iduzki.
 ate>atx>aitz "puerta, paso, peña" iduz-
 kiaren sartu-urtenen atepak.
 atabut <at+abutu >"ataud, puerta de la
 ensoñación, introducirse en el pozo".
 Atar/Arrate tok.
 atari>terra⁽¹⁾ "portal del sol=tierra".
 ato "hermano mayor", sumerio-euskera.
